



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

# GBL

GRADU BUKAERAKO LANA

## Herria Harro

Emozioen garrantzia euskal  
kulturaren transmisioan: 23.  
Korrikaren kasua

Ruiz Castellanos, Amaia

2023 - 2024

Humanitate Digital Globalak Gradua



## GRADU BUKAERAKO LANA

### HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK.....

GRADU BUKAERAKO LANA: Mondragon Unibertsitatean aurkeztua

HONAKO TITULUA LORTZEKO: Humanitate Digital Globalak Gradua


EGILEA: Ruiz Castellano, Amaia



TUTOREA: Zuberogoitia Espilla, Aitor

ERAKUNDEKO TUTOREA: Elordi Albuquerque, Ane

PROIEKTUA BURUTU DEN ERAKUNDEA: AEK

DEFENTSA DATA: Bilbao As Fabrik, 2024ko ekainaren 10en

 Gradu Bukaerako Lanaren egileak dokumentu honen erreprodukzio eta komunikazio publikorako eskubideak baimentzen dizkio Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari, doan eta ikerketa eta irakaskuntza helburu soilekin, baldin eta: jatorrizko egilea aipatzen bada, eta obraren erabilera komertziala ez bada.

  **Aitortu - EzKomertziala - PartekatuBerdin (by-nc-sa):** ez du baimentzen jatorrizko obraren edo obra eratorri posibleen erabilera komertzialik. Obra deribatuaren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.

#### ORIGINALTASUN ADIERAZPENA

Nik, Ruiz Castellanos, Amaiak

Adierazten dut Gradu Bukaerako Lan hau originala dela, nire lan pertsonalaren emaitza, eta ez dela aldez aurretik aurkeztu beste titulu edo kalifikazio profesional bat lortzeko.

Besteen iturrietatik hartutako ideiak, formulazioak, irudiak eta ilustrazioak behar bezala aipatu eta erreferentziatu dira.

## AURKIBIDEA

1. Abstract
2. Sarrera
3. Graduarekiko lotura eta motibazio pertsonala
4. Marko teorikoa
  - 4.1. Norbanakoaren ongizatea eta mugimendu kolektiboa
  - 4.2. Emozioen garrantzia mugimendu sozialetan eta, bereziki, hizkuntza minorizatuen aldeko ekimenetan
    - 4.2.1. Emozioak eta mugimendu sozialen teoriak
  - 4.3. Emozioen definizioa Korrikaren baitan
  - 4.4. Korrika, euskararen aldeko gizarte mugimendua
    - 4.4.1. Bilakaera/historia
    - 4.4.2. Identifikatutako ezaugarriak
      - 4.4.2.1. Errituak
      - 4.4.2.2. Jendeak berenganatzeko aukera
      - 4.4.2.3. Izaera polisemikoa
      - 4.4.2.4. Gu-tasuna
      - 4.4.2.5. Ezberdinak elkartzeko bilgune
      - 4.4.2.6. Euskal unibertsoaren bi aldeak
      - 4.4.2.7. Diskurtso sozialen bateratzaile
      - 4.4.2.8. Korrika eta kirola
      - 4.4.2.9. Minorizatua, minoritarioa baina bizia
  - 4.5. Korrika, sinbologiaz beteriko lasterketa
  - 4.6. Korrika kulturala
  - 4.7. Korrika munduan
5. Metodologia
  - 5.1. Inkesta
  - 5.2. Korrikaren baitako etnografia
  - 5.3. Elkarrizketak
6. Emaitzak
  - 6.1. Korrikako elementu, sinbolo eta emozioak
    - 6.1.1. Korrika: Irundik Baionarat
    - 6.1.2. Furgonetan dauden pertsonen zeregina
    - 6.1.3. Upategira bisita
    - 6.1.4. Arantzako Korrika

#### 6.1.5. Etnografia lana

- 6.1.5.1. Lurralde kohesioan, giltzarri
- 6.1.5.2. Mugak gainditzeko ekimena
- 6.1.5.3. Belaunaldiartekotasuna nonahi
- 6.1.5.4. Kulturartekotasuna
- 6.1.5.5. Interesektzionalitatea
- 6.1.5.6. Trabesti eta bestelako bazterreko gorputz, genero eta mugimenduak erdiguneratzea
- 6.1.5.7. Euskara ikasleen ahalduntzea
- 6.1.5.8. Mota guztietako omenaldiak: aitortza kolektiboak
- 6.1.5.9. Landa eremu ta lan mundua euskalduntzea
- 6.1.5.10. Zainduak eta zaintzaile izatea une berean
- 6.1.5.11. Euskal Herriko paisaiak
- 6.1.5.12. Korrika presente ez dagoenean

#### 6.1.6. Inkesta

### 7. Eztabaida/interpretazioa

### 8. Ondorioak

#### 8.1. Korrika, emozioen gidari

#### 8.2. Etorkizunerako hausnarketak

### 9. Bibliografia

### 10. Eranskinak

## 1. ABSTRACT

### LABURPENA

Lan honetan emozioek hizkuntza minorizatuen aldeko mugimenduetan duten eragina ikertu da, horretarako Korrikaren 23. edizioaren kasu-azterketan zentratuta. Lasterketa herrikoian emozioek duten presentzia aztertu da, bide desberdinak jarraituz: 952 lagunek erantzundako inkesta, antolatzaile eta parte-hartzaileei eginiko elkarrizketak, lasterketak iraun zuen bitartean furgoneta barrutik eginiko behaketa eta horren inguruan sortutako lan dibulгатiboen lanketa. Horrez gain, Korrikaren bilakaera ere aztertu da hein txikiago batean. Landa-lan horren emaitzek erakusten dute emozioen presentzia ekimenaren aurretik, bitartean eta ostean ageri dela eta hori sinbolo desberdinen bitartez erakusten da lasterketan zehar. Ondoriozta daiteke, Korrikak indar emozional handia duela eta horregatik eta bere baitan dituen sinbolo, elementu eta mekanismo tradizionalengatik dela hain arrakastatsua gaur egun.

### HITZ GAKOAK

Korrika, emozioak, kolektibitatea, sinbologia, euskara

### RESUMEN

En este trabajo se ha investigado la influencia de las emociones en los movimientos a favor de las lenguas minorizadas, centrándose para ello en el estudio de caso de la 23ª edición de Korrika, se ha analizado la presencia de las emociones en la carrera popular, siguiendo diferentes caminos: encuesta contestada por 952 personas, entrevistas a organizadores y participantes, observación desde dentro de la furgoneta durante la carrera y elaboración de trabajos divulgativos creados en torno a la misma. También se ha analizado en menor medida la evolución de Korrika. Los resultados de este trabajo de campo muestran que la presencia de las emociones está presente antes, durante y después de la iniciativa y eso se demuestra a través de diferentes símbolos durante la carrera. Se puede concluir que Korrika tiene una gran fuerza emocional y que por ello y por los símbolos, elementos y mecanismos tradicionales que contiene es tan exitosa hoy en día.

### PALABRAS CLAVE

Korrika, emociones, colectividad, simbología, euskera

### ABSTRACT

This work has investigated the influence of emotions in movements in favour of minority languages, focusing on the case study of the 23rd edition of Korrika, analysing the presence

of emotions in the popular race, following different paths: a survey answered by 952 people, interviews with organisers and participants, observation from inside the van during the race and the elaboration of informative works created around the race. The evolution of Korrika has also been analysed to a lesser extent. The results of this fieldwork show that the presence of emotions is present before, during and after the initiative and this is demonstrated through different symbols during the race. It can be concluded that Korrika has great emotional strength and that this and the traditional symbols, elements and mechanisms it contains make it so successful today.

#### **KEY WORDS**

Korrika, emotions, collectivity, symbolism, euskara

## 2. SARRERA

45 urte, 23 edizio, 59.000 kilometro inguru, ehunka mila pertsona izerdi, barre zein malkotan, hiruzpalau kontinentetako hamarnaka hiritan erreplikak, Europako beste mugimendu batzuen erreferente zuzena... Datu dezente eman daitezke Korrikari buruz. Dena den, ez dago ekimen jendetsu horren inguruko idazki edo lan akademiko gehiegirik. Horrela abiatzen dute haien artikulua Galdos eta Amezagak (2023) eta horrela hasi nahi izan du atal hau lan honen egileak.

Korrikak arakatzen duena ez da urria, oso zabala baizik, eta hori nabarmendu beharko litzateke urtez urte. Espazio, herri, sinbologia, pertsona-talde, kultura, indibiduo, identitate, bizimodu, euskalki, aldarrikapen eta antzeko elementu anitz bildu eta batzea lortzen du Korrikak. Hori dela eta, ez da zeregin makala horri buruzko ikerketa-lana egitea. Agian horregatik izan dira Korrikari buruzko lan akademikoak hain urriak, zaila delako horren inguruko lana egiteko foku zehatza jartzea.

Dena den, aurretik antzeman denez eta hurrengo paragrafoetan ageri denez, badaude zenbait pertsona horren inguruko lan fina egin dutenak: “Dimentsio kuantitatibo zein soziala kontuan hartuz gero, gutxi ikertutako gertaera izan dela esan behar dugu (Konteko, 2019). Teresa del Valle oso hasieratik ikusi zuen, ordea, ekitaldi horren garrantzia, eta luze baino lehen ezinbesteko erreferente izan den liburua ondu zuen, Korrikaren laugarren edizioaren inguruan” (Galdos & Amezaga, 2023, or. 58). Funtsezko erreferentzia horiez gain, honako hauek ere aipatzekoak dira: Korrikari buruzko liburu bi, horietako bat bi hizkuntzatan idatzia (Del Valle 1988, 1994; Gurrutxaga, Elorza eta Ubeda 1997); bederatzi artikulua indexatutako aldizkarietan (Arana, Narbaiza eta Mimenza 2015, Galparsoro *et al.* 2017, Ibarretxe 2006, Kotenko 2019, Urla 1995; Galparsoro *et al.* 2017; Zabala *et al.*, 2023; Galdos eta Amezaga, 2023; Obergozo-Terradillos *et al.*, 2024); dozena erdi bat aurkezpen nazioarteko kongresuetan eta dibulgaziozko zenbait artikulua. Euskal komunikabideetan edizio bakoitzean presentzia oso handia izan duela aipatu beharra dago (Arana, Narbaiza eta Mimenza 2015), baita AEKren sare sozialetan ere. Nabarmenezkoa da, era berean, Korrikan zehar lanean dagoen prentsa taldearen esfortzu handia, bai AEK-tik, bai Hamaika Telebistatik, bai *Berria* egunkaritik, bai ETBtik. Erreferentzia-kopurua, berriz, handitu egin da Galdos eta Amezagak (2023) aipatzen zuten harekin alderatuta, hiruzpalau lan gehiago egin baitira urte baten bueltan.

Korrika, ezaguna denez, Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa/kirol-ekimen erraldoia da. Lekuko-eramailea aurretik joanda, batzuetan pankartaren baten presentziarekin bere atzean, eta Euskal Herriko toki bakoitzean korrika

egitera animatzen den jendearen partaidetzarekin, bi helburu nagusiren alde egiten da Euskal Herrian: euskararen aldeko kontzientzia suspertzeko eta AEKren (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) euskaltegietan egiten duten hizkuntza-transmisioaren eguneroko lana indartze aldera finantzaketa lortzeko. AEK 70. Hamarkadan sortutako erakundea da eta euskararen egunerokotasuneko erabileraren eta horren normalizazioaren alde egiten du lan. Hori dela eta, euskararen biziberritzearekin loturiko eremu guztietan dihardu, ezagutzan, erabileran eta sustapenean, alegia. Modu berean, Euskal Herri osoan lan egiten du, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean euskara-eskolen sarearen bitartez, *euskaltegi* izenez ezagutuak direnak. Bide horretan, AEKren xedea Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea da.

Horretarako, euskararen sustapenaren bidean AEK-k Korrika antolatzen du bi urtetik behin. Aurretik azaldu den bezala, Korrika euskal ekimen jendetsuenetarikoa da, Euskal Herrian lurralde horretako jendea masiboki bildu eta mobilizatzea lortzen baitu. Horregatik, euskararen aldeko kontzientzia sustatzeko tresnarik esanguratsuen eta eraginkorrenetarikoa dela ondoriozta daiteke (AEK, 2023).

Ekimen honekin euskaltegietan egiten duten hizkuntza-transmisio lana finantzatzea lortzen dute, baita pertsona asko euskararen bueltan aktibatzea ere. Gainera, mundu euskaldunean existitzen diren artista eta sortzaile dezenteren mezuak idatzi ohi dira Korrika bakoitzean, gero Korrikaren amaieran irakurtzeko. Ekitaldi bakoitzaren amaieran irakurri ohi den euskal kulturaren munduko pertsona ezagun baten azken mezu hori hurrengo Korrikara begira plazaratu ohi den ikaskizun edo premia modura kontsideratzen da. Mezuen ahozko transmisioa korrikalarietarako daramaten Korrikaren lekukotik gertatzen da (Konteko, 2019). Herriaren indarra, parte-hartzaile bakoitzarena, egurrezko objektu horretan ezkututzen da sinbolikoki, espazioan hizkuntza-transmisioaren jarraitutasunaren erakusgarri baita (Konteko, 2019).

Aurretik aipatu denez, Korrikan zehar lekukoa eskuz esku eta kilometroz kilometro eramaten dute korrikalarietarako; lekuko horren barruan, euskaldun ezagun batek Korrika helmugara iristean irakurriko duen mezua gordetzen da, sekretupean momentu horretara arte. Pertsona askok hartzen dute parte ekimenean eta horren inguruan sortzen diren hainbat mugimenduren aldarriak zabaltzen dira ibilbidean zehar, nabarmenena izanik Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako hautuaren aldekoa, mugimendu feministek dituzten zenbait aldarrikapenekin eta etorkinen mezuekin batera, besteak beste.

Korrika bi urterik behin ospatzen da eta bertan parte hartzen duen jende-kopuruak gora egiten du etengabe; antolaketan, berriz, milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan. Kanpainak irauten duen bitartean, hilabete batzuk lehenago aurkeztu denetik azken eguneko jaia egin arte, ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar



antolatu ohi dira (AEK, 2023).

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrikak, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsu eta garrantzitsuenetakoari hasiera emanez. Harrezkeroztik, aurretik aipatu bezala 23 Korrika eta 45 urte igaro dira. Azken honetan, 2024ko martxoaren 14an hasita, 11 egunez eta 10 gauez, Korrikak lortu du berriz ere Euskal Herria zeharkatzea, bere helburu nagusia eta bakarra euskararen alde lasterka egitea izanik, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe (AEK, 2023).

Orobat, Korrika hizkuntza minorizatu/minoritario baten aldeko (Konteko, 2019), hau da, euskararen aldeko ekimena izanik, mugimendu linguistikoek taldean sailka daiteke. Horri gagozkiola, ekimen honek bertan parte hartzen duten pertsonengan sorturiko emozioak behar-beharrezko elementua dira hizkuntzaren iraupenean (Larrinaga, 2018).

Zaila da emozioen definizio zehatza aurkitzea, akademikoek ikuspuntu eta definizio ezberdinak atxikitzen dizkiotelako kontzeptuari. Hala ere, lan honetan emozioak pertsona batek kultura edo komunitate jakin batetik sortutako bizi-eremuei ematen dizkien askotariko interpretazio, adierazpen eta esanahi modura ulertuko dira. Emozioak dira, hortaz, pertsona batek komunitate baten parte sentitzeko duen modua, elkar ezagutzeko eta elkarren arteko komunikazioa bideratzeko erreminta bat. Eurek ematen diote zentzua gizabanako bakoitzak bere egunerokoan egiten duenari, nor bere nortasuna sortzen laguntzen dute, eta baita, zeharka, norbanakoari erabakiak hartzen ere (Galparsoro et al., 2017; Larrinaga, 2018; Del Valle, 1988; Bericat, 2012; Le Breton, 2012). Hausnartutako emozioetatik sentimenduak sortzen dira, eta, sentimenduetatik, mundua ikusteko modua.

Perspektiba horretatik abiatuta sortu da ikerketa honen haria. Korrika oso handia den ekimen jendetsua izanik eta lan akademikoek hain kopuru urria izanik, ikerketa-lan honekin Korrikari buruzko ahalik eta informazio osatuena jaso, landu eta ikertu nahi izan da. Orobat, Korrikak transmititzen dituen bizipenak, sentimenduak, emozioak eta balioak idatziz jaso nahi izan dira. Gainera, ikerlan hau euskal kulturaren ekimen garrantzitsu hori ahalbidetzen duen erakundeari, AEKri, euskararen alde egindako guztiagatik eskerrak emateko modua ere bada.

Halaber, Korrikak dituen indargune eta ahulezien inguruan gogoeta egiteko balio du lan honek, alde batetik, horren hausnarketa egiteko; eta, bestetik, hainbat ikuspuntu jaso eta kontuan izateko. Herritik eta herriarentzat sortutako ekimena izanik, (Galparsoro, et al., 2017) halabeharrezkoa baita ahalik eta pertsona gehienek esanak/ikuspegiak jasotzea. Era berean, euskaraz idatzitako lana izanik, hizkuntza horretan Korrikaren inguruan eginiko ikerlan ez

hain ugarien multzoa aberasten lagunduko du.

Asmo horiek aurrera eramateko, hurrengo ataletan antolatu da lana: ikerketaren lehenengo partean, marko teorikoan, ikerlariak Korrikari eta emozioei buruz egin dituzten ikerketen informazio-jasoketa eta orain arteko literaturaren analisi eta kontrastea egin da. Jarraian, aurretik zehaztutako ikerketa-galderak erantzuteko erabili den metodologia azaltzen da. Metodologiari gagozkiola, Korrikan bete beteko murgilpena egin da (ekimenaren furgonetako kide izanik, Korrika kulturalean parte hartuz eta lasterketaren koordinatzailearekin harreman zuzena izanez, besteak beste). Lana gidatu duten ikerketa galderak hurrengoak dira:

1. Zein elementu eta sinbolo nabarmentzen dira 23. Korrika honetan? Zein emozio gailentzen dira Korrika honetan?
2. Zein izan da Korrikaren bilakaera Teresa del Valleren antropologia lanetik (4.Korrikatik) aurtengora arte (23.Korrika)? Zein desberdintasun antzeman daitezke?

Ondoren, murgilketa horren emaitzak jaso dira, ostean eztabaidari eta interpretazioari lekua uzteko. Atal horretan, murgilketan zehar ateratako emaitzak marko teorikoan aztertutakoarekin alderatu dira. Amaitzeko, ondorioak atera dira, aurrera begirako ideiak eta hobetzekoak hausnartuz eta txertatuz.

### 3. GRADUAREKIKO LOTURA ETA MOTIBAZIO PERTSONALA

Nahiz eta gainerako atalak 3. pertsonan idatzita dauden, sekzio hau 1. pertsonan idatziko dut, nire perspektiba eta bizipenak gertutik azaldu ahal izateko.

Nire amak duela gutxi bere lankideentzat idatzitako mezuarekin hasiko naiz zati hau azaltzen. Bere erakundearen urteko errepassoa egiten ari zirela, Korrikari buruz hitz egiteko eskatu zion kudeatzaileak. Ezustean harrapatu zuen ama eta ezin izan zuen nahi zuena adierazi, beraz, guztientzat mezu bat idaztea erabaki zuen (Castellanos, 2024):

Niretzat Korrikak "la hostia" esan nahi du, aita-amek bizitza osoan transmititu dizkidaten balioak adierazten ditu eta, beraz, 70eko hamarkadan guraso-talde batek Ortuellan ikastola bat eraikitzeke borroka egin zuen, seme-alabek euskaraz ikasi ahal izan zezaten. Urte horietan Herriko bat ireki zuten, ikastola bat egin eta altxatzeko dirua ateratze aldera. Hori guztia haurtzaroan bizi izan nuen, eta bizitza osoan transmititu izan didate; horregatik, Korrikak gauza askorekin lotzen nau: balioak, familia eta gure aita-amek hainbeste saiatu eta borrokatu zutenaren alde egiten jarraitzea.

Mezu labur honen bidez Korrikarekin dudan atxikimenduaren parte bat erakutsi nahi dut. Txikitatik familian jaso dudan elementuetarako bat izan da ekimen hau. Txikia nintzenetik Korrika nire auzotik igaro izan denean bertan egon gara horren zain eta amaierara ere hurbildu gara maiz. Poza, atxikimendua, komunitatea, familia, herria, esfortzua, zirrara, nerbioak, alaitasuna, arbasoak, identitatea, indarra eta balioak ordezkatzeko dituen ekimena da guretzat. Gainera, familiako bakoitzak modu propioan barneratzen du Korrika. Nire amarentzat bere familia, euskara, sustraiak, ikastola eta Meatzaldekoa izatearen harrotasuna da Korrika; nire aitarentzat, aldiz, bere herriko balioekin birkonektatzeko aukera da; eta nire nebarentzat, txikitatik gurasoekin parte hartu izan duen ekimena da Korrika eta bere ingurutik igarotzean lasterka egitea baino ardua handiagoa suposatzen duena; Uribarrin (Bilbon) egin izan diren ekintzen parte-hartzea amarekin, lekukoa eramatea, besteak beste horrelako jarduerekin bizi izan du Korrika nire nebak. Gainera, berarentzat euskararekiko eta euskal kulturarekiko duen maitasuna birgogoratzeko ekintza da.

Niretzat familia da, komunitatea. Maite duen lurraldearen, kulturaren eta balioen alde egiten duen komunitatearen bilketa. Horretan benetan sinisten duena eta bere bizitzaren esparruren baten euskal kulturaren zatitxo bat, behintzat, bere baitan biltzen duena. Gainera, hain garrantzitsua iruditzen zaidan eta hainbeste maite dudan euskararen alde egiteko aukeratariko bat da.

Izan ere, gaur egun hain presente ez dauden mugimendu kolektibo masibo horietakoa da ekimen hau. Tradizioan, kulturaren, identitatean eta, beraz, emozioetan oinarrituta dagoena. Eta, nahiz eta mundu globalizatu eta digital honetan geroz eta taldeko ekintza gutxiago existitzen diren, Korrikak euskal herritarrak mugiarazten ditu, bai kolektibo baten parte izatera

“behartzeko”, bai hizkuntza eta tradizio baten alde egiteko. Hori dela eta, ekintza honen garrantziak gora egiten du, eguneroko modernitateak bultzatzen gaituen bizitza azkar eta indibidualetik ateratzen baikaitu.

Horregatik guztiagatik furgonetako kide izateko izena eman nuen. Furgonetatik Korrikaren beste begirada bat izateko eta bere barruan duen antolaketa eta jendearen berri izateko. Argi neukan, esperientzia positiboki sentitu eta biziko nuen, eta baita %100 eman ere.

Abiapuntu horretatik hasita eta nire tutoreekin koordinatuta, esperientzia honi ikerketaren forma ematea lortu genuen. Nahiz eta Korrikak hainbat esparru hartzen dituen eta gehienak nire interesekoak izan, azkenean lan honek foku egokia hartu duela esan dezaket, nire ikuspuntutik, behintzat.

Lan honek graduaren nondik norakoarekin lotura zuzena izan du: “Identitateak, kultura eta migrazioak” moduluko etnografiaren ikerketaren atalarekin gehienbat. Modulu horretan landu izan ditugu, besteak beste, identitatearen esanahia, euskal identitatea, euskal diaspora, kulturaren esanahia eta antropologiaren zenbait definizio. Antropologiaren baitan, etnografiaren esanahia eta garrantzia ikasi izan dugu Labayru fundazioaren eskutik eta berau aplikatzen ere saiatu gara. Etnografia antropologiaren adarretatik esanguratsuenetarikoa da niretzat. Bada, pertsonen ezagupen sakonagoan datza, sentimenduen ulermenean eta edozein kultura zein gizakiren konplexutasuna eta zaugarritasuna hartzen ditu kontuan.

Gainera, ikasgai horretan “Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa: zaugarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna” (Urdangarin, 2020), Joxe Azurmendiren omenez egindako testua ere landu genuen eta horrek influentzia handia izan zuen nigan.

Azurmendiren ustez interdependenteak gara, komunitatearekiko elkarrekintza estuan gara nor, komunitateak berak egiten gaitu. Halaber, zaugarriak gara, mugatuak. Ez gara izaki perfektu eta sinpleak, animaliak gara, eta, ezaugarri horretatik abiatuta, bakoitzak bere ahulgune eta indarguneak barneratu eta errespetatu behar ditu. Baita horiekin bizikide izan ere. Elkarrekin bizi behar gara eta zaindu egin behar ditugu gure ezaugarriak. Ezaugarri bi horien kontzientzia izanik orduan biziko gara erosoago eta zoriontsu.

Aurreko guztia dela eta, Gradu Bukaerako Lan (GBL) honek modulu horretatik ateratako ikaskizunekin eta graduaren zehar landutako filosofia, antropologia eta ekintzailetasun teoriekin zerikusia du eta horietako batzuekin josi da, Humanitate Digital Globalak izeneko gradu honi amaiera emanez.

## 4. MARKO TEORIKOA

### 4.1. NORBANAKOAREN ONGIZATEA ETA MUGIMENDU KOLEKTIBOA

Gaur egun bizi garen garai postmoderno eta hipermodernoan gora egin du, gelditu gabe gainera, edozeren aurrerapen azkarraren joerak, eta baita teknologiaren, komunikabideen eta sare sozialen erabileraren hazkundeak ere. Orobat, geroz eta eginkizun gehiago ditu norbanakoak eta horrek egunerokoaren abiadura bizkortu du hein handi baten. Kolektiboan kalitatezko uneak izatea geroz eta zailago bilakatzen ari da. Horregatik, gizabanakoa bere behar naturaletatik aldentzen ari da eta geroz eta isolatuago bizirauten du, modu indibidualean. Horrenbestez, gizakiak mentalki mantendu behar duen oreka dezente baldintzatu eta kaltetzen dute gaur egun barneratu diren zenbait bizitzeko joera edo ezaugarriak. Horregatik, norbanakoak bizimoduaren, bizitzeko zentzuaren eta ardatzaren aldaketa behar duela ondoriozta daiteke. Zaurgarritasuna eta interdependentzia erabili beharko liriateke gizakiaren ezaugarri nagusi moduan. Izan ere, gizakia naturalki osotasunean dena adierazten duten ezaugarriak baitira horiek, bizitzeko zentzua aurkitzen laguntzen dutenak. Gizabereak, bizitzeko zentzua bilatzeko ahaleginean, interdependentziaren beharra du, ez baita gai ez bere bizitza osoa berak bakarrik sortzeko, ezta berau moldatzeko, baldin eta ez badu familia, lagun, gizarte edo kulturarik ingurunean. Imajina haur bat bakarrik hazten eta hezitzen. Antzekoa gertatzen da zaurgarritasunarekin. Gizakia ez da izaki bizidun perfektua, zaurgarria da aspekturen batean. Arazoa zera da, hori gizartean maiz ez dela onartzen eta bakoitzaren ahuleziak ezkututzen direla. Gainera, bide horren ondoan, paraleloki, zientzia eta teknologiaren hazkundera ere gertatzen ari da, eta horrek zentzu eta gizatasun naturalarekiko krisira bideratzen du gizakia (Ruiz, 2023).

Gizakiak indibidualismoa lankidetzaren aurretik jartzen duen bizimoduaren gainean funtzionatzen du gaur egun. Hori dela eta, bere eginkizun nagusia gauza perfektuak sortzean datza (modako jantzietan modelorik berriena, teknologiarik aurreratuenak edo azken belaunaldiko mugikorrak, besteak beste), norbanakoak duenarekin aseta ez sentitzean edota geroz eta gehiago izatearen nahiak sortzen duen dinamikan bizitzean, kasu. Horregatik, gizakiak ideologia ugari barneratzen ditu bere nortasuna osatzeko, baita gizarte osoa ordezkatzeko duen iruditegi finkoa ere. Haatik, gizakiak, naturaz, ez ditu ezaugarri horiek betetzen. Mikel Urdangarinek, Joxe Azurmendiren esanak azpimarratuz, argi azaltzen du zein den gizakiaren oinarritzko joera:

Esan bezala, Azurmendiren giza aberea mugatua eta zaurgarria da. Oinarri horretatik abiatuta, honako ezaugarria gehitu dio: «Aberetxo erkina eta lagunkoia da gizon-emakumea. Ahula delakoxe lagunzalea eta lagunbeharra» (Azurmendi 2016a: 36). Hau da, ahulak eta erkinak garen heinean (delakoxe), besteak behar ditugu, besteekiko dependenteak gara. Hots, interdependenteak gara, komunitatearekiko elkarrekintza estuan gara nor. Are gehiago,

komunitateak berak egiten gaitu: «komunitatean jaiotzen gara, komunitatean heltzen gara pertsonak izatera; komunitateak egiten gaitu, guk egiten dugu komunitatea» (*ibid.*: 131-32) (Urdangarin 2019, 184-85).

Horren inguruan Brené Brown soziologoak zaurgarritasunaren ikerketarekin,<sup>1</sup> Zygmund Baumanek gizarte likido eta solidoaren kontzeptuak<sup>2</sup> sortzearekin, Skolimowksi<sup>3</sup> ekofilosofiaren eraketarekin, Emilio Duró beldurra ezabatzearen prozesuaren inguruko hausnarketarekin<sup>4</sup>, eta beste hainbat pentsalari edo ikerlarik hainbat teoriarekin, proposamenak mahaigaineratu dituzte gizarteak gaur egun duen joerari alternatibak eskaintze aldera (Ruiz, 2023).

Aurrerapausoak dira teoria horiek, alde batetik indibiduen oreka mantentzen laguntzeko, eta bestetik, halabeharrezkoa den zaurgarritasunarekin bizitzeko. Gizakiaren zaurgarritasunaren onarpen-prozesuan gizarte interdependentearen dibertsitatea barneratzeko, azken batean.

Badaude aitzinatze horien ildoan kokaturiko beste hainbat teoria edo mugimendu ere.

Teoria/mugimendu feministak, mugimendu sozialek, hizkuntza mugimenduek, zaintzaren aldarrikapenek eta antzekoek zaurgarritasunaren eta interdependentziaren aldarrikapenei mesede egiten diete, kolektibotasunarako bideak zabaltzen dituztelako gehienbat. Kolektiboan sortutako eta aldarrikatutako esanak, bizimoduak, ekintzak dira hauek, eta ni-tasuna alde batera uzteko joerara eramaten dute norbanakoa, gutasunera atxikiz (Galparsoro, et al., 2017). Horien artean kokatu beharrekoa eta nabarmentzekoa da, hain zuzen, Korrika.

Gaur egun Korrikak duen influentziak eta transmititzen dituen emozio eta balioek iraganeko antza dutela egiazta daiteke (Larrinaga, 2018), baina, hala ere, gaur egungo paradigmak zenbait huts erakusten ditu. Izan ere, norbanakoen ongizatea geroz eta lortzen zailagoa bilakatzen ari da eta, horren aurrean, arestian aipatutako pentsalariak komunitateko tradizio eta kulturetara bueltatu behar dugula adierazten dute. Ildo hori jarraituz, norberagandik haratago begiratzeko gaitasuna berreskuratu daiteke, solidaritatea eta talde sentimendua indartuz guztion ongizatea bermatzeari begira (Ruiz, 2023).

Korrikak tradiziara eramaten gaitu, taldean egotera, euskal gizartearen alde egitera, batak bestea korrikan jarraitzeko animatzera eta, ondorioz, bertan parte hartuta, bakoitzaren burua hobeto sentiaraztera. Hori da Korrika den mugimendu linguistikoa parte hartzean bakoitzak duen indar emozional handiaren eragina (Del Valle, 1988; Larrinaga, 2018).

---

<sup>1</sup> "Zaurgarritasuna da gure ausardia-neurririk onena." (Brown, 2010: 14:42-15:20)

<sup>2</sup> "Kultura likido modernoak ez du jada sentitzen ikaskuntza- eta metatze-kultura denik, historialari eta etnografoen txostenetan erregistratutako kulturak bezala. Ordainetan, atxikimendu ezaren, etenaren eta ahanzturaren kultura gisa agertzen zaigu." (Bauman, 2009)

<sup>3</sup> "Ekofilosofiaren helburua gure garairako metafisika berri bat eskaintzea da." (Skolimowksi, 2017: 55)

<sup>4</sup> "Desleialtasunaren arrazoi nagusia beldurra da. [...] Gaur egungo munduan beldurrak ez du zentzu handirik, ditugun arriskuak ez baitira fisikoak." (Duró, 2016:1:05-1:36)

Dena den, ikertzeko dago ea, behin igarotakoan, egunerokotasunerako transmititzen duen indarra berbera ote den. Hau da, Korrika une konkretu batean bakoitzaren bizitokitik pasatzen den ekimena da. Nahiz eta batzuentzat 11 egun iraun edo 3 egun iraun (bakoitzak parte hartzen duen egun-kopuruaren arabera), asko jota hilabete bateko aje emozionala uzten du eta bakoitzarentzat egunerokoan duen eragina desberdina izan daiteke. Horren harira, bada ikerketarik frogatu duenik Korrikan parte hartzeak eragin psikologiko positiboak dituela gizarte-ongizatean eta ahalduntze kolektiboan (Zabala et al., 2023).

Horrez gain, emozio asko sortzen dituen ekimena da Korrika eta, hori dela eta, ongizatean duen eragin positiboa azpimarratzea garrantzitsua da. Horregatik, hurrengo atalean gizarte mugimenduetan emozioek duten zeresana izango da hizpide, gaur egun horiei eskaintzen zaien denbora eta ikerketa eskasarekin konparatuz.

## 4.2. EMOZIOAK ETA MUGIMENDU SOZIALEN TEORIAK

Afektuaren eta emozioen azterketak errealitate soziala birpentsatzeko aukera eman du, *Affective Turn* edo *Giro Afectivo* izena harturik (Alí & Enciso, 2013). Horrek hainbat aldaketa suposatu ditu errealitatean existitzen diren zenbait ikuspuntutan. Neurozientziaren arloan, psikologian eta gizarte-zientzietan egindako ikerketei esker, honako hauek identifika daitezke:

- Emozioa irrazionalarekin identifikatzen zuen ikusmoldea haustea ekarri du.
- Lotura estua dago kognizioaren eta emozioaren artean.
- Arrazoimenaren eta emozioaren artean ere harreman estua dago.
- Neurozientziak adierazten du emozioez eta erabakiak hartzeaz batera arduratzen diren garun-sistemek kognizioaren eta gizarte-portaeraren kudeaketan parte hartzen dutela.
- Emozioen balioeste hau diziplina anitzeko garapena eragiten ari da zientzia sozialen epistemologian (Larrinaga, 2018)

Dena den, gaur egungo teoria ez dago *Giro Afectivo*-an zentratuta, beste teoria bat nagusitzen da gaur egun. Teoria horrek Teoria Kognitibista du izena eta horretan emozioek substratu kognitiboa dutela aipatzen da, eta ez sentsitiboa soilik.

Emozioen ikuspegi fisiologiko hutsaren kontra, teoria kognitibistek aldarrikatzen dute emozioen egitura sinesmenek, iritziek edo kognizioek eta desioek osatzen dutela. Horregatik da hain soziala (Gros, 2006) eta historikoa, emozioak kultura-eraikuntzak baitira, eta indarrean dagoen erregimen emozionalaren parametroak definitzen dituen kultura-testuinguru jakin baten esparru zehatzean baino ez dute esanahia hartzen, zein emozio-mota sentitu behar duen eta senti dezakeen zehaztuz (Mees, 2015)<sup>5</sup> (Larrinaga, 2018, or. 322).

---

<sup>5</sup> Lan honetan Larrinaga 2018tik jaso diren aipuak egileak itzuli ditu gaztelaniatik euskarara.

Baino emozioek ez dute zertan kognitiboak soilik izan, horretan dago teoria kognitibistaren muga eta ahulezia. Emozioek arrazionalizazioarekin harremana izan dezakete, baina ez da hori daukaten erlazio bakarra. Horren adibide izan daiteke Le Bretonen ikuspegia. Berak baieztatzen duenez, emozioak eta sentimenduak ez dira pertsonen artean transferi daitezkeen substantziak, harremanak baizik. Hori dela eta, eraikuntza sozial eta kultural zehatzen gordeleku dira (Le Breton, 2012). Ondorioz, emozioak kognizioari dagozkion jarduera bati edota pertsonen egoera sozialei buruz egiten dituzten interpretazioei dagozkie. Egoera horiek beti interpretatzen dira ezagutza- eta balio-sistema baten bidez, indarrean dagoen kultura-kode baten bidez. Horrela, pertsonen pertzibitzen eta adierazten dituzten emozioak dagokien gizarte-taldearen errepertorio kulturalaren parte dira: “Emozioak gizarte-komunitate batean afiliatzeko moduak dira, elkar ezagutzeko eta komunikatzeko modu bat” (Larrinaga, 2018, or. 322).

Gauzak horrela, mugimendu sozialen inguruko teoriak berritzeko beharra hauteman daiteke, mugimendu sozialei beste konnotazio bat erantsiz, emozioek horiei ematen dieten indarra balioan jarrita. Theodore Kemper horren adierazle da. Larrinagak bere esanak jasotzen ditu:

“Theodore Kemper-ek gogoratzen duenez, emozioz betetako testuinguru sozialak dira mugimenduak. Mugimenduaren inguruko emozioak dira, dinamikan eta egituraketan parte hartzen dutenak, eta zaila litzateke azaltzea nola sortzen diren mugimenduak, nola pilotzen dituzten laguntza-maila desberdinak, nola eusten dioten euskarri horri ekintza kolektiboko etapa luzeetan, eta baliabideak ematen dituzten kide aktiboak eta publiko onak biltzeko eta mantentzeko (Kemper, 2001). Pertsonen mundua interpretatzeko erabiltzen dituzten prozesu kognitiboetan emozioek duten rola zentzua ematen dio prozesu horiei, eta, horregatik, ezinbestekoa da hura aztertzea protesta eta gizarte-mugimenduak aztertzeko (Poma eta Gravante, 2013).” (Larrinaga, 2018, or. 322)

Horrenbestez, orain arte ikerketa sozialetan nagusi izan diren paradigmak birplanteatzen ari dira, arrazionalizazio instrumentalari alderdi emozionala atxikitzen ari zaiolako. Aurretik aipatu denez, ezin dira ekimen sozial bat edo gizarte bat aktibatzen duten osagaiak arrazoiketari soilik oinarritzen den begiradatik ikertu, ezta soilik ekintza hutsetik eratorritako esanahietatik ere. Arrazoimenak gizartea ulertzen eta gizartean bizitzen laguntzen du. Beharrezkoa da bizikidetasuna sustatu eta ulertzeko. Ekintzak ere behar dira. Norbaitekin konfiantzazko lotura bat sortu behar denean, batzuetan ekintza bat behar izaten da pertsona bat fidagarria dela eta inguru baten parte izatea merezi duela egiaztatzeko. Baina horretan faktore emozionala falta da. Pragmatismoak, feminismoak, kulturek, mugimenduek eta tradizioek ekintza kolektiboaren azterketa birplanteatzea sustatu dute. Horretan, batez ere emozioak dira nabarmentzen direnak. Bada, emozioak balioesten dituzten ikerketei eta



kultura jakinei zein tokietako testuinguruei arreta handiagoa jarri beharko litzazieke aldaketa horretan (Larrinaga, 2018). Aipatzekoa da, horren harira, kulturgintzak emozioak balioesterakoan egin duen aurrerapena: “Kulturgintzak tresna erabilgarriak eskaini ditu ekintza kolektiboan emozioak ulertzeko, batez ere emozioak ezagutzaren eta moraltasunaren parte direla proposatzean” (Larrinaga, 2018, or. 323).

Beste alde batetik, mugimendu sozialen teoria soziologiko modernoek ez dute soilik kulturean arreta hartzen, estruktura soziala ere kontutan hartzen dute (Goodwin eta Jasper, 2006). Modu horretan, gizarte-baldintzak eta testuinguruak aztertzea komenigarria da mugimenduak sortu edo metatzen dituen emozioak ulertzeko. Emozioen kontzepzio eta ikerketa estrukturalak gizarte-harremanen eta emozioen arteko loturak aztertzen dituzte. Zehatzago esanda, kontuan izan behar dira gizarte-egonkortasuna aldatzea edo mantentzea eragin dezaketen emozio-mota jakin batzuen sorrera azaltzen duten egiturazko baldintza sozialak. Ikuspegi horretatik, komeni da aztertzea, adibidez, zer gizarte-baldintzek eragiten dituzten mugimenduek sortu edo erakarrirako emozioak, edo mugimendu horiek denbora luzez bilbatuta izaten laguntzen dutenak (Larrinaga, 2018). Euskal Herriaren kasuan argi dago ez dela egoera sozial berdina ageri Zuberoan eta Bizkaian, adibidez. Leku horietako egoera eta estruktura sozialean jarri beharko litzateke fokua, hortaz.

Emozioek eta gizarte-mugimenduen teoriak, tradiziozkoek zein gaur egun indarrean jartzen saiatzen ari diren teorizazio berriek, historikoki izan dituzten joerak dira, beraz, atal honetan landu direnak. Hori dela eta, zenbait ikerketak adierazten duten modura, gizarte-mugimenduak ezin dira soilik arrazionalizazioarekin neurtu, ezta mugimendua bere baitan ulertu beste ezein daturik gabe. Emozioen ikuspegia ezinbestekoa da horien ulermen osatuago bat izateko, baita mugimendu batek bere inguruan duen estruktura soziala ulertzeko ere.

Aurrekoarekin jarraituz eta laburtuz, hori guztia euskal kulturara ekartzeko ibilbide jakin bat deskribatzen du Larrinagak (2018): diktadura-garaian euskarak jasan zuen zapalkuntza-egoeratik hasita, Espainiako trantsizio politikoan euskal talde nazionalistak bereizi/polarizatu ziren momentuarekin jarraituz, Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-en diskurtsoak sortutako hizkuntzarekiko portaera-aldaketa azpimarratuz, eta, azkenik, euskararen instituzionalizazio eta profesionalizazio-prozesuak kontuan hartuz. Euskara hizkuntza minoritarioa izan da beti eta horrek, hizkuntza-zapalkuntzaren kontzientziarekin batera, taldearen haserrea eta elkartasuna eragin izan ditu erreakzio modura, ondorioz hizkuntza-komunitatearen alde jarduteko motibazioa sortuz. Orogen buru, egileak, konklusio legez

hurrengo hau aipatzen du:

Gizarte-mugimendu guztiek bezala, hizkuntza-mugimendua testuinguru bat da, bereizena, kognitiboa eta emozionala. [...] “Hizkuntza-arazoaren” ondoz ondoko definizioekin eta haren arrazoen esleipenarekin lotuta, azken batean, esanahien ekoizpenarekin eta interpretazio-esparru desberdinak eraikitzeak dakartzan zentzumenen esleipenarekin lotuta, testuinguru emozional jakin batzuk agertzen dira, eta testuinguru horiek osatzen dute hizkuntza-mugimenduak egindako diskurtsoen eta ondorengo ekintza kolektiboko formen motibazio-substratua. [...]

Are gehiago, osagai afektibo eta emozionalaren aktibazioak iraupen luzeko mugimendu baten jasangarritasuna ahalbidetzen du, hots, hizkuntza-mugimenduarena, [...]. Osagai horrek herri-atxikimendua eta leialtasun-sentimendua ematen dizkio, mugimenduaren beraren mugak gainditzen dituena eta indar moralaren iturri bihurtzen dena, eta, beraz, ekintza kolektiboaren eragingarritasunaren iturri. (Larrinaga, 2018, or. 343)

Laburtuta, Korrika bezalako mugimenduek pertsoneri eta kolektiboeri ematen dieten energia indartsuari balio handia aitortzen dio egileak, bai hizkuntzari berari eusteko, bai norbanakoaren ongizaterako. Alabaina, kolektiboan eta gizartean gehiago bizitzetik, indibidualtasun handiagoa izatera pasatu gara.

Orobat, ildo berdinetik jarraituz baina perspektiba pixka bat aldatuz, Del Vallek (1988, orr. 197-245) energia fisikoaren eta emozioen inguruko hausnarketa egiten du bere liburuan. Ikerlari horren aburuz, Korrika energia fisiko eta sinbolikoz betetako ekintza da, eta, horregatik, interes handia pizten du euskaldunongan. Hori dela eta, haren osagaiak aztertzea halabeharrezkoa da bere ustez, haren erakargarritasuna ulertzeko eta zenbaitetan sortzen duen oposizioaz eta arbuioaz kontziente izateko (Del Valle, 1988, or. 197). Horrela, autoreak bi zatitan banatzen du Euskal Herria (Iparraldea eta Hegoaldea), Korrikaren pertsonifikazio-maila desberdinak erakusteko. Modu horretan, erakusten du nola Korrikak erakargarritasun desberdina duen leku batetik bestera eta, beraz, leku bakoitzean azaleratzen diren emozio eta sinbologiak gainerako tokietakoak ez bezalakoak izan daitezkeen.

Dena den, egileak garrantzi handia ematen dio Korrikak bere ibilbide osoan zehar duen bateratze-ahalmenari. Haren esanetan, ikuspuntu, hautu politiko, sinesmen, borroka, egoera, sexu, etab. desberdinak dituzten pertsonak batzen ditu ekimenak. Haien kezkek eta esanak azaleratzeko oso baliagarria izaten da, izan kartelen bitartez, izan leloen oihuen bitartez edota sormenak ahalbidetzen duen edozein sinboloren bitartez, horiek guztiak ageri ohi dira Korrikan. Horiek Korrikaz Korrika aldatzen doaz eta esanguratsua izan daiteke horren guztiaren jasoketa eta ikerketa egitea.

Galdos eta Amezagak (2023) haien ekarpena ere egiten diote Korrikari, batez ere jite kuantitatiboko ikerketa eginez eta, hainbat datu interesgarri bilduta, analisi mamitsua eskainiz. Haien lanean hainbat gai lantzen dituzte, nabarmenenak izanik lekuko-eramaileen entitateen izaera, jarduera eta arloen identifikazioa. Bertatik ateratako informazio-multzo desberdinen artean, bereziki nabarmentzen dira lekuko-eramaileek gizartearen irudi legez ordezkatzan dituzten pertsona-multzoak eta haien jarduerak, baita Euskal Herriko zazpi herrialdeek datu espezifiko horien baitan erakutsitako irudia ere (kontuan izanik herrialde bakoitzak bere testuinguru propioa daukala, besteengatik desberdina).

Hori Larrinagak (2018) aipatu duen estruktura soziala kontuan hartzeko beharrezkin dator bat, nahiz eta Korrikak hizkuntza berdinen alde eta tradizio antzekoaren alde egiten duen, eremu bakoitzaren berezitasun sozialak kontuan izan behar direlako. Izan ere, ikerketa horren emaitzek erakusten dutenaren arabera, “ez dirudi Korrikaren gizarteko oinarria herrialde batetik bestera gehiegi aldatzen denik, nahiz eta herrialdeen artean alde handiak dauden ikuspegi demografikotik, linguistikotik, politikotik, kulturaletik zein urbanotik begiratuta” (Galdos & Amezaga, 2023, or. 72).

#### **4.2.1. EMOZIOEN GARRANTZIA MUGIMENDU SOZIALETAN, ETA BEREZIKI, HIZKUNTZA MINORIZATUEN ALDEKO EKIMENETAN**

Orain arte emozioen inguruan indarrean egon diren teoria sozialak ikertuta, atal honetan emozioei eta hizkuntza minorizatuen aldeko mugimenduei eman zaien begirada landuko da. Perspektiba-aldaketa, gainera, agerikoa izango da. Larrinagak (2018), *Los movimientos sociales como contextos emocionales: el impulso emocional en el movimiento lingüístico vasco* lanean hizkuntza-mugimenduek emozioekin duten harremana azaltzen du eta baita erlazio optimoagoak nolakoa izan beharko lukeen hausnartu ere. Bere ikerketan, Larrinagak euskal hizkuntza-mugimenduak diktadura frankistatik 2018ra arte izan dituen aldaketak azaltzen ditu, mugimendu horrek izan dituen indarguneak eta ahuleziak deskribatuz. Hala, prozesu horretan emozioek izan duten garrantzia azpimarratu du egileak, emozio horiek gizarte-bizitzan duten inportantzia nabarmentzeaz batera.

Modu horretan, emozioak bai akademian, bai gizartean ahaztuta egon diren elementua izan direla adierazten du Larrinagak, estigmatizatuak egon izan balira legez. Gaur egun dagoen testuinguruan arrazionalizazioa erabiltzen da gizakion ekintzak eta ikuspuntuak azaltzeko eta ez zaie emozioei lekurik eskaintzen. Ez hori bakarrik, gizarte-mugimendu batzuek duten substratu emozionalari konnotazio negatiboa atxiki zaio eta horrek mugimendu horiek gutxiesteko balio izan du:

Testuinguru arrazionalista horretan, gizarte-mugimendu jakin batzuei, hala nola emakumeen mugimenduei edo dimentsio etniko bat dutenei (hizkuntza-mugimenduei, besteak beste) ginkarga emozionala egoztea izan da gizarte-diskurtsuetan maiz erabili izan den argudioetako bat, mugimendu horiek ekintza kolektiboa deskalifikatzeko, deslegitimazio politikorako edo, azken batean, gizarte-arloko jokabidearen konfitetara erretiratzeko. (Larrinaga, 2018, or. 320)

Craig Calhoun Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) soziologoaren esanak ere biltzen ditu Larrinagak (2018, or. 320):

(...) zatiketa emozional/arrazional handia ez da deskribatzeko erregimen neutro hutsa, kultura-oihartzun handiko polaritate klasifikatzaileen matrize batean txertatzen da: gorputzaren eta espirituaren dikotomiak, pasioa eta arrazoia, banakakoa eta kolektiboa, partikularra eta orokorra, pribatua eta publikoa, maskulinoa eta femeninoa, daude inplikaturak.

Horrela, emozio eta sentimenduen mundua eta pentsamendua, kontzientzia eta, beraz, arrazoiaren aldea banatu egiten dira. Pertsona batek barnean dituen bi ezaugarriren banaketa/polarizazioa, kasu. Horrek, pertsona batek bizitzan hartzen dituen erabakietan eta duen bizitzeko moduan ere dezente eragiten du. Marko teorikoaren aurreko atalean aipatu denez, gizakia indibidualtasunera jotzen ari da abiadura azkarrean. Arrazionalizazioaren eta sentimenduen polarizazioarekin zerikusia duen argibidea da hori. Izan ere, gizakia gainerako gizakiengandik independentea den espezie bihurtu guran dabil, sentimenduak ezkutatzen dituen espezie, gizartean ustez zentzua duena egiten duena. Hau da, gizarteak onartzen duena eta arrazoinamenduan zentzua duena. Aitzitik, kosta egiten zaio bere burua eramaten uztea, bere senak gidatzea eta aske izatea harremanak sortzeko eta inguruko mundua ezagutzeko orduan. Aske gizarteak eta gehiegizko arrazoimenak sortzen dituzten parametrotatik eta aske beste pertsonekin sentimenduetan oinarritutako harremanak sortzeko ere.

Ezin ahaztu, gainera, gaur egun filosofo moralek duten etikaren oinarriaren inguruko eztabaida, duda baitute ea etika arrazoiaren edo emozioaren oinarritzen den. Psikologoek, aldiz, 'Ni'-a identifikatzen dute bereizitako izaki gisa, garapena bakoitzaren independentzian oinarrituta dagoela zehazturik (Gilligan, 2013, or. 42). Carol Gilliganek (AEBetako Humanitate eta Psikologia aplikatuko katedraduna eta zaintzaren etikaren bultzatzaileetakoa) parte hartu zuen solasaldi batean, berriz, arrazoia eta emozioa lotzen zituen emakume-talde bat ezagutu zuen. Horiek 'Ni'-a eta harremanak ere batzen zituzten, emozioak eta arrazoia lotzen zituzten moduan. "Haien narratiban, jendearen bizitzak konektaturak zeuden eta elkarren mendekoak

ziren. Ikuspegi horretatik, mendekotasunaren kontrakoa isolamendua zen<sup>6</sup> (Gilligan, 2013, or. 42).

Ildo beretik, gaur egun garapenari buruzko aurkikuntza enpirikoak neurobiologiaren eta antropologia ebolutiboaren arloko aurkikuntza berriekin elkartzen direla aipatu beharra dago. Hala, Gilliganek honako hau zehazten du (2013, or. 48): “Gure nerbio-sistemek emozioak eta pentsamendua lotzen dituzte, eta elkar ulertzeko ahalmena — enpatia, telepatia eta ulermena — gure eboluzio-historiaren parte da, eta funtsezkoa da espeziearen biziraupenerako.” Agerian uzten du, beraz, emozioek gizakiengan duten eragin handia eta norbanakoaren eboluziorako harremanek eta interdependentziak daukaten garrantzia.

Gilliganek esandakoa gizarte mugimenduen ezaugarriekin konektatzea da hurrengo pausoa. Mugimendu baten ekintza kolektiboaren erabakietan eta orientazioan emozioen eta osagai afektiboen esku-hartzea ez dela mugimendu horren arrazionalizazio eta instituzionalizazioaren aurkakoa zehazten du Larrinagak (2018), berriz ere horien arteko polarizazioa eta desberdinketa apurtu nahian. Horrek, gizarteak askotan egunerokoan egiten duen banaketaren antza du: arrazoiarekin justifikatu daitekeenak normalean sentimenduek baino pisu handiagoa hartzen du. Horrekin zerikusia duen ikerketa burutu du Ignacio Morgado Bernal psikobiologoak (2011) eta bere ikusmira adierazten du atal baten. “Arrazoiari nagusitasuna ematen diogu, uste baitugu sentimenduen gainean inposatzea sen onaren, heldutasunaren eta oreka pertsonalaren sintoma dela”; eta jarraian, arrazoimenari buruz idazten honelako hau gaineratzen du: “Desiragarriak direnean sentimenduei aurre egiteko erabiltzen dugu, baina beti ez gara konturatzen desio falta horrek ere sentimendu asko duela, nahiz eta argudio arrazionalekin justifika dezakegun”<sup>7</sup> (Morgado Bernal, 2011). Horrekin, indibiduoak bere buruari egiten dion “tranpaz” hitz egin daiteke. Morgaldok adierazten duenez, norbanakoak arrazoi emozionalengatik benetan egiten ari dena arrazionalki justifikatzen du, bere burua engainatuz eta emozioei duten garrantzia kenduz. Horrela, maiz, arrazionalizazioarekin eta emozio edo sentimenduen kudeaketarekin akats dezente egiten dira.

Hortaz, euskal hizkuntza-mugimenduak izan duen bilakaera aztergai hartuta, eta emozioek eta arrazionalizazioak hizkuntza-mugimenduetan izan duten eraginaren perspektiba desberdinak landuz, Ane Larrinagak erakutsi nahi du “mugimendu baten ekintza kolektiboaren erabakietan eta orientazioan emozioen eta osagai afektiboen esku-hartzea ez

---

<sup>6</sup> Gilliganek erdaraz idatzi du testua. Hori dela eta, lan honetan bere aipu guztiak euskarara itzuli ditu egileak.

<sup>7</sup> Morgadoren testua erdaraz idatzi da. Horregatik, lan honetan bere aipu guztiak euskarara itzuli ditu egileak.

dela mugimendu horren arrazionalizazio eta instituzionalizazioaren aurkakoa, ez eta garapen kognitiboaren, plangintza sistematikoaren eta erronka estrategikoen lorpenaren aurkakoa ere.” Horregatik, euskal hizkuntza mugimenduek egin dituzten diskurtso-prozesuak eta ekintza kolektiboetan izan dituzten ondorioak aztertu ditu, beti ere euskal gizartean dauden egoera sozial eta politiko aldakorrak kontuan izanik, eta hurrengo hau erakusten saiatu da (Larrinaga, 2018, or. 319):

- (1) emozioak ekintza kolektiboaren motibazio-faktore bat dira,
- (2) eragin handia dute mobilizatutako taldeen barne-kohesioaren eraikuntzan, baina, era berean, zatiketaren eta desagregazioaren faktore bizkortzaileak izan daitezke desadostasun-uneetan edo barne-gatazketan,
- (3) hautespen/aukeraketa estrategikoen oinarria baitira, eta
- (4) testuinguru instituzionalizatuenetan ere energia ematen diote mugimenduaren ekintza kolektiboari, baita gizarte-atxikimendua ere, mugimenduaren iraunkortasunari lagunduz luzaroan.

Larrinagak erakutsi nahi izan ditu informazio-bilketa eta emaitzak egokiak izan direla Euskal Herriko hizkuntza-mugimenduan dauden hutsegiteak eta beharrak mahai gainean izateko eta horren kontzientzia pizteko. Ikuspegi horrek bide ematen du Korrika bezalako hizkuntza mugimenduan emozioek duten papera ikertzeko. Hori da hurrengo atalean landuko dena: emozioen definizio ahalik eta osoena eskaintzen saiatuko da egilea, beti ere Korrikaren testuinguruan.

### **4.3. EMOZIOEN DEFINIZIOA KORRIKAREN BAITAN**

Aurreko atalarekin lotura estua duen parte izango da hurrengoa. Alabaina, pertsonen egunerokotasunean edo bizitzeko moduan emozioak eta arrazionalizazioa nola barneratzen diren ikertu beharrean, emozioen inguruko teoriak landuko dira atal honetan, horiek Korrikan nola azaleratzen diren ere aipatuz. Emozioez hitz egiten denean, modu batean edo bestean edonork du horrekin identifikatzeko zerbait. Eduardo Bericat-ek gizakiak horren inguruan duen jakituriaz eta horri ematen dion garrantziari buruz idatzi du. Berak azaltzen duenez, “Indibiduoak bizitza emozionalki baino ezin du esperimentatu: *sentitzen dut, beraz, banaiz*. Hala ere, emozioen izaerari buruzko galdera asko daude oraindik erantzun egokirik gabe (Lawler, 1999), eta horrek azaltzen du zer zailtasun dagoen definizio egoki batera iristeko (Marcus, 2000: 224)<sup>8</sup>”. (Bericat, 2012, or. 1) Horregatik, gizakiak munduan bizitzeko duen konplexutasun sakona norbanakoaren emozioen unibertso zabal eta sotilean islatzen dela argudiatzen du idazleak.

---

<sup>8</sup> Bericategaztelaniaz idatzitakoa euskarara ekarri du egileak.

*Irri, zirri, urri, Korrika iturri* titulupean Lizarrako Korrikari eta emozioei buruz egin den ikerketan ere (Galparsoro, et al., 2017, or. 79-83) emozioen definizio batera iristen saiatu dira. Hasieran argi desberdintzen dutenez, “emozioa ez da sentimendua, fenomeno neurofisiologiko<sup>9</sup> eta neurokimikoa<sup>10</sup> baizik, nerbio-sistema autonomoarekin lotua. Sentimendua, berriz, emozioaren onarpen kontzientea da.” (Galparsoro, et al., 2017, or. 79) Le Breton-en esanetara (2012:67-71), sentimenduak eta emozioak ez dira norbanako batetik bestera transferi daitezkeen substantziak, eta ez dira prozesu fisiologikoak bakarrik. Erlazioak dira, eta, beraz, eraikuntza sozial eta kultural baten emaitza dira. Emozioak gizarte-komunitate baten parte sentitzeko moduak dira, elkar ezagutzeko eta elkarren arteko komunikazioa eratzeko erreminta bat, hurbileko emozio-funts batean. “Geertzen arabera, ostera, emozioak ez dira soilik kulturaz kultura aldatzen, baizik eta pertsonaren arabera ere badira. Emozioa interpretazioa da, adierazpena, esanahia, etab” (Galparsoro, et al., 2017, or. 79). Horregatik, emozioak testuinguruaren arabera aldatu ohi dira. Orobat, emozioen adierazpenean ez da gizakiaren natura ageri, gizartean duen egoera eta bertatik jasotzen duena baizik, eta hori norbanakoaren aldaketa psikologiko eta fisiologikoetan adieraziko da. Hortaz, bere eguneroko jarreran, gainerakoekin duen portaeran eta oreka pertsonalean islatuko dira horiek guztiak. Hori dela eta, emozioena ez da berez bat-bateko kontua, era erritualean<sup>11</sup> eraikita dagoena eta esanahia duena baizik. (Galparsoro, et al., 2017, or. 79)

Era berean, eta aurrekoarekin jarraituz, emozioak etengabe aldatzen doazela esan daiteke, beti ere munduarekiko harremana aldatzen denean: “Eugenia Ramírez Goicoecheak (2001) dio, bestalde, emozioak eraikuntza isolatu baino gizakien dimentsio asko eta ezberdinak barnean hartzen dituzten prozesu konplexu bezala ulertu beharko liratekeela” (Galparsoro, et al., 2017, or. 79). Azken hori bat dator atal honen hasieran Bericat-ek (2012) emozioen konplexutasunaz esaten duenarekin.

Galparsoro et al.-ek (2017.or. 82) Teresa Del Valleren ikusmira esanguratsua ere aipatzen dute, Korrika bezalako erritualek emozioetan eta sentimenduetan duten eraginaz hitz egiten hasita, kontu hau gogora ekarriz:

Korrika ez da soilik emozio sortzailea, sentimendu oroitarazlea (*sentimiento evocador*)<sup>12</sup> ere bada. Korrikak sortzen duen uneko emozioan murgildurik eta denboran atzera begira jartzeko gaitasunean oinarriturik, gordetako sentimenduak azaleratzeko ahalmena du (Teresa del Valle, 1988). Korrikak ez du soilik konexio positiboekin konexioa egiten, gure barneko pentsamendu eta gogoekin ere konektatzen gaitu maiz.

<sup>9</sup> “*Neurofisiologia nerbio-sistemaren funtzionaltasuna aztertzen duen fisiologiaren adarra da.*” (Wikipedia, 2024)

<sup>10</sup> “*Garunak bere jardura guztiak egiteko eta gorputzaren funtzio guztiak kontrolatzeko duen funtzioa substantzia kimiko askoren sintesian eta askapenean oinarritzen da, eta neurokimikak ez du horien berri.*” (Wikipedia, 2023)

<sup>11</sup> Korrika erritu garaikide bezala adierazten dute testuan. Gainera, herri bateko kultura edo kolektibotasun sentimendua adierazteko egiten diren jaiekin/festekin erlazionatzen dute autoreek. (Galparsoro, et al., 2017, or. 77-79).

<sup>12</sup> Teresa del Valle antropologoak bere liburuan erabilitako kontzeptua da.

Horren harira, bizitako emozioak gogora ekartzearekin, hau da, sentimendu oroitarazlearekin zerikusia duen idazki interesgarria argitaratu zuen Teresa Del Vallek *ARIES Anuario de Antropología Iberoamericana* urtekarian (2019). Horretan, prozesuari buruz hausnartzean, aipatzen du emozioak azaleratu egiten direla, eta borondateak ezin dituela geldiarazi, baina bai sentitu eta baloratu. Prozesu sentsorial horretan, mugetan barrena dabilen eta denbora deuseztatzen duen botere gogorarazlearekiko ere garrantzi handia dute Korrikan sortutako emozioek. Emozioak sortzen dituen prozesu sentsoriala da botere gogorarazlea. Eta prozesu hori guztia memorian jaso daiteke (2019). Era berean, oroimenean emozioak azaleratu egiten direla aipatzen du Del Vallek, eta horrek haien interakzioaren eta botere gogortzailearekiko harremanaren garrantzia planteatzen duela adierazten du, beti ere sentimendu oroitarazlearen baitan.

Halaber, Galparsoro et al.ek (2017, or. 82) aipatu izan duten emozioaren nolakotasunaz gain (positiboa edo negatiboa izan den), garrantzia ematen diote beste elementu honi: “Oroimenean txertatzeko garaian, emozioaren intentsitatea (LaBar eta Rubin, 2004)”, aipatuz “hunkitzen gaituen gertakari bat norbanakoaren oroimenean ezinbestean zizelkatuta geratuko dela”. Hari horri tiraka, Korrika hunkigarria dela esan daiteke. Euskal komunitateak horren aurrean duen hunkigarritasun gaitasuna oso altua dela ondoriozta daiteke, ezberdinak batzeko kapaza delako eta horren irudi masiboa erakusten duelako. Horrela, Korrika parentesi bat ere izan daitekeela esan daiteke, Galparsoro et al.ek elkarrizketatutako Lorea Agirrek hala adierazten baitu (2017, or. 82): “Korrika parentesi bat da, continuum bat, jarraikortasun bat. Geure min, lorpen, ahal eta ahaleginen deusezte bat. Geure kontraesanak gaindituak dauden lurralde bat.”

Horregatik ere, Korrika sinboloa da, euskararen alde egiten den ekintzetan sinbolo nagusia, hain zuzen ere (Galparsoro, et al., 2017, or. 82). Gainera, euskararen esangura asko, norabide desberdinetan doazenak, kondentsatzea ere lortzen du:

“Ekimenak bere baitan eskatzen duen esfortzu fisikoa (lanaren balioa), testigua une oro eskuz esku eramatea (transmisioa), askoren artean egin beharreko lanaren adierazpena (kolektibitatea, lekukoa ia beti norbanako batek eramatea (subjektuaren konpromezua)...”  
(Galparsoro, et al., 2017, or. 82)

Kolektibotasunaren sinboloa da, herri euskalduna berriro batzeko ekimena. Kultura eta hizkuntza iraganetik eta gaur egunera arte partekatzen duen herri baten adierazle da ekimena. Orobat, sinboloen gaitasun bat ohikoa desberdin bihurtzean ere badatza, beste modu bateko adierazpena suposatzen duelako horrek. Esate baterako, eguneroko betebeharrak bati ezaugarri sinbolikoren bat atxikitzean ohikoa den hori (hizkuntzaren erabilera, euskararena, kasu) ezohiko bihurtu daiteke (Korrika). Horrek, aurretik adierazi izanenez, hainbat emozio sortzen ditu.



Dena den, Korrika ere subjektiboa da bere baitan, pertsona bakoitzak modu batera edo bestera hauteman eta bizi dezakealako ekimena. Nahiz eta orokorrean emozio positiboak sortu, bakoitzak bere aldarrien, bizipenen eta sinesmenen arabera sentitzen du Korrika. Emozioen subjektibotasun horrek sinboloen esanahien malgutasunarekin zerikusia du. Bada, horren adierazpen izan daiteke lekukoa eramatearen ekintza (Galparsoro, et al., 2017, or. 82). Badaude lekukoa lotsati eramaten duten pertsonak; beste batzuk, aldiz, harro sentitzen dira eta sinbologia gora altxatzen dute hori adierazteko. Beste batzuek sorpresaz hartzen dute testigua, eta badaude kontzientziarik gabe hartzen dutenak ere, normalean haurrak.

Gizarte-egiturak portaera ezberdinak kudeatu eta zehazten dituela ere adierazten dute Galparsoro et al.ek (2017, or. 79-80), sozializazioari garrantzi handia aitortuta. Sozializazioa pertsona multzora edo gizartera barneratzeke prozesua izanik, Korrikak ere horretan dezente laguntzen duela aipatu daiteke. Marko teorikoaren hasieran aipatu denez, komunitatean gara nor, komunitateak egiten gaitu (Urdangarin, 2020). Beraz, Korrika ez da teoria horretatik aldentzen. Korrikak duen identitate kolektiboak sortzen du identitate indibidualaren zati bat, kultura eta hizkuntza bat ordezkatzeko baitu. Horren harira, Korrikak talde handi baten parte izateko aukera ematen duela aipatzekoa da. Horrek positiboki eragina du norbanakoaren ongizatean (Zabala et al. 2023).

Atal hau laburbilduz, beraz, Korrika indibiduen ongizatean eragin positiboa duen ekimena dela argudia daiteke, erlazioen eta eraikuntza sozial baten emaitza izanik, emozionalitate handia duen ekimena. Korrikak duen hunkigarritasun-gaitasuna, gorpuzten duen kolektibotasun sinbologia, bakoitzarengan sortzen duen perspektiba subjektiboa eta sozializazioari ematen dion lekua azpimarratuz, Korrikak emozioen definizioarekin bat egiten duela ondoriozta daiteke.

## **4.4. KORRIKA, EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE MUGIMENDUA**

### **4.4.1. BILAKAERA/HISTORIA**

Euskal Herrian ondo ezaguna da 1980tik gaur egunera arte bi urtetik behin ospatzen den Korrika izeneko ekimena. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) sortu zuen inizatiba da, zeinean 10 egunetan Euskal Herria osotik korrika egiten den euskararen alde. Halaber, hainbat aldarrikapen batzen dira ibilbide osoan zehar, baina Korrikaren zeregin nagusia euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana ekonomikoki mantentzeko dirua lortzea da. EHUko Gizarte Antropologia gradua ikasi zuen lehenengo ikasleatarikoa eta bertako Gizarte Antropologiako lehen katedraduna izan zen Teresa Del Valle, eta sakon ikertu zuen Korrika. Haren lan etnografikoak (1988) aipatu dugun

hori berresten du.

Korrikaren sorkuntzak AEKren historia, helburu eta antolamendu-egiturarekin bat egiten du bere osotasunean. AEK 1965. urtean sortu zen, frankismo garaian, Euskaltzaindiko gazte-talde batek bultzatuta. Gazte-talde horrek, euskararen gainbeheraren kontzientzia izanik, euskararen sustapenean eta kontzientzian lan egin behar zela aldarrikatu zuen. Horregatik, euskararik ez zekiten pertsona helduen euskalduntze-prozesuan laguntzeko eta euskara zekitenen hizkuntza aberasteko asmoz, komisio bat sortu zen Euskaltzaindian. Batzordea euskararen irakaskuntzan oinarritzen zen, modu zuzen, herrikoi eta parte-hartzailean, eta, horrela, euskaldunen eta euskal ikasleen arteko elkarrekintzak sortzen ziren. Euskalduntze-alfabetatze prozesua abiatu zen horrenbestez Euskal Herrian, eta mugimendu horretan Rikardo Arregi<sup>13</sup> aritu zen, besteak beste, aitzindari lanetan. Mugimendu horren ondorioz Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) eratu zen 1965. urtean. AEK Euskal Herri osoko helduen alfabetatze eta euskalduntze prozesurako sortutako zentroyen kudeaketaz arduratzen hasi zen (Del Valle, 1988). AEKren historia hobeto zehazteko, aipatu daiteke Rikardo Arregik kanpaina batekin hasi zuela helduen alfabetatze prozesuan jarduten; ondoren, 1974. urtean gau-eskolak sortu ziren Gipuzkoan, alfabetatzean zentratutako lehenengo elkarteak eratuz; jarraitzeko, 1976an AEK izena hartu zuten, azkenean 1979an Euskadi eta Nafarroako zentro guztiak lehenengo aldiz batuz haien arteko koordinazioa zehazteko. AEK Iparraldera 1980an heldu zen bere lehenengo zentroa sortuz.

AEK izena hartu zuen lan talde horrek, bere gorabeherekin, euskararen helduentzako irakaskuntza sustatu zuen, baina dirua behar zuten materialak lortzeko, irakasleei ordaintzeko, etab. Hainbat modutan saiatu ziren dirua lortzen: Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) diru-laguntzekin edota hainbat martxarekin, besteak beste, eta sos batzuk biltzea lortu zuten azkenean. Hala ere, diru-sarrera gehiago behar zituzten. Gainera, hizkuntzaren egoera geroz eta latzagoa zen. Ondorioz, kuadrilla baten afaritik Korrika sortu zen. Korrika AEK-k bultzatutako martxa izango zen, Euskal Herri osoan zehar ibiliko zena, ekintza eta inprobisazioa abiapuntutzat hartuta euskararen aldeko lasterketa bultzatzeko, hizkuntzaren batasuna sustatzea ardatz hartuta, zatiketa geografikoen gainetik (Del Valle, 1988).

Egun, AEK-k Hego Euskal Herrian kooperatibaren forma juridikoa dauka, baina Ipar Euskal Herrian ez da horretara heldu oraindik. Dena den, finantzaketarekin antzera jarduten du, ezinbestean Korrikan eskuratutako funtsa behar duelako bere zereginarekin aurrera ekiteko (Elordi & Otaño, 2024).

---

<sup>13</sup> AEKren hastapenean egon izan zen gizona da, alfabetatze taldea sortzen lagundu zuen eskutitza idatzi zuen pertsonetako bat izan zen.

#### **4.4.2. IDENTIFIKATUTAKO EZAUGARRIAK**

Korrika bat eta bakarra dago eta Euskal Herriaren baldintzak eta testuingurua, berriz, aldatzen doaz. Hori dela eta, Korrikaren baitan testuinguru horiek sortzen dituzten aldaketak antzeman eta sortutako emozioen eta sentimenduen intentsitatea neur daiteke. Hori da Galparsoro et al.-ek (2017. or 76) haien Lizarrako Korrikaren emozioen azterketan ikertu nahi izan zutena. Lan hori egiteko hainbat zergati eta foku izan arren, haien abiapuntua herri ez oso euskaldun batean, Lizarran, ekintza horretan sortzen diren sentimenduak eta emozioak hiru adierazle ezberdinetatik ikertzea izan zen. Adierazle horiek emozioak, lurraldetasuna eta izaera bateratzailea izan ziren (Galparsoro, et al., 2017).

Aldaketaren testuinguru horretan, Korrikaren baitan ezaugarri berrien sorrera antzematen da batetik, eta, bestetik aurretik existitutakoen transformazioa/aldaketa. Horien artean, nabarmentzekoak izan dira Korrika erritu bezala definitzeko joera, ekimenak jendeari berau berenganatzeko emaniko aukera, haren izaera polisemikoa, gu-tasun konponentea, ezberdinak elkartzeko bilgune izatea, euskal unibertsoaren bi aldeak erakusteko gaitasuna eta diskurtso sozialen bateratzaile izatea (Galparsoro, et al., 2017). Kontekok (2019), horrez gain, bi ezaugarri gehiago txertatzen dizkio ekimenari: kirolarekin dituen ezaugarrien antzekotasuna eta minorizatu eta minoritario bezala dituen ezaugarriak.

Aipatu beharra dago Galparsoro et al.-en ikerketa (2017: euskal komunitatearen festa den Korrika emozioen muintetik identifikatu eta aztertu nahi izan zuten, beti ere euskararen errealitate soziolinguistikoa askotarikoa dela kontuan izanik. Euskal Herrian garatzen diren hizkuntzarekiko harreman ezberdinak kontuan izan zituzten azkenean landa-lana Lizarran burutzeko. Eremu ez euskaldun eta mistoa barnebiltzen dituen eremuko herria delako, hain zuzen ere (Galparsoro, et al., 2017, or. 75-76).

Ezaugarrien atalaren sarrerari amaiera emateko, badago Del Vallek bere liburuaren 5.kapituluan aipatzen dituen ezaugarrien zerrenda ere. Bere aburuz, Korrika energia fisiko eta sinbolikoz betetako ekintza da. Horregatik, beronen osagaiak aztertzea garrantzitsua dela aurreikusi izan zuen, haren erakargarritasuna ulertzeko eta garai hartan (1988an) existitzen ziren aurkakotasuna eta gaitzespena ere ulertzeko. Horrela, haren ezaugarriak eta gaitasunak ere aztertu izan zituen (Del Valle, 1988).

#### **4.4.3. ERRITU GARAIKIDEA**

Galparsoro et al.ek (2017, or. 77) Korrikaren definizio bat eskaintzen dute: “Korrika, komunitatea osatzeko eta berau autoafirmatzeko, jai giroan ospatzen den erritu kolektiboa

da.” Hortaz, Korrikari erritu kolektiboaren izena ematen diote “hizkuntza metaforikoa, egitura eta errepikapena” hartzen dituelako bere baitan. Orobat, errituen ezaugarriei buruz ere ari da testua, Durkheimek errituei buruz zehazten duen definizioa eskaintzen. Errituak gizarte-talde bat aldian-aldian berretsiko duten bitarteko gisa deskribatzen ditu egileak. Interes- eta tradizio-komunitate batek elkartuta sentitzen diren eta beren batasun moralaren kontzientzia hartzen duten pertsonen egiten dituzten ekintzak. Hori dela eta, zaila da gizarte bat sortzea, baldin eta ez bada sentitzen beronen batasuna eta nortasuna osatzen duten sentimendu eta ideia kolektiboak mantendu eta berresteko beharrik (Galparsoro, et al., 2017).

Ildo beretik, Olatz Gonzalezek (2005: 218) euskal pilotaren inguruan eginiko ikerketan aipatzen duen moduan, hainbat errituk oinarritzko bi jostura bultzatzen dituztela aipatzen du. Alde batetik, partaidetza eta, bestetik, iraunkortasuna. Hots, “norbanakoa eta euskal hiztun komunitatearen arteko lotura eta horiek iraganarekiko dutena, hurrenez hurren.”

Kasu honetan, Korrika bi urtetik behin ospatzen den erritua izanik, euskalgintza eta euskara berpiztu eta indartu egiten ditu. Gainera, deskribapen hau herriko jaiei eman dakiekeenaren antzekoa da. Hala ere, jarduera hau desberdina da, izan ere, beren egunerokotasunean elkarrekin bizi diren eta modu batera edo bestera harremana mantentzen duten lurraldeetako pertsonen jaia da. Nolanahi dela, Korrikan pertsona desberdinen eta euskal kulturarekiko atxikimenduaren arteko lotura lortzen da. Hori dela eta, parte-hartzaileek gehiago espero eta desiratzen dute elkartzea eta erritua ospatzea.

#### **4.4.4. BERENGANATZEKO AUKERA**

Galparsoro et al.-ek (2017) hainbatetan aipatzen duten Korrikaren ezaugarria da lasterketak jendeari ekimen hau berenganatzeko ematen dion aukera. Korrika euskal komunitateak asko maite duen ekintza dela aipatzen da artikuluan, baita erreferente den erritua dela ere: jendeak beregana dezakeen erritua, edonork modu desberdinetan parte hartu dezakeena. Hiztun izatetik hasita, AEKn edo edozein euskaltegietan ikasle izanik, irakasle izanik, Korrikaren antolatzaile, *furgonetero*, koordinatzaile, batzordeetan parte-hartzaile, Korrika laguntzaile, Korrika kulturaleko antolatzaile zein erakundeko bezero eta irakasle, besteak beste. Hortik ere badator Korrikaren arrakasta: duen izaera ekintzaile eta parte-hartzailetik, militantziaren nolabaiteko beharra ere izanik. Dena den, euskararekiko loturaren bat izatea baino ez du eskatzen ekimen honek (Galparsoro, et al., 2017).

Euskalduntasuna antzemateko modu ezberdinak erakusten dituela aipatzea ere interesgarria da. Parte-hartzaileen artean zaila da euskararen inguruan dauden inplikazio-mota desberdinen artean berdinak direnak antzematea. Maiz emozioen eta sentimenduen markotik jasotzen da Korrikarenganako atxikimendua. Nahiz eta kultur edo tradizio berdinetik

etorri, bakoitzak historia, modu eta gertakari desberdinetatik bizitzen du bere Korrika. Askotan, abestietan islatzen da informazio hori. Iritzi desberdinen bilgune izatearen adierazle ere bada hori (Galdos & Amezaga, 2023). Bada, edizio bakoitzeko abestia aurrekoaren desberdina da. Bakoitzak aldarrikapen zehatza du, beti euskarari lotua, noski, baina pertsona-talde desberdinak gonbidatzen ditu Korrikara. Hortik geratzen dira agerian Korrikak erakusten dituen euskal hizkuntza berenganatzeko gonbidapen desberdinak, baita ekimena propio egiteko dauden aukerak ere. Galdos eta Amezagak (2023) haien ikerketan ere erakutsi dutenez, lekuko-eramaileetan ere antzeman daiteke informazio hori.

#### **4.4.5. IZAERA POLISEMIKOA**

Errituen antzera, Korrikak hainbat eragile, elkarte, alderdi eta banakoren parte-hartzea onartu eta sustatzen du; hainbat mezu eta aldarrikapen ezberdin onartzen ditu, beti ere euskararen aldeko aldarrikapenekin bat egiten duen norbait badago horien atzetik. Horrek Korrikaren biziraupenari fabore handia egiten dio, errealitatean dauden nortasun eta identitate ugariak barnebiltzen baititu. “Nortasuna, oreka eta egonkortasunaren sinonimoa da, era berean, iraunkortasun eta denbora jarraikortasunarena ere bai, finean, tradizioarena (Homobono, 1990:47)” (Galparsoro, et al., 2017, or. 77).

Horregatik du postmodernitatean eta beste hainbat garaitan bizirauteko erraztasuna. Bere indargunea delako iraganeko tradizioan gaur eguneko paradigmak dakartzan aldaketak txertatzeko gaitasuna izatea eta, beraz, modu horretan egonkortasuna izatea lortzen duelako. Hona hemen horren azalpena (Galparsoro, et al., 2017, or. 78): “Ibai Iztuetak, Zygmunt Bauman oinarritzat hartuta, honakoa esaten digu: identitateak atxikimendua eta isuria gortzen ditu: denboran zehar aldatuz irauten duten zerbait da (Iztueta, 2015:217).”

#### **4.4.6. GU-TASUNA**

Testu honetan ere landu den antropologiaren ikuspuntutik, Korrikak eta euskal kulturak *gu*-tasun sentimendu bat indartzen dute euren gizartean. *Gu*-tasun sentimendu hori ez litzateke existituko *beste*arengandik kontrajarrita sortuko ez balitz. Horregatik alteritatearen beharra azaltzen da:

Funtsean konparaziozko disziplina bat izanik, subjektu aztertzaileaz at dagoen oro sar liteke alteritate honen definizio batean. Hala nola, urruneko herrialde galduren batean bizi den tribuak modu egokian ilustratzen du alteritate honen esanahia, guztiz ezberdina den gizarte eta kulturadun taldea; aldi berean, hain urrunera joan gabe aztertzailearen gizarte bereko sektore ezberdinak ere “beste” honen parte dira, esaterako adinaren irizpidea kontuan hartuta, gazteria edota honen eboluzioa aztertzean alteritate bat aztertzen da ikerlea talde honen (gazteria) partaide ez denik ulertuta (Etxekolonea et al., 2017).

#### **4.4.7. EZBERDINAK ELKARTZEKO BILGUNE**

Lizarrako Korrikaren artikuluan Korrikak ezberdinak elkartzeko duen ahalmenari egiten zaio erreferentzia, eta “ezberdinak elkartzeko eta erakartzeko” parada gisa deskribatzen dute ekimena. Horren adierazle izan daiteke, besteak beste, Korrikaren ibilbidean zehar bertako eta nazio mailako aldarrikapenen presentzia. Kontekok ere bere ekarpenean azpimarratzen du hori, hau da, parte-hartzaileek ekitaldi hori gai ezberdinak jorrazteko baliatzen dutela. Kontekok (2019, or. 49) Korrikan ez jende mordoak soilik, baita administrazioek eta zuzendariek ere parte hartzeak Euskal Herri osoan duen garrantzia azpimarratzen duela nabarmentzen du.

Gainera, Korrikaren izaera inklusiboaz ere hitz egin daiteke, hainbat aldarri, esan, kezka, etab. barneratzen baititu, euskal komunitateko sentsibilitate ezberdinak elkarrekin bizitzeko, komunikatzeko eta mugiarazteko zubi-lanak eginez (Galdos & Amezaga, 2023).

Horregatik, lasterketaren parte-hartzaileen artean jendearen ohiko profil estereotipaturik ez dagoela antzeman daiteke. Aurretik lekuko-eramaileen arteko desberdintasunez hitz egin den moduan, lekukoaren atzetik doazen korrikalariei buruz ere antzekoa esan daiteke, ekitaldiak hainbat belaunaldiren, nagusi zein haurren eta askotariko genero eta klase sozialetako jendearen parte-hartzearekin bizirauten baitu (Konteko, 2019).

Horrekin batera, Del Vallek aipatzen duen Korrikaren integrazio-ahalmena ere ekar daiteke gogora. Euskal Herriko Iparraldeaz eta Hegoaldeaz ari da egilea. Modu horretan, Korrikak gune desberdinetan dauden kezkak biltzeko duen ahalmenari egiten dio erreferentzia. Nahiz eta haien artean oso desberdinak izan, aldarrikapenak bateratzea lortzen du ekimenak. Horrela, festa Korrikaren elementu bateratzaile gisa definitzen du. Korrikaren hasieran eta amaieran festaren presentzia izatean, baita ibilbidean zehar musika eta dantza desberdinak jasotzean eta sortzean ere, lurralde osoa batzea lortzen du. Edo behintzat, parte-hartzaile guztiak Korrikaren parte sentitzea eragiten du (1988, or. 206).

#### **4.4.8. EUSKAL UNIBERTSOAREN BI ALDEAK**

Korrikaren bi aldeei (positiboa eta hobetzeko modukoa dena) ere egiten diete erreferentzia Galparsoro et al.-ek (2017). Haiek elkarrizketatuek Korrikari buruz ezer desegokirik ezin zutela esan azaltzen dute, eta horretarako zenbait arrazoi agertzen dira: Korrika igaro eta jarraian izandako elkarrizketa izan zela, egileek aipatzen duten modura “Korrikaren baitan zirelako oraindik”, eta txarraren gainetik ona lehenesteko gaitasuna zutela eransten dute.

Jarraian, Korrikak biltzen duen euskal komunitate zabalaz ere hitz egiten dute, hots, euskaldun izateko modu guztiak barnebiltzen dituen horretaz. “Norbanako bakoitzak duen euskararekiko lotura modu batera edo bestera erakusteko aukera ematen duelarik.” Izan ere,

euskararekiko atxikimendu-maila ezberdinak onartzen ditu Korrikak bere parte-hartzaileei dagokienez. Hori gogoan, hurrengo galdera pausatzen dute ikerketaren egileek: “Parte-hartzaileen kontzientzia maila zenbateraino dator bat azken mezuaren irakurketarekin?” (Galparsoro, et al., 2017, or. 87).

Dezente dira Korrikaren inguruan aipatu ahal diren emaitza txarrak eta alde negatiboak, bizitzako gainerako esparru guztietan bezala. Dena den, bakoitzarena da ikuspuntu horiek izateko eta gehiegi pentsatzeko hautua. Benetan Korrikaren sormenak euskararen sustapenean izan zuen oinarria eta berdina izaten jarraitzen du oraindik. Horregatik, Korrikaren alde ona presente izatea garrantzitsua da. Txarraz ez da ahaztu behar baina beti ere modu eraikitzaile batean erabiltzen bada.

#### **4.4.9. DISKURTSO SOZIALEN BATERATZAILE**

Idatzi diren lanetan bada ideia bat dezente nabarmentzen dena: Korrikak jendea zein diskurtso sozialak bateratzeko duen ahalmen handia. Hau da Ane Elordik, Korrikaren koordinatzaile nagusiak, hainbatetan aipatu duen datua (komunikazio pertsonala, 2024/03/05) eta Korrikaren ezaugarrietatik dezente nabarmentzen duena.

Del Vallek ere antzeko ikuspegia konpartitzen du. Bere aburuz, Korrika herriaren askotariko arazoan aldarrikapena da. Ibilbide osoa jarraituta, bertako parte-hartzea deskribatzen du, aldarri ezberdinen presentzia azpimarratuta: langabeen, presoan aldekoen eta intsumisoen mugimenduenak dira, besteak beste, euskararen aldeko mugimenduez gain aipatzen dituen bestelako aldarriak (Del Valle, 1988).

Orobat, 1988ko garai horretan gertatzen zena deskribatzen dute Galdos eta Amezagak:

“Ez da ahaztu behar liburua idatzi zen garaian tirabira handiak zeudela euskararen aldekoen artean ere, zeinek biziberritzea modu ezberdinean ikusten baitzuten (Urla, 1995). Desadostasun horiek jarduera politikoan ere islatzen ziren, ezker abertzalearen eta gobernuan zegoen alderdi jeltzalearen artean, azken horrek une batzuetan Korrika boikoteatzeraino.[...]

Garai hartan, halaber, gizarteko zenbait sektore, aldarrikapen eta mugimendurekiko hurbilketa prozesuan zegoen ezker abertzalea (Amezaga, 1996). Beraz, ezin da ezohikotzat hartu Korrika bezalako ekitaldi bat, bere ezaugarriengatik zein testuinguruagatik, sektore eta aldarrikapen ezberdinen bilgune izatea.” (Galdos & Amezaga, 2023, or. 58)

Orobat, edizio bakoitzak lema berezi eta original bat du, eta bertan, euskarak kirol eta aldarrikapen jardueretan duen garrantzia azpimarratzen da. Esloganaz gain, edizio bakoitzak

bere abestia du, hautatutako musikari euskaldunak egina, eta, euskararen erabilera aldarrikatzeaz gain, edizio bakoitzak bere erreibindikazioa du, euskarari edo Euskal Herriari lotuta dagoena.

Korrikan kalean euskaraz hitz egiteko eta ekitaldi honen ardatz linguistikoa azpimarratzeko erabiltzen diren beste tresna batzuk pankartak eta iragarki-kartelak, txapak, petoak eta pegatinak dira. Horiek parte-hartzaileek eginikoak izaten dira gehienbat eta bakoitzaren euskararekiko kezka edo aldarria adierazten dute. Horrez gain, AEK-k ere petoak, kamisetak, pegatinak, sudaderak, etab. sortzen ditu bai dirua lortzeko, bai jendeak izan ditzan (Konteko, 2019), modu horretan, bide batez, norbanakoaren aldarria adierazteko aukera eta askatasuna emanaz, beti ere Korrikaren funtzio fundamentalak betetzea ahalbidetzen bada.

Gainera, Kontekok (2019, or. 46) ongi azaltzen du Korrikak igarotzen den lekuetako aldaera linguistikoak (euskalkiak) jasotzen dituela, eta, aldi berean, hizkuntzak lurralde bakoitzean duen egoeraren zenbait ezaugarri ere islatzen dituela.

#### **4.4.10. KORRIKA ETA KIROLA**

Kontekok eginiko azterketa honek proposatzen du kirolaren<sup>14</sup> eta hizkuntzaren (Espainiako kirol-diskurtsoaren esparruan) artean dagoen lotura kontuan hartzea Korrikari buruzko lana burutzeko. Hizkuntzalariek nabarmentzen duten bezala, diskurtsoaren azterketaren helburua da haren enuntziazioa gizarte-leku jakin batekin artikulatzea (lotzea). Diskurtsoaren azterketa da kultura-testuinguru jakin batean hizkuntza-sinbolo batzuk erabiltzen dituen diziplina, hizkuntza helburu sozial, espresibo eta bereizgarrietarako aztertzen duena (Konteko, 2019, or. 39). Modu horretan, Korrikan kirolaren eta hizkuntzaren arteko konexioa ikertu daiteke ekimenean zehar erabiltzen diren kontsignen eta aldarrikapenen jasoketa eginez. Hori, beraz, Korrikaren lelo orokorrak, korrikalariek eramaten dituzten pankartek, oihukatzen dituzten erreibindikazioek, etab-ek adieraz dezakete, baita edizio bakoitzean sortzen diren abestiek ere.

Edizio bakoitzak lema berezi bat du, eta bertan, euskarak kirol eta aldarrikapen jardueretan duen garrantzia azpimarratzen da. Esloganaz gain, edizio bakoitzak bere abestia ere badu, hautatutako musikari euskaldunak egina, eta, euskararen erabilera aldarrikatzeaz gain, edizio bakoitzak bere erreibindikazioa du, euskarari edo Euskal Herriari lotua dagoena.

Espainiar Estatu osoan zehar kulturak eta kirolak duten garrantzia aipatzea ere halabeharrezkoa da: "Kirola gizarte-jardueraren modalitateetako bat da. (Connor, 2011) Espainiako gizarteko kirol-praktikak jarduera fisikoa baino askoz gehiago dira. Izan ere,

---

<sup>14</sup> Gizarte-praktikaren adierazpen bat eta Espainiako gizartearen berezko ezaugarri moduan deskribatzen du egileak. (Konteko, 2019)



kultura ludikoan eta ikuspegi politiko eta historikoan landu dira<sup>15</sup>.” (Konteko 2019, or. 39-40). Hala, lasterka (kirola) egitearen zentzuak eta hizkuntza gutxitu baten alde egiteko gizarte-mugimendu linguistikoaren merabilerak bat egiten dute haien ezaugarri eta zentzuetan. Biak dira une historiko desberdinen adierazpide eta biek dute aldarri baten alde egiteko erabilgarritasuna/gaitasuna.

Horren adibide izan daiteke Korrikaren lehen edizioa gertatu zeneko garaia. Aurretik aipatu izan denez, Korrika 1980an sortu zen, eta garai hartan, kirola “ideologizatua” izatetik, helburu politikoeekin, espainiar nazio berri bat “sustatu eta zimendatzen” duen kirol izatera igaro zen; nazio hori etengabe garatzen ari zen erakunde demokratikoen bidez (Konteko, 2019, or. 42-43).

Horrez gain, aztergai dugun lasterketa herrikoian zehar ehunka jarduera kultural eta ludiko antolatzen dira (Konteko, 2019, or. 39-40). Gaur egungo ikuspegiaren arabera, euskara babesteko tresna izango da etorkizuna. Euskal Herri osoan euskararen irakaskuntza doan izateko borroka, gizartearen inplikazio herrikoa, etorkizunerako helburu nagusia da. Berbal-di-analisiaren ikuspuntutik, Korrika fenomeno irekia da, ekintzara bideratua, komunikazio naturala duena, hau da, hitz askorik esan gabe ulertzen dena, eta testuinguruan ainguratua dagoena, kirolaren zeregin soziala agerian utziz (Konteko, 2019, or. 50).

Hari horretatik tiraka, beraz, Kontekok bere lana laburtzeko erabiltzen dituen zenbait baieztapen esanguratsuak dira. Hala, bere lanean, Maitena Etxebarriaren hitzak gogorarazten ditu hizkuntza minoritarioen etorkizunaz mintzo denean:

Soziologia-egoera jakin batzuetan, komunikazio tradizionalaren haustura atzeraezina eragiten dutenetan, hizkuntza minoritario baten etorkizuna bere buruari eta hizkuntzek eskakizun horiei erantzuteko duten moduari buruzko balioespena eragiteko aukeraren menpe dago (Etxebarria, Kontekok aipatua in 2019, or. 49)

Orobat, Korrikaren izaera biltzaileak ezaugarri eta funtzio oso bereziak dituen gizarte-gune eta momentu esanguratsu bat sortu du, izaera pragmatiko ambigua duena: arreta erakartzea, hizkuntza ezagutaraztea eta berau zabaltzeko dirua biltzea. Euskal Herriko gizarte osoa mobilizatzen duen ekitaldi bihurtu da, eta kirolaren (lasterketa) eta hizkuntzaren (euskara) artean kirolaren esparruan dagoen harremanaren erakusgarri da.

#### **4.4.11. MINORIZATUA, MINORITARIOA BAINA BIZIA**

Etxebarriak (2002) Espainiako hizkuntzen, lurralde elebidunetako hizkuntzaren eta hizkuntzen bizikidetzaren inguruko azterketa egin zuen. Lan horretan, hizkuntza bat baino gehiago dituen herrialde batean gatazkarik sortu gabe bizitzeko beharra azpimarratzen du. Autorearen iritziz, hizkuntza pertsonaren identitate-elementu bat izanik eta errealitate batean sustraitua egonik, Espainiako eremu batzuetako egoera elebidunak eztabaida, iritzi eta

---

<sup>15</sup> Kontekok gaztelaniaz idatzitakoa euskarara ekarri du egileak.

gaitzespen ugari sortu ditu, hizkuntza eta kultura desberdinak sakonki ezagutu gabe: “Gaur egun, euskara erabili eta gorde duen erkidegoko kultura-tresnarik adierazgarriena da, eta zenbait ezaugarri soziopolitiko ditu, hala nola hizkuntza minoritarioaren izaera (hiztun gutxi batzuek erabiltzen dute) eta, aldi berean, minorizatuarena; izan ere, hainbat egoera historikotan, zaharretan eta berritan, euskararen erabilera atzeratu egin zen, eta, batzuetan, debekatu egin zen funtzio soziokultural gutxi batzuk betetzea”<sup>16</sup> (Etxebarria, 2002).

Honen harira, Konteko konturatu da Korrikaren antolatzaileek ‘minorizatu’ hitza erabiltzen dutela ekintza egiten den bitartean euskarari buruz hitz egiteko. “F. Zubiagak dioen bezala, Euskadiren historia osoa, Espainia eta Frantziaren testuinguruan, euskararen ahanzturaren edo oroimenaren aldeko borroka da, Europako hizkuntzarik zaharrena.” (Konteko, 2019, or. 42).

#### **4.5. KORRIKA, SINBOLOGIAZ BETERIKO LASTERKETA**

Korrikaren lehen lau ekitaldiak ardatz hartuta eginiko lan etnografikoan hipotesi hau hartzen du abiapuntutzat Del Vallek (1988): Korrikaren indargune nagusia bai elementuen erabileran, bai sinboloetan, bai kultur tradizioan babesa duten mekanismoetan oinarritzen dela, nahiz eta gizarte industrializatuaren berezko testuinguru moderno batean antolaturiko ekimena izan. Egun esan daiteke garai postindustrialean eta hipermodernitatearen barruan gertatzen dela ekimena. Hori horrela izanik, Korrikaren iragatean zehar hainbat kontraesan antzeman daitezkeela irizten dio Del Vallek.

‘Sinbologia’, ‘elementu’, ‘sinbolo’ eta ‘tradizio’ kontzeptuen esanahia guztiz garrantzitsua da ikerketaren atal hau ulertzeko. Horregatik, termino horien definizioak labur azalduko dira jarraian. Hasteko, sinboloak aztertzen dituen diziplina sinbologia da, sinbolo desberdinen inguruko legeak, jarduteko moduak eta interpretazio posibleak aztertzen dituen, hain zuzen ere. Diziplina humanistikoa da, letren ikasketaren adarrean, psikologian eta antropologian gehienbat erabiltzen dena, besteak beste. Sinbolo eta sinbologia iturri desberdinen ikerketak garrantzi handia du askotariko kulturen azterketan, gizakiak hasieratik izan baitu sinboloak eraikitze eta irakurtzeko joera (Etecé, 2023). Kontzeptu honetarako sarrera gisa aipatu daiteke sinboloa edozein ideia, objektu, kontzeptu, keinu etab.-en orde dagoen zeozer dela, hura ordezkatzuz eta beste modu baten erakutsiz. Sistema sinbolikoak, bestalde, esanahi-multzak ordezkatzeko dituzten adierazle-multzak dira. Hau da, kultura bateko sinboloen multzoa sistema sinbolikoa da, eta sinbolo bakoitza dagokion sistemaren barruan interpretatu behar da beti. (Fernandez de Labastida, 2016, or. 16)

Elementuei dagokienez, ikergai den subjektuak dituen ezaugarri nagusien inguruan ari da Del Valle (1988). Kasu honetan ikerketa-subjektua Korrika izanik, autoreak Korrika

---

<sup>16</sup> Etxebarriak egindako lana ikerlariak itzuli du euskarara.

deskribatzeko erabiltzen dituen ezaugarri/elementu beharrezkoak hiru dira: hizkuntza, espazioa eta lasterka egitea. Hurrengo paragrafoetan sakonago azalduko da hori. Kultura, edo kasu honetan ekintza kulturala, osatzen duten elementu guztiak (ohiturak, sinesmenak, balioak, erakundeak, objektuak, etab.) oso lotuta daude, sistema integratu bat osatzen dute haien artean (Fernandez de Labastida, 2016, or. 7). Modu horretan, elementuren bat aldatu ezker, gainerakoak ere eraldatuko direla esan nahi du horrek. Amaitzeko, 'tradizioa' Korrikan asko erabiltzen den kontzeptua da. RAEk honela definitzen du kontzeptua: "Albisteak, literatura-konposizioak, doktrinak, erritoak, ohiturak eta abar transmititzea, belaunaldiz belaunaldi<sup>17</sup>" (ASALE eta RAE, 2023). Horrela, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan den hizkuntza, balioak, kultura eta bizitzeko moduak hartzen dira kontuan Korrikaren eraketarako.

Jarraitzeko eta Del Valleren liburua behar bezala kokatzeko, kontuan hartu beharreko ezaugarria da liburua idatzi zeneko garaia. 1988ko testuinguruan idatzitako lana da eta egileak sinbologiaz, tradizioaz, garai hartako gizartearen funtzionamenduaz eta garai hartako euskal kulturaren eta hizkuntzaren historiaz hitz egitean une historiko horretan nabariak ziren elementuak aipatzen ditu; gaur egungoak, aldiz, desberdinak dira eta hori hautematen da Korrikaren deskribapen eta funtzionamenduan. Horrekin ez da esan nahi Korrikaren esentzia eta esanahia aldatu denik: momentu hartan agerikoak ziren euskararen inguruko elementuak eta sinboloak transformatu egin direla azaldu gura izan du egileak.

Ildo horretik, beraz, egileak Korrikaren hiru elementu nagusi nabarmentzen ditu: hizkuntza, espazioa (lekua) eta lasterketa (korrika egitearen ekintza) eta gai horien inguruko ikerketa egiten du, honek guztiak sinbolo desberdinekin eta kultur tradizioarekin duen lotura azalduz (Del Valle, 1988).

Denbora, espazioa, hizkuntzaren presentzia eta transmisioa, lasterketa, Korrikak beragan duen dinamismoa, ekimenak egiten duen sozializazio-prozesu informala eta Del Vallek emakumeek horren eginkizunean duten paperaren lanketa egingo da marko teorikoaren atal honetan. Del Valleren lanetik ateratako sinbolo ezberdinak uztartu dira honetan aurretiaz aipatutako elementuekin lotura eginez. Gainera, Del Vallek askotan aipatu izan du Korrika energia fisikoz eta sinbolikoz beteriko ekintza dela eta horrek bere osagaiak azterketa interesgarria izatea eragin du, bere xarma ulertzeko, eta baita zenbaitetan eragiten duen oposizioa eta arbuioa ulertzeko ere. Horrela, egileak ekimenaren ezaugarriak eta gaitasunak ere landu ditu.

---

<sup>17</sup> Egileak euskaraz idatzi du RAEk gazteleraz eskainitako definizioa.

Horrela, hasteko, del Valle (1988) zehazten duen espazioa (leku fisikoa) eta denboraren arteko bateratzearen logika azalduko da. Korrika iragana eta oraina batzen dituen ekintza dela adierazteko denbora sinbolizatzen duten hainbat sinbolo agertzen dira ekimenean zehar; eta espazioari ere erreferentzia egiten zaio, nahiz eta hainbat muga eta oztopo existitzen diren, Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartzen delako.

Hainbat irakurketa egin ahal zaie Korrika gau eta egunez gelditu gabe eta Euskal Herri osoa zeharkatzearen ideiei ere. Hau da, lurralde osoko ibilbidea egiten da Korrikan helmuga finko batera heltzeko baina bidean buelta dezente ematen ditu. Era berean, euskara bateratuaren aldarrikapena egiten da baina herri bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik. Horrelako kontraesanak behin baino gehiagotan errepikatzen dira Del Valleren etnografian.

Espazioari (leku fisikoa) dagokionez, badaude horren inguruan ikerlariak ateratako hainbat konklusio. Horietatik, nabaria da mugen inguruan egiten duen hausnarketa. Horrela adierazten du egileak bere ideiarik nagusia: "Euskal Herriaren mugako banaketa eskatzen eta babesten duten botere politikoaren aurrean, Korrikak lurralde-batasunaren irudi indartsua proiektatzen du, lurralde, udalerrri, herri eta auzoen arteko zatiketak aitortzen diren aldi berean" (Del Valle, 1988, or. 153).<sup>18</sup>

Hori azaltzeko, Korrikak tradizioan erabilitako sinbologiara jotzen du. Modu horretan, 'muga'<sup>19</sup>, 'mugarri'<sup>20</sup>, 'mugalarri', 'frontera'<sup>21</sup> hitzen definizioak eskaintzen ditu eta horiek hizkuntzarekin duten antzekotasuna lantzen du. Horrela, mugen onarpena eta fronteren ezeztatpena egiten da Korrikan zehar. Mugak maila fisikoan markatzen dituen mugarriaren eta maila sinbolikoan egiten duen hitzaren arteko paralelismoa ematen da. Horrela, hitzaren urraketak mugarria lekuz aldatzearen antza du. Orduan, mugarria jartzeak norbaiti hitza ematea esan nahi du. (Del Valle, 1988, or. 121-153)

Orobat, Korrikaren erritualaren zati garrantzitsua da lurraldearen (espazioaren) eta denboraren artean egiten den bereizketa sinbolikoa, lurraldea zeharkatzen den moduaren bidez, eta norabide eta inklusio mugimendu printzipalei egotz dakiekeen esanahiarekin:

1. Minututik minuturako aurrerapenari eusten dio;
2. herri bakoitzetik igarotzean une jakin batean gertatzen dena gordetzen du, isolatzen du. Hiri eta herri bakoitzaren errealitatea biltzen du. (Del Valle, 1988, or. 193)

Ildo beretik, denboraren etete ezari esanahi dezente atxikitzen zaizkio. 11 egunetan zehar etenik gabeko ibilbideari eusten dion ekimena izatea modu honetan interpretatzen du berak:

---

<sup>18</sup> Ikerlariak euskarara ekarri ditu Del Valle gaztelaniaz idatzitako aipuak.

<sup>19</sup> "Hornitutako edo banakako jabetzako lurralde baten hedadura mugatzeko lursailean ezartzen diren banalerroak dira (Barandiaran)." (Del Valle, 1988, or. 124) "Nekazaritza- eta abeltzaintza-ekonomia batean funtsezkoak diren aberastasun-iturrietako baten banaketa berdintasunezkoa eta proportzionala da." (Del Valle, 1988, or. 148)

<sup>20</sup> "Hala ere, lotura sendoena harriaren esanahiaren bidez ezartzen da, hitzari dagokionez." (Del Valle, 1988, or. 131) Horrela, erabiltzen da mugarri-hitz antzekotasuna.

<sup>21</sup> "Estatuen sorrerarekin lotutako nazioarteko itunen sorrera eta fruitua." (Del Valle, 1988, or. 148)

(Del Valle, 1988, or. 170): "Ordu eta puntu desberdinetatik igarotzea denbora eta espazioa okupatzeko saiakera gisa irakur daiteke. Ikusi dugunez, muga aldi baterako da, eta bere ezarpenak bere erreferentzia du denbora historikoan, eta gauza bera esan daiteke lurraldeari dagokionez."

Espazioak, denborak eta hizkuntzak Korrikan sinbolizatzen dutena azaldu ostean, hizkuntzaren presentziaren garrantzia ere azpimarratu behar da. Korrika sozializazio-prozesu informal bezala zehazturik, hizkuntzarekin berarekin loturiko ezaugarriak kontuan hartu behar dira. Hizkuntza aztertzen diren elementu etnikoetatik nabarmenetakoena izan ohi da, eremu edo lurralde baten kultura zehazten duen osagai garrantzitsuenetariko bat. (Del Valle, 1988) Liburuan Euskal Herrian barrena dauden hizkuntzaren, tradizioaren eta sinbologiaren pertzepzio desberdinak ageri dira, bertan dauden ikuspuntuaren eta bizipenen ugaritasuna mahaigaineratuz. Hori liburu osoan lantzen den gaietariko bat da, baina ez da bakarra. Izan ere, euskararen atzeraldia, belaunaldien arteko transmisioaren etena eta, aldi berean, haren biziraupena erakusten dira, zapalkuntza politikoa eta estatus minoritarioaren gorabeherak. Horrela kontatzen dira euskararen egoerari dagozkion kontraesanak. Korrika sozializazio-prozesu informala dela adierazten denean, bestalde, euskararen inguruan historikoki egon diren arazoaren inguruko kontaketa eta horrek suposatzen izan duen kultura inkonformistaren azalpena atxikitzen zaizkio hurrengo pasartean ikus daitekeenez:

Aldarrikapen politiko eta kulturalen tradizio etengabea duen gizarte batean, hizkuntza eta kulturaren zapalkuntzatik hurbil dagoen esperientzia batean, inkonformismoa eguneroko bizitzako esperientzian sartu da. Hala, Korrika eta haurrak nola sartzen diren ekintza sozializatzailerik gisa ikus daiteke, eta inkonformismoa eta erreibindikazioa elementu positibo eta aglutinatzaile gisa ikusi daitezke. Hori talde-esperientziaren, parte-hartze masiboaren, herri baten eta hizkuntza baten batasunari buruz hitz egiten duten kontsignen, pankarten, iragarki-kartelen bidez gertatzen da. Ez du esan nahi balio horiek errealitatearekin bat datozenik, [...], baina hala transmititzen dira lasterketan zehar. (Del Valle, 1988, or. 44).

Agerikoa denez, aurreko paragrafoan kontraesan bat baino gehiago aipatu ditu autoreak. Inkonformismoa ardatz nagusitzat duen hizkuntza eta kultura baten inguruan eginiko ekintza sozializatzailerik bihurtzeko Korrikak izan duen bilakaera/prozesua umeen parte-hartzearekin; Korrikak euskal lurralde bateratua aldarrikatzeko eginiko hautua, existitzen diren mugen kontra joz; eta, azkenik, iragana orainean gorpuzteko duen eginkizuna izan daitezke, besteak beste, kontraesan horien adibide batzuk. Dena den, eduki kultural eta etnikoari dagokienez, sozializazio-prozesu informalez ari da autorea, pertsona nagusien eta gazteen arteko erlazioa erakutsiz eta hori tradizioaren transmisioaren erakusketa dela azalduz.

Horren harira, Kontekok (2017) behin baino gehiagotan aipatu duen euskararen transmisioaren berezitasuna ere aipatu beharra dago. Egile horrek adierazten du euskara ahozko transmisioan oinarritutako hizkuntza izan dela. Horretan oinarritzen da Korrika gehienbat, eta berezitasun horren konponente garrantzitsu bat da emakumea giltzarri izan dela transmisioan:

“Emakumeak euskararen garapenean egiten duen ekarpena aztertzen denean, transmisoreari garrantzi handiena ematen dion zeregina aztertzen da. Jarduera horrek emakumea lotzen du etxeko gripearen barruan duen zeregin nagusiarekin eta seme-alaben sozializazioan duen erantzukizunarekin. (Barandiaran, O.C., V:135-137; del Valle et al., 1985: 254)” (Del Valle, 1988, or. 49)

Aurreko hiru elementuez gain euskal kulturak eta kirolak duten harremanak ere adiera sinbolikoa du. Iraganean lasterketa luzeak egiten ziren Euskal Herrian, korrika eginez, noski, eta hori indarrarekin lotzen zen. Indarra izateari garrantzi handia ematen zaio euskal kultura tradizionalan. Indartsua izateak nekeari erresistentzia izatea eta Euskal Herrian egiten duen eguraldi txarra jasateko sendotasuna izatea esan nahi zuen eta hori onuragarria zen ezaugarri hori zuen edonorentzako. Horrela, korrikalariak gorai patzen ziren pertsona indartsutzat zituztelako. Gainera, Euskal Herrian barrena lasterketa luzeak egiten ziren lurraldeko hainbat gune zeharkatuz. Herritarrek apustuak egiten zituzten, eta hori kulturaren zati garrantzitsua zen (Del Valle, 1988, or. 156-160).

Hortaz, iraganeko korrikalarien tradizioa eta mugen esanahia batzen zuen erritu bilakatu zuten Korrika: lasterketak presente izan du beti gaur egunera arte iraun duen tradizioan oinarritutako sinbologia hori. Horregatik da hain garrantzitsua tradizioaren eta sinbologiaren baitan eratutako ekintza dela zehaztea.

Amaitzeko, azken ezaugarri bat du ekimenak, ekintzaren dinamismoa lortzeko duen gaitasuna ere nabarmentzekoa baita. Korrikak ekintza gauzatzeko duen modua eta berau orainaldira erakartzeko duen gaitasuna ahalbidetzen duten elementuak aztertzen ditu Del Vallek (1988, or. 197-241). Bere esanetan, zenbait aldarrikapen jasotzen dira, periferikotzat jotzen direnak baina herritar asko kezkatzen dituztenak. Horren adibide izan daitezke, batetik, Korrikaren pertsonifikazio maila desberdinak, eta, bestetik, lasterketak duen ahalmen anplifikatzailea, bai botere gogorazlearen aldetik,<sup>22</sup> bai herriaren kontzeptuaren erabilera eta mezu hedakorraren partetik, hain zuzen ere. Korrikaren arrakasta mezuek ematen duten indarraren araberakoa da, eta herritarren protagonismoa da mezu nagusietako bat (Del Valle, 1988, or. 241). Bide beretik, Del Vallek euskal unitatearen metafora gisa azaltzen du Korrika,

---

<sup>22</sup> Absentziaren presentziari egiten dio erreferentzia egileak, berau falta direnen edo antzinako kulturaren adierazle izanik (Del Valle, 1988).

tradizioa, sinboloak, kultura eta gainerakoak dinamizazio hori ulertzeko funtsezko elementutzat hartuta.

Laburbilduz, beraz, Korrikak, elementuen, sinboloen eta tradizioaren erabilera eginez, hainbat esan eta adierazpen dituela ondoriozta daiteke. Hurrengo diagraman horien sintesia ageri da.

## Korrikaren indargune nagusia

29 responses



1. irudia: Teresa del Vallek aipaturiko sinbolo eta elementuen eskema

### 4.6. KORRIKA KULTURALA

Bere dimentsio orokorrean, Korrikak, lasterketa herriko bat izateaz gain, kultura-ekitaldiak ere hartzen ditu: abestiak, dantzak, antzerki-emanaldiak, lehiaketak. Dena euskaraz antolatua, hizkuntza sustatu eta zabaltzeko, jendea euskara erabiltzera animatzeko eta bizitza errealean duen erabilgarritasuna erakusteko. Horiek guztiek osatzen dute Korrika Kulturala. Kontekori (2019) atentzioa ematen diona da ekitaldi horietako asko auzo bakoitzeko ekimenak direla, guztiz borondatezkoak, antolatzaile orokorren inolako sostengurik gabekoak (Konteko, 2019), “batzordeak” deiturikoetan izan ezik, horietan AEK-ko langile batek parte hartzen baitu; izan ere, batzorde horrek du Korrikari buruzko jarduerak egiteko behar den informazioa. Batzorde horiek Euskal Herrian barrena dauden herri zein auzoetan antolatzen den jende-multzoak osatuak dira eta askotariko ekimenak prestatzen dituzte: Korrikaren inguruko tailerrak, jolasak, hitzaldiak, kontzertuak etab. Horiek, edizio bakoitzeko Korrika zabaltzeko eta ikusarazteko egiten dira, baita Korrika pasatzean horretan laguntzeko eta parte-hartzea sustatzeko ere. Hauek bereziki garrantzitsuak dira herri ez hain euskaldunetan eta lasterketa gaueko orduetan pasatzen denean ere. Dena den, 2024an aipatu den kontu esanguratsuenetariko bat da parte hartzeko jarrera ahulduz doala, modu agerikoan indarra galduz. Batzordekideen arabera, Korrikaren lehenengo edizioetan laguntza dezente jasotzen zen batzordeetatik. Egun, aldiz, geroz eta lan handiagoa egin

behar dute AEK-ko langileek (batzordekide baten komunikazio pertsonala, 2024/03/09).

Horrez gain, badaude erakusketa artistikoak prestatu eta sustatzen dituzten ekimen batzuk ere. Antzerki-ekoizpena, bideo-proiektzio, zuzeneko emanaldi eta marrazki bizidun horiei esker, hizkuntza presente izango da, gehienbat Korrikaren aurreko hilabeteetan. Bestalde, garrantzitsua da nabarmentzea Korrikaren azken edizioetan AEK-k laguntzak eta bekak eman dituela mugimendu artistiko hau sustatzeko. Horrela, Korrika Kulturalaren bitartez, jendarteari bueltan zerbait eskaintzeko ideia izan du AEK-k, batik bat hark Korrikaren alde egindako lanagatik. AEK-k kalitate handiko kultur eskaintza egiten dio Euskal Herriari hainbat modutan, euskal kulturaren askotariko adierazpideak bazter guztietara eramanez. Korrika kulturalako ekitaldi nagusia kultur sorkuntzarako bekaren bidez taxutu izan da, euskal kultura eta Korrika hauspotzeko beti ere (AEK, 2023). Horrela, aurtan, *Badon* izeneko lana izan da Euskal Herria osoan eskaini den antzezlan. Egitasmoa aurreko edizioan aurkeztu ostean, aurtengoan erakutsi da.

#### **4.7. KORRIKA MUNDUAN**

Galdosek eta Amezagak nabarmendu bezala (2023), Kontekok ere (2019, or. 48) adierazi du, Korrika gaur egun erreferente saihestezina dela bai Euskal Herrian, bai Espainian, bai nazioartean. Horrenbestez, Korrikak munduan duen influentziari buruz hitz egin daiteke. Sarreran aipatu bezala, Korrikaren zenbait erreplika egiten dira kontinente desberdinetan. Horietako batzuk euskararen alde, eta besteak, haien hizkuntza minorizatu/minoritarioaren alde.

##### **4.7.1. MUNDUAN ZEHAR KORRIKA**

Euskal Herrian euskararen alde egiten den lasterketa munduan osoan zehar beste hainbat lekutan antolatzen dute. 22. Korrikak 4 kontinente eta 45 hiri hartu zituela azaltzen du AEK-k (2023). Aurtengoa arrakastatsuagoa izan dela dirudi eta munduko toki gehiagotan antolatu dira erreplikak.

Korrikaren hedapena Euskal Herriko lurralde historikotik haratago doa, eta diasporan gauzatzen da, euskararen aldeko Korrika bost kontinenteetan ospatuz. Horrela, 17. edizioa aipa daiteke, esate baterako, orduan Sidneyra eta Berlinera iritsi baitzen lehen aldiz. 2017an 20 herrialdek baino gehiagok parte hartu zuten (Konteko, 2019, or. 48).





2. irudia: Korriken munduko mapa (AEK, 2024)

Euskal Herrikoaz bertakoaz gain, mundu osoan daude Korrikaren eta euskararen alde egin duten euskaltzaleak, eta ia kontinente guztietan gauzatu dira edizio bakoitzarekin bat egin duten ekimenak (AEK, 2023). 2024an, barbarako, Euskal Herrian egiten den Korrika baino egun batzuk lehenago Parisen eta Seulen antolatu zen erreplika bana.

Euskal Herritik kanpo bizi diren pertsonen egoera eta kasuak askotarikoak dira. Alabaina, denen ageriko ezaugarri komuna euskararen aldeko kontzientzia eta horren erabilera da. Horregatik, pertsona horiek euskal diasporaren eta euskal institutuen laguntzarekin, askotan baita AEKrekin ere, Korrika ekimen desberdinak antolatzen dituzte Euskal Herritik at (AEK, 2023).

#### 4.7.2. KORRIKAREN AHIZPAK

Euskara ez den beste hizkuntza gutxituen alde egin diren Korrikaren erreplikak dezente direnez, guztiak aipatuko dira, ondoren euretako bakar baten azalpena txertatuz. Horien artean, beraz, aipatzekoak dira *Ar Redadeg*, bretoiaren alde Bretanian eginiko Korrika; *Correlingua*, galizieraren aldekoa; *La Passem*, okzitaniaren alde eginen duena; *Ras yr laith*, galesaren aldekoa; *Rith*, gaelikoaren aldekoa, Irlandatik zehar lasterka eginen duena; *Sprochrenner*, alsaziera babesten duena; *Lefkantun*, maputheen mapuzugun hizkuntzaren aldekoa; eta *Corrilingua*, Korsika sendotuz.

La Passem lasterketak Korrikaren antzeko formatua du: bi urterik behin lau egunetan zehar Gaskoinia lurraldetik egiten den lasterketa da. Gaskoiniak Biarno, Bigorra, Landak eta Aturri Beherea eskualdeak barnebiltzen ditu eta ekimen horren helburu nagusia da hizkuntza transmititzeko eta balioesteko lan egiten duten proiektuentzako funtsak biltzea (Ligams, 2024). Kilometro batetik bestera testigu bat pasatzen da pertsonen artean eta ikur horrek haien hizkuntza sinbolizatzen du. Ekimen honen bitxikeria bat da bere izenaren zergatia. Bi arrazoi nagusi daude: bata, korrika egiten aurrera jarraitzeko dagoen aurrerapausoari dagokio, haien hizkuntzagatik korrika egiteagatik; eta, bestea, lekukoaren partekatzeari buruzkoa da, hizkuntza batetik bestera pasatu/transmititzeko sinbolo legez (Ligams, 2024). Aurtengo Euskal Herriko Korrikan laguntzen egon diren kideak (furgonetako kideak eta Korrikako arduraduna, besteak beste) parte hartzera joan ziren Gaskoiniara. La Passem lasterketaren kilometro bat erosi zuten eta haien laguntasuna erakutsi zuten. Aurtengo lasterketa maiatzaren 5ean hasi zen eta orotara 1.100 kilometro egin ziren. Horietako 920.kilometroan egin zuten lasterka Korrikakoek, Capbreton herrian, hain zuzen ere.




3.irudia: Korrikaren ordezkaritza Capbretonen lasterketan (AEK, 2024)

## 5. METODOLOGIA

Gizarte-ikerketan honetan, metodologia kualitatiboa baliatu da gehienbat. Oinarrizko ikerketaren izena harturik, fenomeno sozialen batek izan dezakeen arazo zehatzen bat konpontzea baino, ikerketa honen helburu nagusia giza-fenomeno bati buruzko ezagutza teorikoa handitzea da (Juaristi, 2003, or. 24). Hasieran ezarritako eta prozesuan zehar modifikatutako bi ikerketa galderei erantzuteko irakurketak, inkesta, behaketak, elkarrizketak eta egindako etnografiaren analisia izan dira lan honen oinarri.

2024ko martxoaren 14an hasiera eman zitzaion 23. Korrikari, hain zuzen ere. Ordurako abiatua zen lan metodologikoa, marko teorikoan aipatutako irakurgaien analisiarekin, Korrika Kulturean parte hartzearekin, online zabaldu zen galdetegi batekin, zenbait elkarrizketarekin eta hitzaldietan parte hartzearekin, besteak beste. Baina batez ere, Korrikaren 23. ekitaldiaren behaketak osatu du ikerketa honen muina.

Dena den, lan honetan erabilitako metodologia azaltzeko beharrezkoa da egindakoa kronologikoki esplikitzea. Horretarako, ikerketa hau fase desberdinetan banatu da: Korrikaren aurrekoa, Korrikaren bitartekoa eta Korrikaren ostekoa. Fase bakoitzaren arabera fokua eta informazio-jasoketa modu desberdinetan jarri eta bideratu dira.



### 4. Irudia: ikerketaren fase desberdinak

Korrikaren aurreko lanketan ahalik eta informazio gehienaren jasoketan jarri da arreta. Atal horretan abiapuntutzat erabili den informazio-jasoketan lan akademikoaren lanketaz aparteko informazio-iturri nabarmenak egon dira. Dezente dira Korrika aurrera ateratzeko elkarrekin lan egiten duten pertsonak eta horren inguruko datu asko dauzkate. Horregatik, ikerketa honetan zeregin horietan ibiltzen diren zenbait lagunen esanak jaso dira. Ez da izan

informazio-jasotze formala: ikerketa hau hasitako momentutik Korrikaren hasierara arte egon den denboran, Bizkaian Korrikaren inguruan lanean ari ziren zenbait pertsonarekin solastu da ikerlaria, Korrikaren inguruko ahalik eta bisiorik handiena lortzeko.

Modu horretan, esan daiteke ikerlariak sakoneko zenbait elkarrizketa burutu dituela. Sakoneko elkarrizketa “fenomenoen esanahiak sakonean aztertzen dituen teknika da; alegia, adierazgarritasuna ziurtatu ezin duten baina zenbakien azpian ezkututzen den informazio konplexu eta aberatsa sakonean ezagutzen laguntzen duten teknikak” (Juaristi, 2003, or. 139). Juaristik aipatzen duenez, “teknika honen bidez elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu daiteke” (2003, or. 139).

Horrela, beraz, atal honetan alde batetik, lan akademikoan lanketatik lortu da informazioa bai marko teorikorako, bai etnografiaren eraketarako; beste aldetik, pertsona desberdinekin izandako solasaldietatik jaso da hainbat argibide, eta hauek osatu dira tutoreekin izandako solasaldiekin, zenbait hitzalditara joatearekin, Bizkaiko zenbait Korrika batzordetako kideekin izandako berbaldiekin, besteak beste, eta, amaitzeko, Korrika Kulturalean prestatu izan den *Badon* opera garaikidera joatearekin. Dena den, fase honetan erabilitako informazio-iturririk nabariena inkesta izan da. Inkestaren zergatia eta beronen edukiaren parte desberdinak inkestari eskainitako atalean agertuko dira.

Korrikaren bitarteko fasean aurtengo edizioaren inguruko informazio-jasoketa egin da, bai etnografiaren bitartez, bai Korrikaren aurreko prestaketen analisiaren bidez. Aurreko prestaketa bi ekintzatan zentratuta dago. Lehenengo ekintzan furgonetako taldeko kideen ezagutza izan zen. Horretan, egun-pasa antolatu zen Arabako upategi batean. Txango hori elkarrekin tartetxo bat pasatzeko egin zen, baita kideek elkar ezagutzeko ere. Lan honen ikertzailea izan zen kide berri bakarra, beraz, horri dagokionez ez zen lan handirik egon. Topaldi horretan, Korrikako furgonetan jarduteko beharrezkoak diren ezaugarriak azaldu ziren, kideek aurreko esperientzietatik zeuzkaten oroitzapenak partekatzeaz batera.

Bigarren ekintza Arantzan egin zen Korrikaren simulakroan parte hartzea izan zen. Jarduera hori martxoaren 10ean egin zen Arantzan, Nafarroan, eta herri horretan Korrikaren simulakro bat egitea zen ekitaldia, inoiz ez baita posible izan lasterketa ofiziala handik pasatzea. Gainera, AEK-k bere barnetegiak antolatzen dituen herrietako bat da Arantza. Harreman estua dute beraz euskalduntze-alfabetatze erakundearekin, eta Korrikakoek uste izan zuten ekimen hori egitea modu polita zela han egiten duten guztia eskertzeko. Orobat, 23. edizioko furgonetak probatzeko eta Korrikarentzat beharrezkoak ziren azken ukituak egiteko balio izan zuen hitzorduak, baita kide berriek lasterketaren funtzionamendua bertatik bertara proba eta uler zezaten ere.

Aurreko fasearen antzera, badago fase honetan garrantzitsuena izan den ikerketa-metodologia bat Korrikako furgonetaren baitatik eginiko etnografia, hain zuzen. Horren

ezarpena eta jarraitutako pauso desberdinen kontaketa etnografiari eskainitako atalean agertuko dira.

Amaitzeko, azken fasea dago. Atal honetan, Korrikaren osteko lanketa egin da. Horretan, datuen analisia, emaitzen jasoketa eta interpretazioa eta ondorioen formulazioa osatu dira. Horretarako, hasierako pausoa behin-behineko ikerketa-galderak zehaztea izan da. Bertatik abiatuta, etnografiaren eta inkestaren datu-jasoketa egin da.


Inkestaren datu-jasoketa egiteko, Nekane Arratibelekin, HUHEZIKo metodologia kuantitatiboan adituarekin, egin da kontrastea eta datuen laginak eta horiek ikerketa-galderekin duten erlazioa finkatu dira. Horrez gain, etnografian jasotako datuen transkripzioa egin da eta furgonetako zenbait kiderekin kontrastea ere burutu da, ideia gehigarriren bat izatekotan horiek txertatzeko. Hori guztia tutoreekin izandako jarraipenaren laguntzarekin ere egin da. Datuen bilketa ahalik eta modu ordenatuenean egiteko, Juaristik (2003, or. 24) markaturiko irizpideak jarraitu ditu ikertzaileak.

Amaitzeko, bigarren ikerketa-galderari ahalik eta erantzun osatuena eskaintzeko, Korrikako koordinatzaile izan diren hiru pertsonarekin elkarriketa egin da Korrikaren bilakaeraren inguruko perspektiba zabalagoa izateko.

Aurretik aipatutako hiru atalez gain, informazio-bilketa bi fasetan bana daiteke. Aurreko eskeman, informazioa grafikoki nola jaso den erakusten duten bi erronbo ikus daitezke. Erronboak irekitzeak esan nahi du prozesua ahalik eta informazio gehien biltzeko unean zegoela, nola ikerketa-galderak hala ideiak ahalik eta zabalaren utzita, eta, hala, lortzen ari zen informazioak fokua eta hurrengo pausoa markatzen zituen. Lehen erronboaren itxiturak ideia guztien lurreratzea, haien azterketa eta galderen zehaztapena adierazten ditu. Informazioa biltzeko bigarren faseari hasiera emateko, informazio gehiago biltzen jarraitu behar da, baina ezarritako oinarri batzuen barruan. Eta, azkenik, itxiera ondorioak idazteari eta prozesuaren amaierari dagokio.

Iristen ari ziren ondorioen aldeko edo kontrako informazioa etengabe biltzeko prozesua izan da, lanari ematen zitzaion ikuspegia ahalik eta egokiena izan zedin. Ikertzailea *Design Thinking* izeneko ikerketa-prozesuan oinarritu da hein handi batean. Tresna honen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da erabiltzailearentzat dela, kasu honetan ekimenaren bizkarrezur den Korrikarentzat eta beronen antolatzaile den AEKrentzat. Horregatik, *Design Thinking* delakoaren bidez modu egokienean sortutako ideia eta prozesuek balioa ematen diote ekimenari. Izan ere, Korrika ahalik eta modu zabalenean ezagutzeko diseinatu dira ikerketan jarraitu diren pausoak (Design Thinking España, 2024).

Hurrengo kronograman ageri dira ikerketa honetako informazio-jasoketa faseak eginkizunen arabera: asteka eginiko lana zehaztuta dago kronologikoki zeuden beharretan oinarriturik. Horrekin, ikerketa-metodo bakoitzari eskainitako denbora ikus daiteke.



5.Irudia: ikerketa-prozesuaren kronograma

Aurreko faseen azalpenarekin batera eta hasieran azaldu den bezala, garrantzitsua da ulertzea ikerketa-galderak moldatuz joan direla prozesuan zehar. Jasotako informazioaren arabera ere zehaztu delako ikerketa honen erdigunea. Dena den, fokua ia-ia berdina izan da prozesu osoan zehar. Horregatik, geroz eta informazio gehiago izanda, ikerketa-galderak hobeto zehaztu ahal izan dira.

Behin puntu honetara iritsita, gogora dezagun zeintzuk izan dira ikerketa gidatu duten abiapuntuko galderak:

1. Zein elementu eta sinbolo nabarmentzen dira 23. Korrika honetan? Zein emozio gailentzen dira Korrika honetan?
2. Zein izan da Korrikaren bilakaera Teresa del Valleren antropologia lanetik (4.Korrikatik) aurtengora arte (23.Korrika)? Zein desberdintasun antzeman daitezke?

Ikerketa-galdera horietatik, beraz, jasotako informazioa aztertzeko, begirada hiru adierazletan jarri da: emozioak, sinbologia eta bateratzeko ahalmena. Jakinik Korrikak beste hainbat gai aztertzeko aukera ematen duela, ikerketa honetan, hiru adierazle horien muga lausoetan murgildu da ikerlaria gehienbat (Galparsoro, et al., 2017). Dena den, ez da lan erraza eta izan daiteke zenbait unetan informazio-bilketa bere eremutik atera izana.

Horregatik, eta ikerketa honen zentzua modu egokian zentratzearen, ikerketaren hasierako informazio-arakatze fasean, ez da inongo fokurik zehaztu. Ikerketaren funtsa aurretik nahiko zehaztua izanik, ikerketaren lehenengo urratsetan ahalik eta informazio gehiena biltzea izan da zeregina. Informazio hori barneratu, hausnartu eta ordenatu ostean, fokua hiru adierazle horietan jartzea erabaki da.

Aurrekoari jarraipena emanez, metodologiaren baitan hainbat aspektu daude kontuan hartzeko. Batetik, Korrikak Euskal Herriko jendearengan sortzen dituen emozioak lan honen ikergai nagusienetarikoa izanik, ahalik eta pertsona gehienen bizipenak eta emozioak bildu beharko liratekeela aurreikusi dela. Bestalde, lan honek aukera ematen du Korrika gertatzea posible egiten duten pertsonen (koordinatzailea, teknikariak, dibulgatzaileak, AEK-ko langileak, etab.) eta horretan laguntzen dutenen (prentsako pertsonak eta furgonetan doazen boluntarioak) bizipenak eta sententzioak jasotzeko. Beraz, aurretik aipatu denez, beste informazio-iturri bat 'etnografia' izeneko prozesua izan da: ikerlariak 11 egunetan furgoneta barruan jaso dituen bizipenetatik eta emozioetatik bideratu da ikerketa.

Esan beharra dago, halaber, ikerketa honen iturri garrantzitsu bat Korrikan hasieratik parte hartu duten pertsonen esanak direla. Haien bizi izan dute ekitaldi honen bilakaera, eta horietako batzuek gertu jarraitzen dute oraindik, beharrezkoa balitz laguntzeko prest beti. Horiek beste ikuspegi bat eman dezakete, Korrikak parte-hartzeari, aldarrikapenei, eraginari eta abarri dagokienez izan duen aurrerapenari buruz hitz egin baitezakete. Modu horretan, diskurtsoen eta ikuspuntuen aniztasuna bilatu da ikerketan, ahalik eta zabaldu eta kritikoen izateko.

Bukatzeko, datuak lortzeko azken estrategia izan da hizkuntza-mugimendu hori osatzen duten hainbat erakunderen material dokumentala berrikustea eta aztertzea. Informazio gehien eskaintzen duen erakundea AEK bera bada ere, kooperatiba honek lankidetzaren dezente egin ditu ikerketa honetarako garrantzitsuak diren hainbat arlotako profesional eta erakundeekin. Behin kontu hauek argituta, ikerketa burutzeko eginiko inkestaren, lan etnografikoaren eta elkarrizketen inguruko argibideak emango dira hurrengo lerroetan.

## **5.1. INKESTA**

Inkesta hau egitearen ideia Ane Elordi Korrikaren koordinatzaileak emandako hitzaldi batetik sortu zen. Kontua da Ane Elordik hitzaldi parte-hartzaile bat eman ziela Mondragon Unibertsitateko Lehen Hezkuntzako lehen mailako 50 ikasle ingururi. Hitzaldi ireki horretan ikasleek, aste kulturalean zeudela aprobetxatuz, Korrikaren inguruko solasaldia izan zuten. Haien Korrikari buruz zuten ezagutza lantzea eta horri buruz mintzatzea zen ekintza egitearen zergatia.

Egun horretan, galdera desberdinen bitartez, azkenean Korrikaren inguruan zegoen

desinformazioaz eta atxikimendu eskasaz hitz egin zen. Euskal Herrian bizi diren pertsonen polarizazioaz ohartu ziren bai Elordi, bai ikertzailea. Nola Korrikan jarduten duten pertsonen pentsamenduek eta pertzepzioek ez zuten bat egiten unibertsitate hartako gazteriaren usteekin. Une horretan burbuiletan bizitzeko dagoen ohituraz konturatu ziren ikertzailea eta koordinatzailea. Nolatan leku berean bizi diren pertsonak, gainera adin-desberdintasun handirik ez dutenek, bizipen guztiz ezberdinak dituzten oihartzun hain handia duen ekimen honen inguruan.

Bada, haiek erantzundakoei erreparatuta, dezente dira Korrika ez ezagutzearen arrazoiak. Horien artean, badaude, besteak beste, ikastolan landu ez izanagatik Korrika asko ez ezagutzeko arrazoa (Bilboko gazte baten esana), bertan nola parte har daitekeen ez jakiteagatik horretara ez hurbiltzeko joera hartzea edota euskalgintza euskararen polizia balitz bezala ikustea. Bigarren zergatiarekin bat egiten duen gertakizun bat datorkio burura ikertzaileari: Baionan gazte batekin egon zen berbetan Korrika handik igaro zenean. Gazteak 14 bat urte zituen eta lekukoa eraman nahi zuen baina ez zekien nola egin, beraz, ikertzaileari deika hasi zen eta hau berarekin hitz egitera jaitsi zen furgonetatik. Bera frantsesez mintzo zen eta, hortaz, ikertzaileak ingelesez erantzuten zion, mutikoak euskara askorik ez zekielako. Nabaria zen mutila euskara ikaslea zela baina ez zuen hizkuntza guztiz ulertzen. Orobat, ez zuen Korrikaren funtzionamendua osotasunean ulertzen. Mutila prest zegoen diru kopuru txikia ordaintzeko baina ez zen kontziente momentu horretan ezinezkoa zela lekukoa hartzea.

Nahiz eta ikasle dezente Korrika maite zuten, Mondragon Unibertsitatean izandako hitzaldi horretan argi geratu zen Euskal Herrian hainbat perspektiba eta bizipen biltzeko aukera dagoela. Umetan erabilitako hizkuntzak, jatorriak, ikastetxeak, inguruneak, lagunarteak eta familiak euskararen suspertzean eta erabileran duten garrantzia argi geratu zen une hartan. Batzuetan, gaztearen hautua izan daiteke euskara aukeratzearen eta erabiltzearen arrazoa, baina jaiotzetik jasotako identitate eta kulturaren arabera izaten da normalean pertsona horren etorkizuneko hautua.

Esperientzia horretatik irten zen inkesta egitearen ideia. Gizarte-ikerketaren baitan, ikerlari askorentzat baliozko ikerketa bakarrak dira inkestak, pertsona-talde baten kontaketa onartzen baitute, laginketa-errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbidetzeaz gain (Juaristi, 2003, or. 85). Juaristik azaltzen duen moduan, “inkesta galdeketa baten bitartez informazioa jasotzeko teknika da” (2003, or. 85). Zentzu horretan, kanpo-portaera behatuz ezin dutela gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, hori da inkestak duen lehen oinarri metodologikoa. Beraz, esanahi hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena pertsonari beraiei galdetzea dela ondorioztatzen da horrekin. Horregatik, inkesta eta etnografia-lana egitean, ahal den informazio gehiena bil daiteke.



Bere bigarren oinarri metodologikoa, inkestetan hartzen diren laginen ingurukoa da. Populazioaren lagin bat aztertuz horri buruzko informazio adierazgarria lor daitekeela aipatzen da. Dena den, laginketa horrek inkestena azaleko informazioa soilik bilakatzea eragiten du, nahiz eta populazio baten adierazgarria izan (Juaristi, 2003, or. 86).

Hirugarren printzipio metodologikoa da talde bateko iritzi, portaera, jarrera edo joeren zenbaketa adierazgarria dela. Zenbaketa honek, hain zuzen ere, erabili ahal diren tekniken fidagarritasuna eta lortutako emaitzen balioa ezagutzea ahalbidetzen du (Juaristi, 2003).

Horrela, bost galdera sinple eta labur prestatu ziren propio diseinaturiko inkestan. Geroz eta galdetegi laburragoa izan, orduan eta esfortzu edo denbora-tarte handiagoa hartzen dute elkarrizketatuek normalean. Horregatik, galdetegi honetako bost galderetatik bi aukera desberdinen artean hautatzekoak izan dira, eta beste hiru, berriz, erantzun luze eta hausnartuak idazteko baliaerriak. Modu horretan, zenbait datu kuantitatibo eta beste batzuk kualitatiboagoak jaso dira. Hortaz, ikerketa honekin hurrengo informazioa izan da 5 minutuko galdetegi honetan jaso nahi izan dena:

- Alde batetik, Korrika hasi baino lehenago nagusi diren emozioak. Jendeak, horren kontzientzia izanik, alderdi emozionala pizten zaion ala ez jakiteko.
- Halaber, Korrikan zer nolako parte-hartzea izaten duten jakitea ere garrantzitsua da. Bizkaiko batzorde batzuren informazioa jaso ostean, nabaria izan da parte-hartzea geroz eta eskasagoa izaten dela Euskal Herriko eskualde batzuetako Korrikaren antolaketan. Horregatik, datu hau izatea ere interesgarria da, Korrikaren bilakaeraren parte da-eta.
- Bestetik, parte-hartzaileen adina eta jatorria jakitea interesgarria zen, helburua baitzen Euskal Herriko herrialde guztiak ordezkatzeko besteko pertsona-kopurua izatea, adin-tarte guztietako lagunak bildurik.
- Amaitzeko eta Ane Elordik Mondragon Unibertsitatean emandako hitzaldia kontuan izanik, ea Korrika zer den dakiten ere galdetu zaie: alde batetik, Korrikaren definizio arrunta, formala, idaztea eskatu zaie inkestan, eta, ondoren, haienzako Korrikak duen garrantziaren berri ematea ere iradoki zaie. Modu horretan, lehenengo galderak haien Korrikarenganako jakituria zehazten du, bigarrenak haien bizipen eta sentimenduetan zentratutako erantzuna biltzen duen bitartean.

Eskuratutako erantzunei dagokionez, aurreikusita zegoena baino erantzun gehiago lortu dira. Hasieran, Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo posta-zerrenda orokorrera bidali zen inkesta, adin-tarte antzekoa eta Euskal Herriko gune anitzetako jatorria zuen gazte-talde baten erantzunak izateko, eta harrera polita izan zuen. Ondoren, familiartekoei eta zenbait laguni bidali zitzairen galdetegia, gertukoenen esperientziak ere jasota izateko. Horrelako

pertsona-multzoa kontuan izatea aurreikusita zegoen. Hala ere, familiakoak eta lagunak inkesta haien ingurukoei bidaltzen hasi ziren. Aurreikusita zegoen laginketa, beraz, aldatu egin da azkenean.

Horregatik, elur-bolaren laginketaz hitz egin daiteke inkesta honetan. Elur-bolaren laginketa mota honetan, metafora baten antzera batzen zaio informazio-iturri bati beste bat, eta beste bat, segida osatuz eta informazio dezente lortzeari begirako prozesua burutuz. Elur-bolaren bilakaeraren antzekoa da informazi-jasoketa prozesua: bolari geroz eta buelta gehiago eman, orduan eta handiagoa izango da berau; izan ere, “laginean parte hartzen duten pertsonak beste pertsona batzuk ezagutzeko informazioa ematen digute” (Juaristi, 2003, or. 74-75).

Modu horretan, inkestan parte hartzen duten pertsonen inkesta partekatzea eskatzen zaie, informazio gehiago eta osatuagoa jaso ahal izateko. Kasu honetan, galdetegia, ia-ia nahi gabe, jende dezenteri partekatzen hasi zitzaion eta azkenean, Euskal Herri osoko ahalik eta gune gehienetara heltzeko esfortzua egin behar zela erabaki zen. Horrela, 952 erantzun lortu ziren inkestan. 952 euskaldun desberdinen erantzunak, hain zuzen ere. Dena den, ikerketa honetan 952 erantzun horiek errepresentatzen dituzten 200 pertsona aukeratu izan dira denbora kontua dela-eta.. Erantzun duten pertsona guztien jatorriaren kontaketa egin da eta horren arabera aukeratu dira 200 erantzuleen profilak, jatorria kontuan hartuz eta proportzioak gordez.

## **5.2. KORRIKAREN BAITAKO ETNOGRAFIA**

Ikerketa hau burutzeko jarraitutako metodologia esanguratsuena etnografiak zehazten dituen pausoetan oinarritu da. Arrietak (1996) adierazten duenez, ‘etnografia’ kontzeptua kolokan eta ziurgabetasunean izan den ikerketa-esparrua izan da: antropologiaren etnografia izeneko adar hori ziurgabea eta esanahi orokor gabea dela aipatzen du egile horrek.

Dena den, aldagai horren konplexutasunaren kontzientzia osoa izanik, Arrietak uste du esparru horren kontzeptualizazioan eta sailkapenean mugak jartzea halabeharrezkoa dela, ez baitu antropologiaren beste adarren eraketaren zentzua guztiz antzematen aurretik etnografia prozesua burutu ez bada.

Hori gogoan izanik, ikerlan honetako etnografia egiteko pare bat gida erabili dira prozesuaren bidelagun. Lehenengoa, Intef-ek (Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Prestakuntza Institutu Nazionala) Francisco Ferrándiz-en gidaritzapean eginiko ‘*Como hacer una mini-etnografia*’ (2017) gida da. Lan horretan garrantzi handia ematen zaio ikergai den ekimenaren edo kulturaren barnean bizitzeari. Ezezaguna den kultura ezagutzeko gida da, beraz, eta maiz aipatzen da norbanakoarentzat bitxia den kontuen ikerketa ere egin ahal

dela. Dena den, hainbatetan norbanakoaren kulturaren edo bizitokiaren ikerketa egitea zailagoa dela aipatzen du Ferrándizek eta zeregin horretan bidelagun izan daitezkeen teknika dezente azaltzen ditu.

Horien artean, hainbat ezaugarri kontuan izan behar direla aipatzen da haren lanean, nabarmenak izanik, batetik, landa-lana egitearena, bestetik, ikertzen den pertsona-taldearen lekuan jartzearen beharra, eta, azkenik, geure burua desnaturalizatzeko ahalmena izatearena, hau da, gure kultura desberdintzat, arrarotzat hartzeko gaitasuna izatea, hau da, sozialki sortu den zerbaiten modura (Ferrándiz, 2017, or. 4-6).

Ildo beretik, Ferrándizek etnografia egiteko 5 pauso desberdin zehazten ditu (2017):

1. Diseinua
2. Landa lana
3. Erregistroa
4. Landa-lanetik irteteko modua
5. Ikerketarekin zer egin

Etnografiaren diseinua, metodologiaren zati honetan azaltzen ari denaren barnean kokatuta egongo litzateke. Informazioa nola jaso, noiz eta zein modutan zehazten du atal horrek. Horrez gain, pauso horretan malgutasuna ere izan behar dela aipatzen da. Irudimen etnografikoa ikertzaile batek azterlan bat modu esanguratsuan ulertzeko duen gaitasuna da: bere agertokiak, osagaiak, deribatuak eta garapena. Ikerketa originalak asmatzeko eta prozesuen arteko loturak ezartzeko trebetasun horrek badu alde intuitibo bat eta beste bat, berriz, esperientziarekin edo alde aurreko prestakuntzarekin zerikusia duena. Hau da, nahiz eta irudimena/sormena izan, landu beharreko elementua dela aipatzen du testuak. Trikimailu bat: ikertu nahi duzuen gaiari buruz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta bideratuago egongo dira ikerketaren aurreko senak edo errutinak. Hori, alde batetik, onuragarria da ikertzailearentzat; baina beste aldetik, aurreiritziekin lan egitea adieraziko luke (Ferrándiz, 2017, or. 8).

Eman beharreko pauso desberdinen artean, landa-lanean burututako ikerketa-ekintza orok alde aurreko ibilbide-orri bat behar duela aipatzen du Ferrándizen gidak. Diseinuak eta landa-lanak bat egiten duten momentua da hau. Horri esker, galdu edo zoratu gabe lan egin ahalko litzateke, ordena eta aurreikuspena beharrezkoak baitira. Badago kontuan izateko baieztapen bat, hots, ikerketaren diseinua baldintzatuta egon daitekeela dauden baliabideen eta denboraren arabera eta baita ikerketa-ingurunean integrazteko aukeren arabera ere. Prozesuaren adierazpen formala da, eta berau ahalik eta modu sistematikoenean osatzeko saiakera egin behar da (Ferrándiz, 2017, or. 9):

- interesak definitu
- ikertu nahi dena zehaztu
- lekua aukeratu

- parte-hartzaileei aurrea hartzen saiatu eta daukaten garrantzi erlatiboa erabaki
- teknika egokienak aukeratu
- ikerketa-ekintzetarako kronologia zehatza finkatu

Aurreko guztia zehaztu ondoren eta behin etnografian sartuta egonda, badaude egileak zehazturiko zenbait aholku (Ferrándiz, 2017, or. 14-17). Horietatik, ikerketa honetan erabili direnak azalduko dira. Parte-hartzeari dagokionez, parte-hartze aktiboa eta behaketan oinarritutakoa burutu da. Modu horretan, ikerketaren hasieran datu-bilketa egiteko modurik egokiena zehazten jardun du ikerlariak. Hasieran, furgonetan jarduteko lana eta etnografia bateratzeko modurik egokiena aurkitu da, aurretik zehaztutako diseinua kontuan izanik. Ondoren, jada informazio-jasoketaren diseinuaren plangintza guztiz onartua izanda, informazio-jasoketa egin da, geroago azalduko den moduan. Modu horretan, etnografian errutina bat hartzen saiatu da ikerlaria eta, amaitzeko, gainerako parte-hartzaileekin harreman sendoa izaten saiatu da, ekimenari buruz haiekin hitz egiteko eta haien jakituria ulertzeko. Orobat, aipatu beharra dago Korrikan parte-hartzeko dauden modu gehienak frogatu dituela ikerlariak, eta, horrela jokatuta, gainerako pertsonen lekuan jartzea lortu du.

Jan Masschelein-ek proposatutako metodologia ere nabarmentzekoa izan da ikerketa honetan (Masschelein, 2020). Autore horrek maiz aipatzen du ikertzailea ikerketa etnografiko bat egiteko prest dagoenean, aurreiritziekin edo aurrelanketaren bat eginda hurreratzeko dela. Horrek, informazioa bere osotasunean jasotzeko ahalmena murrizten du eta ez du detaile askotan fokua jartzeko aukerarik ematen. Horregatik, ikertzaile horrek aurrelanketa dezenterik edo aurreiritzirik gabe joateko ideia proposatzen du, ahalik eta irekien, modu horretan detaile, emozio eta sentimendu ahalik eta gehien biltzeko.

Puntu horretara helduta, *attentive* eta *intensive* terminoen arteko desberdintasuna azaltzen du Masscheleinek. *Attentive* jarrera litzateke ikerketa-gunera inguratzea aurreusterik gabe, jarrera ahalik eta irekienarekin, edota gutxienez norbere aurreusteen kontzientzia izanda eta horiek albo batera uzteko borondatearekin, inguruak esango digunari irekita. Aldiz, *intensive* jarrerarekin joanez gero, inguru bati buruzko alde aurretiko ideia batekin eta bertan eragiteko asmoz, ezingo da gertatzen denaren ehuneko handi bat jaso, aurretiaz izandako pentsamendu edo iritzi desberdin horiek ardazten dutelako informazio-jasoketa eta informazioaren momentuko hausnarketa (Masschelein, 2019).

Hori guztia kontuan izanik, eta Masscheleinek berak bere ikasleekin hiri desberdinetan burutzen duen "Walking and mapping" ariketan jarraitzen duen prozedura aintzat hartuta (komunikazio pertsonala, 2020/11/20), erabaki zen honako hau izatea Korrikan zehar erabiliko zen metodo etnografikoa:

- Ordubetea behin, taldeko kide batek argazki bat hartuko zuen eskuman eta beste bat ezkerrean, mekanikoki.
- Ordubetea behin, taldeko kide batek grabagailua aktibatuko zuen giro-soinua grabatzeko 30 segundoz.
- Informazio hori guztia eta oharrak ikertzaileak Korrikara eramandako landa-laneko koadernoan jasoko ziren.

Etnografiaren atala azaltzen amaitzeko, erabilitako azken informazio-iturria labur azaltzea baino ez da geratzen: “Event ethnography: Studying power and politics through events” artikulua (Koch, 2023) erabili da erreferente gisa. Korrika bera *event* bat denez, gertakari horiek ikertzeko zehaztu den modua kontuan hartzea ere erabilgarria izan da prozesuan zehar.

Ekitaldi etnografia (*event ethnography*) tresna metodologiko bat da, eta etnografiaren baitako ikerketa erabiltzea eskatzen du. Jardunaldi edo gertakizunak denboran mugatuta dauden jarduerak dira, bilerak eta esperientzia kolektiboak kasu, eta inplikatzeko dute askotariko hedadura, antolaketa eta ardatz tematikoak izan ditzaketen ekitaldien etnografiak, parte-hartzaileen behaketaren bidez burutzen direnak (Koch, 2023, or. 6). Korrika, beraz, etnografia mota honen barnean sar daitekeela aipa daiteke. Aktoreak, imajinarioak eta materialak leku jakin batean (errealean edo digitalean) biltzen diren lekuak dira ekitaldiak. Elkartzeak botere-harreman berriak eratzen ditu, mantentzen ditu, birmoldatzen ditu, sartu berriak barnerraten ditu, balantza egiten die, uzurtu egiten ditu edo, besterik gabe, martxan jartzen ditu (Koch, 2023, or. 2). Modu horretan, metodologia murgiltzaile gisa, etnografiak behaketa parte-hartzailea, elkarrizketak eta beste behaketa modu asko hartzen ditu, mundua harreman sozialen bidez ulertu ahal izateko.

Behaketa parte-hartzaileaz gain, ikertzaileek integra ditzakete, besteak beste, elkarrizketa formalak eta informalak, itzaleko parte-hartzaileen teknikak, analisi semiotikoak eta testualak eta metodo bisualak (argazkia, adibidez) (Koch, 2023, or. 6).

Laburki azalduta, beraz, etnografia atalean 11 egun eta 10 gauko Korrikaren murgilpen osoa egin da. Horretarako, aurretiaz diseinatutako informazio-jasoketa baliatu izan da. Modu horretan, ekimenak iraun duen aste eta erdi horretan argi egon da aztertzailearen zeregina: landa-lana egiteko ikerketa koadernoan, argazki-kamera eta soinuaren grabaziorako erreminta erabili dira informazioa jasotzeko. Horrez gain, antolaketako hainbat kiderekin eta parte-hartzaileekin solasaldi informalak egin dira. Amaitzeko, Jan Masscheleinek aipatutako *attentive-inttentive* egoerak kontuan izan dira, aurreiritzirik gabe joateko eta ekimenak berak erakusten duena ahalik eta modurik fidelenean jasotzeko eta horretaz gozatzeko.

### 5.3. ELKARRIZKETAK

Elkarrizketen diseinua egiterakoan aintzat hartu da desberdinak izaten direla Korrika baino lehenago, bitartean eta ostean sortzen diren emozioak. Batzuetan aipatzen da pertsona batzuentzat Korrikaren efektuak berau pasatzen den sasoian eta pare bat egun gehiago irauten duela. Ondoren, bakoitza bere egunerokora bueltatzen da Korrikan hain indartsu/ozen azaleratu diren aldarrikapenak alde batera utzita. Bestetan, kontatzen da Korrikak euskaraz egiteko hainbeste indar ematen duenez, zenbait pertsona euskaraz bizitzen saiatzen direla hilabete batzuetan zehar, baino gero etsi egiten dutela. Badaude ere zenbait pertsona zeintzuengan efektu handia izaten duen ekimenak; horiek euskara presenteago izaten dute egunerokoaren zenbait momentutan.

Horregatik, lehenago aipatuenez, ikerketa honen lehenengo ideien artean bazegoen Korrika aurretik, bitartean eta ondoren zenbait elkarrizketa egitearena. Horregatik, une finkoentzako zenbait galdera edo gai prestatu izan dira horiei buruzko elkarrizketa informalak egiteko. Elkarrizketak irekiak izan dira, modu informalean eginak eta alde zehar gehiegi prestatu bakoak. Horregatik, bai Korrika hasi aurretik, bai hark iraun bitartean zein horren ostean egindako solasaldi informalak erakutsiko da jarraian. Honako hauek dira ikerketa honetarako interesgarriak izan diren informazio-iturri batzuk:

- Korrika hasi aurretik jasotako informazioa: korrika kulturala, herrietan dauden batzordeak, kolaborazioak, etab.
- Korrikan zehar izandako solasaldietatik jasotako informazio garrantzitsua.
- Behaketa: Korrikaren ibilian bertan, Korrika pasatu baino lehenago, korrika pasatu berritan eta ondoren behatutakoa eta koadernoan edo audioen bidez jasotakoa.
- Ane Elordi Korrikako koordinatzailearen laguntza ere izan dugu, bai aurrelanketa egiteko, bai emaitzak ustiatzeko. Bere presentzia garrantzitsua izan da prozesu osoan zehar, Korrika ondo ezagutzen duelako eta lanaren gai nagusien esangurari buruz duen iritzia aipatzen joan izan delako.
  - Horrez gain, lan honen amaieran Korrikaren bilakaerari buruzko elkarrizketa bat egin genuen horren inguruko informazio osatuagoa izateko.
- Korrikaren antolaketan parte hartu duten pertsonekin hitz egin zen eta punturik garrantzitsuenak jaso ziren emaitzetan txertatu ahal izateko. Ikerketa honetan Korrikan izandako lehen esperientzietatik azkenengora arte kideekin izandako jardun esanguratsuak jasotzen joan direla, alegia.

## 6. EMAITZAK

Emaitzen atal honetan bide desberdinetatik (etnografia, inkesta, elkarrizketak, etab) ateratako informazioa agertuko da, atal bakoitza ikerketa galdera batekin lotuta. Modu horretan, bi zati nagusitan banatuko da atal hau:

1. 23. Korrika honetan nabarmendu diren elementu, sinbolo eta emozioak.
2. Korrikaren bilakaera 4. Korrikatik gaur egunera arte.

Zati horietan, ordea, beste azpi-atal batzuk ageriko dira, kasu bakoitzean erabilitako metodologiaren arabekoak direnak.

### 6.1. 23. KORRIKAKO ELEMENTU, SINBOLO ETA EMOZIOAK

Aurtengo Korrikan nabarmendu diren elementu, sinbolo eta emozioen ikerketa egiteko erabilitako informazio-iturririk esanguratsuen etnografia izan da. Metodologiaren atalean adierazi denez, ikerketa hau aurrera eramateko prozesua ez da izan datu-bilketa formala, ekimenean erabateko murgiltzea egiteko hautua baizik. Horregatik, modu deskriptiboan adieraziko dira ekimenean zehar jasotako ezaugarri eta gertakari desberdinak.

Horrela, lehenik eta behin, furgonetan dauden pertsonen eginkizunak eta funtzionamendua azalduko dira. Hau da, txandak eta parte-hartzaileak nola antolatuta dauden eta haien eginkizunak zeintzuk diren. Ondoren, ikertzailearen esperientzien bidez, Korrikako furgonetako kideek izan beharko lituzketen ezaugarriak eta haien artean sortzen diren harremanak azalduko dira. Horren ostean, ikerketa etnografiko sakonetik ateratako datuen eta Izar Mendiguren prentsa-langilearekin izandako solasaldiaren txanda izango da.

Landa-lanaren bidez bildutako informazioaren azalpena amaitu ondoren, Korrika hasi aurretik bidalitako inkestaren emaitzak azalduko dira. Bertan, pertsona bakoitzak ekimen honi atxikitzen dizkion emozio, elementu eta sinboloak jaso dira. Beraz, aztertutako gaiaren esperientzia pertsonalagoa jasotzea izan da bide hori jarraitzearen asmoa. Zati hori grafikoen eta taulen bidez erakutsiko da gehienbat, eta lortutako emaitzen sintesia egingo da.

Azkenik, Korrika honetan egindako prentsa-lanak irakurri eta laburtuko dira. Horrela, 11 lasterketa-egunetan bizitakoaren hirugarren ikuspegia lortuko da. Horrek balioko du edizio honetan nabarmentzen diren sinbolo, elementu eta emozioen deskribapena osatzeko.

#### 6.1.1. 23. KORRIKA: IRUNDIK BAIONARAT

Korrikaren azken edizio honek Irundik Baionarako ibilbidea bete du 11 egunez eta 10 gaez. Irundik abiatu eta Ipar Euskal Herrirako muga gainditu; Iparraldeko hiriburua biren ongietorria jaso; Nafarroako hiriburura heldu bertako hegoalderainoko bidea abiatuz; Arabako herri txikietatik bidea eginez Gasteizera sartu; berriro Nafarroako Iparraldearen zati bat zeharkatu;

Gipuzkoa bisitatuz Bizkairanzko bidea sortu; Gipuzkoara berriz sartuz Donostia zeharkatu; eta berriz Iparraldera sartu, bertako azken hiriburua ezagutzeko. Euskal Herri osoko hainbat eta hainbat euskaldunek euskaraz bizitzeko aldarrikapenean hartu dute parte korrika eginez, mezu bat zeraman lekukoa haien artean banatuz: 2.800 lekuko-aldaketa, 4.900 lekuko-eramaile eta 11 egun zein 10 gau igaro dira horrela (AEK, 2023).

Korrikaren Irundik Baionarako ibilbidea osatzea ahalbidetu dute parte-hartzaileek. Irribarreak, negarrak, poztasuna, kirola, nekea, esfortzua, aldarrikapena, borroka, ahalduntzea, harrotasuna eta herri baten indarra batu dira edizio horretan. Inoizko Korrikarik erraldoi eta anbiziotsu eta jendetsuena izan da aurtengoa eta, Korrikaren lelopean oinarriturik, herria harro egoteko modukoa izan dela iritzi dio AEK-k (AEK, 2023).

Hori, gainera, 'Harro Herri' leloarekin bat eginez lortu da. Dezente dira lelo horren inguruan emandako hitzaldiak, idatzitako iritzi-artikuluak, abestutako kantak, baita Garazi Arrularen eskutitza ere, eta guztiek antzeko esanahia dute. 'Harro Herri' konplexurik gabe euskalduna den herria aktibatzen dugun behar eta eginkizunari dagokio, euskaraz egiteko aurrerapausoa batera egiteko, iraganean existitzen zen kolektibotasunaren indarrarekin.

Ikerketa honetan Bizkaiko zenbait Korrika batzorderekin hitz egin da horiei buruzko informazioa izateko eta horiek Korrikari buruz duten iritzia jasotzeko. Marko teorikoan aipatu denez, badago Korrikak dituen zenbait alde ez hain onuragarri eta horrek parte-hartzaileek daukaten ekimenarenganako inplikazio mailaz hitz egiten du. Ildo beretik, beraz, badaude zenbait batzorde inplikazio handia dutenak; beste batzuek, ordea, jende-kopuru eskasa dute parte-hartzaileen artean. Horrek lan-karga handia suposatzen die AEK-ko langileei (batzordekide baten komunikazio pertsonala, 2024/02/22). Ane Elordik ere bat egiten du batzordeekin batzuetan gertatzen dena azaltzerakoan eta honela deskribatzen ditu bai gaur egungo egoera, bai aurtengo leloaren nondik norakoak (komunikazio pertsonala, 2024/02/19):

“Militantismoa ez da lehen bezalakoa, eta 'Harro Herri' horretarako egin da. Herria berriro mugiarazteko eta herriak bere efektua berriro egiteko. Lehen Korrika batzordeek asko laguntzan zuten herri bakoitzeko prestaketaren nondik norakoetan.

Orain, AEK-koek egiten dute prestaketa ia osoa.”

Horren haritik, aurtengo omendua ere aipatzea halabeharrezkoa dela aurreikusi da. Bada, herriaren aktibazioa eta mugimendua eskatzen dituen ekimen baten alde egin du Korrikak: Azterketak Euskaraz kolektiboarena, hain zuzen ere. Zehazki, baxoa eta brebeta<sup>23</sup> euskaraz egiteko borrokan aritzen direnei eta aritu izan direnei omenaldia egiten zaie. Euskara haien aldarri nagusia izanik, “beren ikasketen une erabakigarri batean, herritar euskaldun gisa

---

<sup>23</sup> Ipar Euskal herrian selektibitate azterketari deitzen zaio baxoa. Brebeta, berriz, Frantziak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma da.



dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen ginetik eta beren notetan ondorioztatu kalteak onarturik” (AEK, 2023).

Kolektibo hau, hortaz, gazteek osatzen dute, guraso zein irakasleak bidelagun izanik horren aldarrian eta gatazkan. Euskararen ekintzaile direla adierazten du Korrikak, haien protagonismoa aldarrikatuz eta, haien bidez, 35 urtean hainbat belaunaldiren lana aitortzeko izan duten aukera seinalatuz. Aitortza hau Iparraldeko gazte euskaldunen egoera ezagutarazteko egin da: Euskal Herri osoan gazte horiek haien ama- eta ikasketahizkuntzarekin duten kalifikazio-aukera ezaren kontzientzia izateko, hain zuzen ere.

### **6.1.2. FURGONETAN DAUDEN PERTSONEN ZEREGINA**

Aurretik aipatu denez, zaila da furgonetan egiten/gertatzen denaren kontaketa formala osatzea. Dena den, hori ahalik eta zehatzen azalduko da atal honetan, ikerketan zehar eginikoa eta etnografiaren nondik norakoak errazago ulertu ahal izateko.

Korrikako furgonetan gau eta egun aritzen diren pertsonak bi taldetan banatzen dira, talde bakoitza gutxi gorabehera 12 pertsonakoa izanik. Kideek zeregin desberdinak betetzeko gaitasunak izan behar dituzte, horien artean nabarmentzekoak izanik argazkigintzan aritzeko konpetentzia, mikroan hitz egiten aritzeko indarra, furgonetak gidatzeko ahalmena eta korrika egiteko gaitasuna, besteak beste. Horrez gain, hurrengo ataletan aipatuko den ezaugarri garrantzitsu bat ere inportantea da, hau da, talde-giro egokia mantentzeko jarrera izatea, baita arreta osoa eta edozein unetan beharrezkoa dena egiteko prestutasuna izatea ere.

Bi talde horiek 14 orduko txandak egiten dituzte. Berdin du gauean edo egunean zeharreko txandak izatea, edozein ordutan sartu eta irtetzeko prest egon beharko dira parte-hartzaileak. Aldaketen mekanismoa esanguratsua dela esan daiteke. Korrika ez denez inoiz gelditzen, bai txanda-aldaketak, bai esatarien aldaketak, bai prentsa-taldekoen joan-etorriak Korrika bitartean egiten dira. Furgonetako txanden kasuan, atzeko furgoneta aurreratu egiten da eta Korrika baino lehen zehaztutako kilometro batera doa beste txandakoen bila. Beste taldekoek afaldu, lo egin eta gosaldu duten tokitik kilometro horretara trasladoko furgoneta eta Hamaika telebistak utzitako kotxea erabiliz hurbiltzen dira, maleta eta guzti. Momentu horretan eta Korrika hurreratzen doan bitartean, bi taldeetako motxilen elkartrukea egiten da eta bakoitza bere taldean zehaztutako postura joaten da.



#### 5. Irudia: Azken txanda-aldaketa egin baino lehenagoko momentua

Hau da, batzuk aurreko furgonetara doaz gidari, kopilotu, argazkilari, kamerari, korrikalari (lekukoa, pankarta, korrikalariak, Korrika orokorrean, ondo doan ziurtatzen duen pertsona) eta musikako kudeatzaile lanak egiteko. Atzeko furgonetan gidari eta kopilotu lana dago gehienbat. Normalean atzeko furgonetak deskantsatzeko, komunera joateko eta beharrezkoa den janaria eta kafea erostera joateko balio du. Batzuetan Korrikatik aldentzen da erosketak egiteko eta txandaren amaieran komuna garbitzeko eta dena atonduta uzteko ere erabiltzen da.

#### 6.1.3. UPATEGIRA BISITA

Korrika hasi baino lehenago eginiko txangoa deskribatzea interesgarria dela aurreikusten da, berau aztertuta furgonetan doan taldearen barruan dauden jarreraren eta tratuen inguruko ideia bat osa baitaiteke. Metodologiaren atalean kontatu den moduan, Korrikaren inguruan eginiko ikerketaren barruan Arabako upategira eginiko egun-pasa dago sartuta dago. Egun horretan, furgonetan arituko zen taldearen topaketa eta elkar-ezagutza gertatu zen.

Furgonetan gertatzen diren kontuen deskribapena eta aurre-kontaketa egitea zaila denez, ez baita lortzen bizitakoa azaltzeko esaldi ezta hitz egokirik aurkitzea, anekdotak kontatu ziren egun hartan. Dezente ziren kideek kontatutako kontu/gertakari desberdinak, gehienbat aurreko Korrikan bizitako unerik txarrenak edo muturrenekoak. Dena den, egun poztasun handiz gogoratzen dituzte anekdota horiek.

Kontaketa horietatik interesgarria izan daitekeen informazioa zera da, bertoko kide izateko


garrantzitsuak diren izaera eta portaeraren ingurukoa. *Furgoneteroek* aipatu zutenez, garrantzitsua da abileziaren bat izatea (korrika egiten ona izatea, mikroan egoki jardutea, gidatzen trebetasunak izatea edo argazkilaria izatea, gehienbat) baina garrantzitsuena taldean jarduteko abilezia izatea da, izaera solidarioa eta besteen lekuan jartzeko ahalmena izatea, hain zuzen ere, 11 egun eta 10 gau irauten duen esperientzia bizia baita Korrika eta beste 11 lagunekin bizikidetza errazteko gaitasuna izan behar du kide bakoitzak.



6. Irudia: Urtarrilak 20-Bastidako Upategiko bisita

#### **6.1.4. ARANTZAKO KORRIKA**

23. Korrika hasi baino egun batzuk lehenago Korrikaren simulazioa egin zen Nafarroako Arantza herrian. Hobeto zehaztuta, 23. edizio horretako furgonetek eta antolakuntzako kideek edizio hori abiatu aurreko igandean prestaketa saioa egin zuten Arantzan, bertako biztanleriak KorrikArantza lelopean prestaturiko lasterketan (Ttipi-Ttapa, 2024). Nahiz eta euria gogotik egin, herritarrek ez zioten parte-hartzeari uko egin eta denak pozaren pozez hurbildu ziren ekimenera: “Hitzordu ederra eta hunkigarria izan zen, jendetsua eta koloretsua” (Ttipi-Ttapa, 2024). Ekimen honen eraketaren zergatiak asko ziren. Horietan nabarmenena, AEK-k Arantzako biztanleriari bertan egiten dituzten barnetegietako jendearekin elkarri eragiteko duten prestutasuna eskertze aldera prestaturiko ekimena izan zela hura. Normalean Korrika ofiziala ez denez herri horretatik igarotzen, horren simulakro bat egitea okurritu zitzaion. Horrela, beraz, edizio horretako furgoneten probaketa, kideen prestakuntza eta elkar ezagutzeko aukera bertan egiteko aprobetxatu zuten Korrikakoek.



### 7. Irudia: Arantzan eginiko Korrika simulakroa (AEK, 2024)

Sei kilometroko ibilbidea prestatu zuten Arantzako herritarrek eta bertako 23 eragilek hartu zuten lekukoa ibilbide horretan. Horien artean, hurrengo hauek (Ttipi-Ttapa, 2024): Zahar Txoko erretiratuen elkarteko eta jubilotekako lagunak, Pelle Ttiki haur txokoko tikiak, Herri Kirol Taldeko gazteak, Mozorro Beltzak, DBHko ikasleak, trikitalariak, Haur Hezkuntzako ikasleak, Lehen Hezkuntzako ikasleak, Mikel Karrera Arantzako presoaren senideak, zerbitzuetako ordezkariak, Mozorro Zuriak, gazte asanbladako kideak, Ekaitza Elkarteko ordezkariak, Arantza Bizirik taldeko kideak, guraso elkarteko ordezkariak, dantzariak, talde feministako kideak, Bortzak Bat kooperatibako ordezkariak, irakurketa taldekoak, Aterpeko lagunak, udal ordezkariak, KorrikArantza antolatu duen Uskarantza taldekoak eta mezua irakurri zutenak.

Sinbolikoki potentzial handia zuen hautua egin zuten KorrikArantza kilometroetako arduradunek, azken metroetako lekuko-eramaileak euskaldun berriak baitziren. Horrela, haiek markatu zuten ibilbidearen azkeneko etapa, amaierako ekitaldi txikian lekukoan zegoen mezua irakurriz. Hona hemen mezutik hartutako esan batzuk (Ttipi-Ttapa, 2024):

“Ezin da ukatu arantzarrak berdintzen gaituena euskara eta euskararen arnasmune izaera dela. Gu harro gaude egunero euskaraz bizi garela, harro euskarari bizirik kontzen diogulako, eta hori da era berean Euskal Herriari egiten diogun ekarpena (...) Euskara dugunok euskarari kontu egin behar diogu (...) eta euskararik ez duenari euskararen mundura ongietorria egin behar diogu (...) Gure inguruan euskara bizirik dugu, baina horrekin ez gaude salbu (...) Arnasmunea gara, baina lasaigunea ez. Gaur barrenean

dugun harrotasun hau izan dadila motorra elkarlanean aitzinera segitzeko. *Arantza zer?*

*Uskaraz leher. Korrika zer? Uskaraz leher."*

Horrekin batera eta bertso batzuk bota ondoren, hurrengo Korrikako edizioan ekimena Arantzatik igarotzea eskatu zuten. Jai herrikoia, inspiratzailea, aktibatzailea eta benetan potentzial handia izan zuena izan zen hura.



8. Irudia: furgonetako lantaldea (AEK, 2024)

### 8.1.1. ETNOGRAFIA LANA

*“Ahoa bizi-bizi  
Prest bi belarriak  
Eskuz esku heldurik  
Lehertu eztarriak  
Argazki bat ipini  
Lasterka egina  
Bihotz, muxu, irrintzi  
Nik bai eragina!”  
(23.Korrikako abestia)*

Atal honetan ikerketaren fokurik nagusia agertuko da, lan etnografikoa. Hainbestetan azaldu denez, sortzen eta sostengatzen dituen emozioengatik da hain garrantzitsua Korrika, euskal kultura eta euskararen alde egindako esfortzu handiagatik eta eratua dagoen horrenganako atxikimenduagatik, besteak beste. Horregatik, atal honetan 23. Korrikan zehar sortutako hainbat momentu kontatuko dira, emozioekin lotura estua dutenak, ikerketa honen irakurlearen barrua mugitu nahian.

Horretarako, egindako sakoneko murgilketatik ateratako eta landutako datuak eskainiko ditu egileak. Era berean, emozioak kontatzea lan zaila dela kontuan hartuta, ekimenaren ibilbide

osoan prentsa-arduradunetarikoa izan den Izar Mendiguren Cosgayarren laguntza izan du egileak. Taldeko parte-hartze eta sormen prozesu baten bidez, biek lortu dute Korrikaren edizio honetan gertatutakoa kontatzeko gidoi bat sortzea, eta kazetariak gehitu dituen esamoldeak erantsi dira, idazkiaren zati batzuk pertsonalizatu ahal izateko.

### **8.1.1.1. LEKUKOA, ESANAHIEN LEKUKO**

Lekuko-aldaketak adina esanahi ditu Korrikak Mendigurenentzat. Hirugarren aldia du AEKekin auzolanean doana, prentsa-taldeko kide gisa. “11 egunez hamaika istorio, emozio eta abentura kontatzen ditugu AEKren komunikazio kanaletan -sare sozialetan, irratietan, ikus-entzunezkoetan eta abar- zein karreraren jarraipenerako bestelako medioek eginiko eskaerei erantzunez”. AEK laguntzeko hartzen ditu oporrak beste komunikazio proiektu bateko langile denak (Aiaraldea Ekintzen Faktoria), eta ez da damutzen :

Niretzat opari bat da auzolanean AEK laguntzea Korrika bezalako ekimen baten bozgorailu, ahots eta begirada izanez. Izan ere, gure begiekin ikusten duguna kontatzen dugu sare sozialetan, irradi konexioetan, etab. Korrika ez da 2.792 kilometro gau eta egunez geratu gabe egitea bakarrik, herri oso bat norabide berean, etenik gabe, eta euskal hizkuntzarekiko konpromiso eta babesa erakutsiz bat egitea da (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10).

Magia adina esanahi sinboliko ditu horrek, bere ustez: “AEK eta Korrika dira gaur egun Euskal Herriko 7 lurraldeak lotu eta zeharkatzen dituzten bakarrak. Korrikari esker dakite Enkarterriko umeei Iparraldean azterketak eta ikasketak euskaraz egiteko borrokatzen ari direla euren adinekoak. Euskal Herriko mapa hain distortsionatua dagoen garai digitalean, bestelako begirada eta bizi-ikuspegia lortzen du AEK-k, euskara erdigunean jarrita”. Hau esanda, 23.edizioak utzitako bizipenetatik ondorioztatu du emozio edo eraginaren zerrenda:

- Lurralde kohesioan, giltzarri
- Mugak gainditzeko ekimena
- Belaunaldiartekotasuna nonahi
- Kulturartekotasuna
- Interseksionalitatea
- Trabesti eta bestelako bazterreko gorputz, genero eta mugimenduak erdiguneratzea
- Euskara ikasleen ahalduntzea
- Mota guztietako omenaldiak: aitortza kolektiboak
- Landa-eremua eta lan-mundua euskalduntzea
- Zainduak eta zaintzaileak izatea une berean
- Euskal Herriko paisaiak
- Korrika presente ez dagoenean

### 8.1.1.2. LURRALDE KOHESIOAN, GILTZARRI

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa euskaratik elkartu eta indartzeak badu garrantzia, lurralde kohesioaren ikuspegitik. Naziotasuna azaleratzen du Korrikak bere horretan eta bere baitan, euskal hizkuntzatik euskararen herriaren isla baita. Kohesioa izendatzen denean, berau ez da lurraldekotasunean bakarrik gorpuzten: milatik gora kultura-, kirol- eta euskara-elkarte zein eragile sozial batzen ditu, alderdi politikoak eta gehiengo sindikala barne. Ideologikoki eta sinbolikoki aniztasuna da nagusi: “Izugarrria da AEK-k jasotzen duen babesia Korrikarekin eta euskararekin bat egiten duen norbanako, kolektibo, eragile zein lan-munduko taldeen partetik: euskararen herriaren aniztasuna, indarra eta bizitza erakusten ditu” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10).

Horren adibidetzat du Izar Mendigurenek, esaterako, ‘Azterketak euskaraz’ ekimenaren nazio-oihartzuna, eta Euskal Herriko ikastetxe zein haur eta gazteek Iparraldeko egoera salatzeke eta elkartasuna adierazteko karreran zehar ateratako kartulina sortak, edota kamiseta berdeak:

Gogoratzen dut Iparraldean zehar -desordutan ere- zenbat gazte, guraso eta haur ikusten ziren karro barruetan kamiseta berdeekin euskaraz ikasteko eskubidearen alde. Esango nuke, aurren, Korrikak ez ezik Euskal Herria osoak aitortu eta omendu duela Iparraldeko mugimendu honek egiten diharduen lana. Belaunaldi berrien iruditegian zein nazio eta hizkuntza ikuspegian euskara erdigunean jartzeko pausoak eta aldarriak herritar askorengan utzi du marka (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)



#### 9. Irudia: Azterketak Euskaraz kolektiboaren aldeko aldarriak (AEK, 2024)

Ane Elordik askotan aipatzen duen ezaugarrietako bat da Korrika kohesioa eta bateratzearen sinboloa dela (komunikazio pertsonala, 2024/02/19): “Korrikak duen izaera bateratzailea da

garrantzitsuena. Lekukoa norik eramaten duen zein elkartek, etab. Askotariko iritzidun pertsonak batzea lortu dute, *'lo imposible'*. Batzuetan lekukoa ere elkarrekin eramaten dute.” Horren adibide gisa hurrengo hauek aipatu daitezke:

- Sindikatuek batera hartzen dute lekukoa.
- Hezkuntzako arlo desberdinak batzen dira Korrikan (pribatua, kontzertatua eta publikoa).

Korrikakoek jakin dute formula zaintzen eta mantentzen. Ildo horretan, marketin kanpaina onak egiten dira, abestiak, iruditegiak, etab. asko landu eta zaintzen dira. Horrela, gutxi gorabehera milioi bat parte-hartzaile izatera heldu da ekimena.

### **9.1.1.1. MUGAK GAINDITZEKO EKIMENA**

Mugak gainditzeko ekimena da Korrika. Zenbat Korrika muga, hainbat helmuga plazara litezke. Euskararen herria denona izateko Irungo zubiko ekimena izan da 23. edizioak utzitako irudi eta jauzi esanguratsuenetako bat: 42 etorkinek zeharkatu zuten Espainia eta Frantzia arteko muga ofiziala lasterketari esker, zarpantzar, txalo eta ikurrina artean. Bidasoa Etorkinen eta Irungo Harrera Sarearen kilometroan izan zen une hori, eta, Izar Mendigurenen arabera “muga zubi bilakatu zuten”.

Irunen bezala, beste hainbat txokotan ere ireki zuten bidea migratuen kolektiboek zein harrera elkarrekin, oroitu duenez: “Batez ere, Hondarribian, Baionan eta mugatik gertu etorri berrien komunitateak eta euskararenak elkarrekin sortutako babes-sareak ikusi izan genituen” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10). Euskal Herriaren kultur aniztasunaren ikur den “Euskal Herria anitza panpin erraldoia, altueran eta luzeran dragoiaren pare oso handia eta koloretsua dena” hiri nagusi guztietan egon zen, horrek irudikatzen duen guztiarekin. Era berean, nazioarteko toki ezberdinetatik herri txikiak etorri eta euskara ikastea erabaki duten kideen irrikak eta emozioak lekukoa hartzean, ez du parekorik, ezin da hitzez azaldu furgonetatik aurpegi horietan ezkututzen den ahalegin, ilusio eta konpromisoa. Alegia, jatorria eta ibilbide edo ezagutza edozein delarik ere, euskararen herrian lehen leerroan egoteko aukera, eskubidea, zilegitasuna eta aitortza soziala. Akaso, Korrika da denok maila, posizio edo estatus berean kokatzen gaituen ekimen gutxienetako bat, antolatzaileen aldetik.





10. Irudia: etorkinak Irungo muga igarotzen (AEK, 2024)

### 9.1.1.2. BELAUNALDIARTEKOTASUNA NONAHI

Adinari dagokionez, mundu guztiak eta edonola har dezake parte Korrikan. Adina eta bakoitzaren egoera ez da oztopo izan sekula: Jubilatu Elkarteak, Nagusien Egoitzetako kideak, eskolak eta guraso elkarteak, besteak beste, animatzen dira normalean lekukoa hartzera, baita lasterka egitera ere. Funtsean, edozein eragile edota norbanako, eta zentzu berean pertsona eta kolektibo guztiak jasotzen dute ongietorria, denak direlako beharrezko euskararen aldeko ekimenean eta beronen biziberritzean.

Ildo beretik, mota askotako parte-hartzeak ageri dira Korrikan zehar, nabarmentzekoak izanik honako hauek: ikastetxeetan kartelak edo puxikak jartzea; haurrak ikastolaren kanpoaldean txaloka eta poz-pezik begira egotea, txiki guztiak ezin baitira irakasle gutxi batzuren kontu egon; nagusiak haien egoitzetatik edota kale edo tabernetatik Korrika pasatzen ikustea, etab. Horrela, Mendigurenek horietariko momentu batzuk ekarri ditu gogora:

Kontaezina da nagusien egoitzetatik edota haur-eskoletatik karrera pasatzen denean zenbat txalo-zaparrada jasotzen diren hesiez bestaldetik. 'Ezin dugu zuekin batera joan, baina zuekin eta bide berean gaude' islatzen dute euren esku-kolpe eta aurpegiek; nolabaiteko 'zerbait gertatzen ari da eta gu ere parte gara, ez ahaztu' esateko modua ere bada. Hori ere bada Korrika: etxebizitzetako laugarren pisuan argia ikustea familia bat txaloka dagoelako gauean babesa ematen, edota Seguran bezala Nagusien Egoitzako 80

urteko 20 pertsona elkarren eskutik ikustea lekukoa hartzen, badoan beste belaunaldi baten erritmo eta beharretatik (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala, 2024/05/10).

Bereziki oroitzen du Segurako momentua AEK-ko kideak, inpaktantea baitzaio hain jende edadetua (80 urtetik gorakoak) zutik edo gorpil aulkietan, elkarren eskutik helduta giza-kate formatuan pankarta bailiran ikustea, atzean herri osoa txaloka dutela, 2-3 minutuz:

Hori 22. edizioan izan zen, baina aurten gurpildun aulkietan irudi antzerakoa ikusi dugu. Oiloipurdia jartzen zaizu irudi horren atzeko mamiari erreparatzean: frankismo garaian euskararen debeku eta zigorrak jasan zituzten horien gorputzei arnas-hots berezia darie; irmotasunarena, urteetako transmisioarena, isilpean eta agerian eginiko lan guztiarena... eta Segura osoa -mila lagun herri txiki batean- txaloka eta oinez ikustea... Izugarria da. Isilean edo apartekorik esan gabe, gauza asko esaten ditu KORRIKAK edozein momentutan. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala, 2024/05/10)

Mendigurenen hitzetan, lekukoa hartu edota inguruan dagoen edozein pertsona, eragile edo entitateren atzean euskararekiko abiapuntu, ezagutza, bizipen eta ibilbide ezberdina dago, "eta baita konpromiso maila ere, jakina". Kontxi Laspiurren adibideak ere argi islatzen du hori: 100 urte beteko ditu 2024an, eta Eibarren AEK-ko euskara irakasle izandakoa da, baita Berbalagun taldeetan jardundakoa ere. Hargatik omendu zuten kilometro berezia oparituta. "Euskaraz bizi naiz eta euskaraz hilko naiz 100 urte eta gero", zioen furgonetaren zain zegoela jendearen besarkada eta hunkidura artean. Izar Mendigurenek Korrika iritsi aurretik eta gero izan zuen harekin egoteko aukera, aitortu digunez:

Prensa taldekoak bere testigantzak hartzera eta bera ezagutzera hurbildu ginen. Hamaika Telebista eta Berrian daude bere hitzak jasota. Jendetza hurbiltzen zitzaion agurtzera eta eskerrak ematera, urduritasun eta emozioz blai igaro zituen lekukoa hartu aurreko minutuak. Pasarte hori ez dut ahaztuko: badoan belaunaldi baten aitortza, merezimendu eta mezuak balio handia dauka. "100 urte eta gero oso pozik nago badakidalako euskaraz jaio eta hilko naizela" zioen, guau. Hori entzuteak eta horri ahotsa jartzeak emozionalki eta historikoki barrenak mugitzen dizkizu. Furgonetatik abiadura jaitsi zenez -beste askotan bezala- Kontxa Laspiurrenen momentuan, *furgoneteroak* Kontxa jendartetik babestera joan zirenean, mikrofonoa hartu eta bere istorioa kontatu nuen; zuzenekoari esker, betirako grabatua eta hedatua gera dadin. Gogoratzen dudan aldiro begiak malkoz betetzen zaizkit, Eibar eta Kontxa pertsonalki gutxi ezagutu arren. (Mendiguren, 2024/05/10)

Jende asko izan daiteke Kontxa, bakoitzak eginiko ekarpenari erreparatuta.

Orainean, edadetuek ez ezik, eskola-komunitateek ere sekulako erantzuna eman diote Korrikari. Esaterako, Zalla inguruan gurasoek gaupasa antolatu zuten ikastetxean, goizeko ordu txikietan pasako zelako Korrika. Edota, Larrabetzun, guraso asko batu ziren eskolara, ume txiekiek bertatik bertara ikus eta bizi zezaten Korrika, irakasle baten eskuetan ez uzteko talde guztia. Beste era batera esanda, beraz, Korrikak komunitatea antolatzeko gaitasuna du, euskararen alde jarduteko eta orainean eta etorkizunean euskaraz egiteko.




11. Irudia: adinartekotasuna 23.Korrikan (AEK, 2024)

### 9.1.1.3. PARTE HARTZEKO AUKERA DESBERDINAK

Edadetuek edo adingabeek egin duten antzera, badaude lasterketan zehar beste modu batzuetara parte hartu duten pertsonak edo kolektibo desberdinak. Batzuk, lanagatik, ezin izan dute korrika egiten parte hartu baina animatzera hurbiltzen dira. Beste batzuek, kristoren ekarpen politak egin dizkiote Korrikari bai lasterketa ondo joateko laguntza emanez, bai marrazkiak egiten, bai bertsoak botatzen, bai diskurtsoak ematen, bai esatari moduan furgonetan jarduten, bai pankartak ekartzen, bai traktoreak eramaten, etab.

Ibilbidearekin aurrera egiten laguntzen duten pertsona-multzo handiak ere badaude. Hori apur bat kontestualizatuz, azaldu beharra dago askotan Korrikak aurrera jarraitu ahal izateko errepidea mozten duten pertsonak daudela. Batzuetan tokiko poliziek egiten dute lan hori. Baina badaude beste gunek batzuk non poliziek ez duten edo ezin duten lagundu. Leku horietan, Gasteizen, Biarritzen eta Baionan, kasu, parte-hartzaileen talde handi batek lan handia egiten du horretan laguntzeko. Horrela, eskertzekoak dira Gasteizko txirrindularien

lan handia, Iparraldeko motorzaleen ezinbesteko beharra eta Korrikaren Iparraldeko azken etapako txirringularien esfortzu handia.



### 13. Irudia: Korrikari eginiko ekarpenak (AEK, 2024)


Horrez gain, aurten oso nabaria izan den aukera izan da esatarien parte-hartzea. Korrikaren eskualde bakoitzeko esanak tokiko kontuekin pertsonalizatuagoa egon ahal izateko, herri multzo edo hiri bakoitzeko pertsona bat edo bi igotzen ziren furgonetara mikroa hartu eta korrikalariekin hitz egin eta solasteko. Gainera, esatariak benetan eskertutako lana izan da, Korrika beste perspektiba batetik bizi ahal izan dutelako. Horien artean, nabarmentzekoak dira haien herriko jendea animatzeko burutu diren zenbait diskurtso eta ekintza, faktore emozionalean eragin handia izan baitute.

Azpirarratzekoa da, halaber, eskualdeko kotxearen funtzioa: AEK-ko langile batzuk joaten ziren eskualde bakoitzeko kotxean eta euren funtzioa zen Korrika ondo zihoala baieztatzea eta edozein premia sortuz gero, laguntzeko prest egotea.

Horietako bakoitzari ilusioa ikusten zitzaion aurpegian. Nahiz eta gaueko ordu txikietan jardunean egon, poz-pez egiten zuten haien beharra. Nabaria zen haien emozio eta zirrara.



13. Irudia: parte-hartzeko modu desberdinak (AEK, 2024)



14. Irudia: Sudur Gorriek emandako detailea (AEK, 2024)

#### 9.1.1.4. KULTURARTEKOTASUNA

Kulturak ematen dio nortasuna, besteak beste, herri bati. Kulturaren baitan, baina, kultura ezberdinak daude, herrialdearen arabera kultur eta bizi kodeak -hizkuntzarenak barne-aldatzen dira. Horrek esan nahi du, harremanak izateko moduak, espazioak, ohiturak eta lengoaiak ere askotarikoak direla gure herrian. Gure herria, herri ugariz osatua dagoela; horrek suposatzen duen guztiarekin:

Korrika ere -hein txiki batean- horren adierazle da. Palestinaren aldeko aldarriak eta sareak sarri ikusi izan ditugu erdigunean. Kultur edota erlijioei lotutako adierak

ere bai: Ramadan garaia izanagatik ere hainbat saharauiar batu ziren Korrikara. Emozioak ere badu pisua hor: Aiaraldean, esaterako, ramadanean zebilen gazte batek kilometro mordo egin zituen; eta nahiz eta furgonetatik ura eskaini ez zuen bere sinismena alboratu; eta bi jomugak bateratzeko gai izan zen. Hots, muturreko egoeretan dauden munduko herritarrek ere euren ekarpena egin nahi izaten diote Korrikari, zenbakitan gutxiengoa badira ere esanahiari so; euskarak baduela nolabaiteko garrantzia edo esangura euren bizitzetan ondoriozta daiteke hortik. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala, 2024/05/10).

Munduko euskara ikasleak ere geroz eta gehiago dira. Esaldia beste era batera irakurrita: munduarentzat euskara bada hizkuntza. Eta Korrikan euren parte-hartzeak munduarentzat -norbere munduarentzat soilik ez- gure hizkuntza eta alfabetatzean egiten den lanari aitortza egiten dio. Urduñan, adibidez, Lina izeneko kolonbiar batek eraman zuen lekukoa, AEKn hilabete daraman etorri berriak. Euskararen eta AEKren komunitateak munduari begiratzeko eta gure munduetan etorri berriak integratzeko egiten den ahalegina bistaratzen du horrek, baita neurri oso txikian bada ere munduak AEKn pausatzeko duen heldulekua ere. Euskal Herrian zein munduan, AEK-k zein euskarak badutela pertenezia-sentimendua, presentzia eta aitortza, alegia.

#### **9.1.1.5. INTERSEKZIONALITATEA**

Interseksionalitateari dagokionean, nola bistaratzen da halako ekimen batean? Hamaika adibide topa litezke, 11 egunen bueltan: Euskal Herriko Gorren Elkartearen kilometroa, buru-gaixotasunak dituztenenak, etorri berrien elkarte edo komunitateenak... Nola egokitzen da halako ekimen bat, behar ezberdinek espazio eta garrantzia berdina izan dezaten? “Gorren elkartearen furgonetako musika itzali egiten da, eta zeinu hizkuntzan osatzen ditu esatariak 1.000 metroak. Inpaktantea zein ikusgarria da, egunerokoan ikusezinduta ditugun komunitateak -gor edo itsuena kasu- protagonista eta erreferente izaten ikustea, euskararen lurretan euren azal eta lengoaiaren murgiltzea tarte batez” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala, 2024/05/10). Antzekoa gertatzen da aniztasun funtzionala duten elkarteetako kideekin: “Zenbat gurgildun aulkik heldu diote lekuko eta ekimenari tokian-tokian? Bazterrekoak erdigunean behar ditugu; eta erdigunea okupatzen ohituak daudenak bigarren lerro batean; norabide berean, baina gutxiengoei toki eginez” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala, 2024/05/10) . Adibide-zerrenda luza daiteke, zentzu horretan: hanka edo beso bakarrarekin bizi direnak, down sindromedunak, arrazializatuak... “Euskararen munduan mundu guztiak duela tokia eta garrantzia adierazten duen ekimenik erraldoiena da Korrika” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10).

### 9.1.1.6. TRABESTI ETA BESTELAKO BAZTERREKO GORPUTZ, GENERO ETA MUGIMENDUAK ERDIGUNERATZEA

“Maitatu bihotzez  
inoiz ez ezkutatu  
sentipenak askatu  
zarena kanporatu”

(Yogurinha Borova, 2020)

“Uauuu!!! Laztanak, kolore festa hau trabestien kilometroa baino ezin zitekeen izan!!! #23KORRIKA #HARROHERRI”. Izar Mendigurenek AEK-ko sare sozialetan zabaldutako txioa da hori, Euskal Herriko trabestien kilometroa deskribatzeko. Nafarroako Erriberan gertatu zen, Cadreita inguruan. Urtero hartu izan dute kilometroa euskal trabestiek, euren aldarri, kolore, kolektibotasun, harrotasun eta aniztasunaren erakusle. Irudi horren atzean esanahi handia dago, Yogurinha Borovaz gain (Euskal Herriko *drag* aitzindarietako bat) Albina Stardust eta beste hainbat *drag* ezagun bezain ezezagun lehen lerroratu ziren, euskararen bidea hautatuz eta bultzatuz. Euskararen herria bestelako genero artistiko zein identitarioekin gorpuztea jauzi kualitatibo inportantea da.

Bidenabar, EHGAM mugimenduaren kilometroa ere badu gogoan: “Urkabustaitzen izan zen, Izarra aldean (Araba). Belaunaldi ezberdinetako kideak, haurrak, gazteak eta helduak, bandera eta aldarri koloretsuekin erdiguneratzea berebizikoa da, sexu askapenak ere euskaraz jarraitu dezan bidea zabaltzen”. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)

Ildo beretik, herri askotan bistaratu ziren ‘Euskal Herriko bollo topaketak’ iragartzeko pankarta edo euskarriak: “Azken bi edizioetan zuzeneko emisioak indar handia hartu du, eta herrietan hori ere baliatzen da aldarriak zein deialdiak zabaltzeko. Esaterako, Leitzan apirilean egin ziren Euskal Herriko bollo topaketen pankartak behin baino gehiagotan errepikatu ziren txoko ezberdinetan”. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)



15. Irudia: aniztasunaren kilometro desberdinak (AEK, 2024)

### 9.1.1.7. EUSKARA IKASLEEN AHALDUNTZEA

KORRIKAK zerbait bilatzen badu, euskaradunen ahalduntzea da. Horretarako, alfabetatzean jartzen dute fokua, baina dena ez da euskaltegietakoa jarduna. Saretze eta ahalduntze horretarako asko dira egun AEK-k abian dituen formatuak, mintzapraktika xede. AEKren barnetegiak' edota 'Ibiltaria' -15 eguneko mendi zeharkaldia- dira horietako bi. Korrika ere baliatu izan dute halako dinamikek Euskal Herriko partaideak elkartzeko. Politika da euskararen familia sozialaren bueltan sortu eta eratzen den harreman-sare edo konexio hori ikustea; parte direnen irrika aurpegiak; eta aurrera egiteko gogoak.

Egunez zein gauzez egiten du bidea Korrikak, etenik gabe. Metafora dirudien arren errealitatea ere bada: "Gau Eskolak ere omendu izan dira edizioz edizio. 22. Korrikak, esaterako, Donibane Garaziko Gau Eskolan izan zuen ekitaldi eta kilometro berezia, euskara ikastea doakoa eta unibertsala bilaka zedin eskatzeko". (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)

Halaber, tokian toki, bereziak izaten dira herriko euskaltegitik igarotzen diren uneak. Tartean, gainera, euskaltegietakoa urteurrenak edota omenaldiak ere suertatzen dira: "Laudion Berbots euskaltegiak 25 urte bete zituela ospatu zuten, Bilboko Zazpikaleetan Kalderapekotik igarotzen den unea ere magikoa izaten da (konfeti zaparrada eta guzti)...". Bestelako argazkiak ere baditu buruan: "Ultzama inguruetan, Errobi bailara zela esango nuke" -dio dudati- "bailara horretako euskaldun zaharrena omendu zuten euskararen transmisioaren alde eginiko lanagatik, eta 80 urteko gizonak bere 5 urteko bilobari pasa zion lekukoa; horrek



duen sinbolismo eta errealismo guztiarekin” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10).

Edozelan ere, euskara ikasleen ahalduzaz dagokionean, Azterketak Euskaraz ekimenaren jauzia goraiatzekoa da; euskaraz ikasteko eskubidea eta aldarria Euskal Herri osora hedatzea lortu baitute, atxikimendu horrek berarekin dakarren nazio-ikuspegia, eskubideen aldako aldarria eta etorkizuneko proiektuak herri eta belaunaldi ezberdinetara hurbilduz.

#### **9.1.1.8. MOTA GUZTIETAKO OMENALDIAK**

Korrikak milaka infinitu lagun batzea lortzen du: suhiltzaileak, nekazariak, irakasleak, sagardo-ekoizleak, lagun kuadrillak, idazleak, futbolariak, unibertsitateak, zaurgarritasun egoeretan dauden pertsonak, enpresak eta herri mugimenduak, besteak beste. Bakoitzaren ekarpen pertsonalaren zein kolektiboaren jakitun, omenaldi andana izan ohi da: lore sortak, negar malkoak, bertsoak, kartelak, musuak, jauziak, etab. Orotariko sentimenduak azaleratzen dira istant batean: poza, pena, harrotasuna, maitasuna, maitemina, dolua.

“Aitziber Sarasola Nafarroako AEKko koordinatzaile izandakoa omentzeko aldiro egiten den kilometroa, esaterako, oso hunkigarria da. Furgonetatik bere aurpegidun murala zintzilikatzen da, eta esker hitzek betetzen dute izena eta izana. Ohikoan esatari, *furgonetero* eta bestelako laguntzailez betetako furgonetaren irudia horrenbeste aldatzeak, Euskal Herrian pertsona askok eragindako aldaketa islatzen dute; bospasei minutuan denbora geratzen da, denok jabe gaitzen, atzera begiratzuz, zenbat egin dugun aurrera kide batzuei esker.” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonal 2024/05/10)

23. edizioak Lasarte-Orian ere utzi zuen marka, Katxiportak Aitziber Ugartemendia zendutako kidea gogoratzean. Porrotzek eta Marimototsek hartu zuten hitza, milaka lagun atzean zituztela, lekukoa Aitziberren alabari emanaz ondoren. Haizea Berueteren lagunek ere -2022an bere buruaz beste egin zuen- omenaldi oso polita egin zioten, Korrikan “presente zegoela eta gogoan zutela sentitzeko” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10).

Biurrun herritik (Nafarroa) igarotako kilometroan ere herri hunkitu bat baino ez zen ageri. Duela gutxi hil zen gizon gazte bati omenaldia egin zitzaion herri osoa bertan zegoela. Hainbatek gizon horren eta bere alabaren argazki erraldoia zeramaten gainean eta lekukoa herritar batetik bestera pasatu zuten, gizon horren alabak hartu zuen arte. Alabatxoa haurra zen oraindik eta bere presentziak Korrikan zeuden pertsona guztiak emozionatzea lortu zuen. Gainera, ageria zen herri horretan zegoen elkarlana eta kohesioa, bakoitzak bere eginkizuna izanik denek egiten baitzuten herriaren aldarri/omenaldiaren alde. Edozer eginda ere, denek egiten zuten osotasunaren alde eta hori nabaria zen.

Guztiak, ordea, ez dira istorio tristeak, inolaz ere. “Bilbon 19 urteko alabari kilometroa oparitu zion familiak martxoak 21 hartan, egun horretan bere amaren tripan metro batzuk egin ostean jaio zelako”. (Berria, 2023) *Berria* egunkariak jaso zuen bideoan unea eta elkarrizketa. Aguraingo Unai Olalderen alabak ere, leuzemia diagnostikatu ziotenetik 2 urtera hartu zuen lekukoa; eta bere aitonak ez du sekula ahaztuko unea, ez eta *Alea* aldizkariko azaleko argazki hori.

Aurretik ere aipatu izan denez, lasterkariek ez ezik, bide bazterrera batzen direnek ere egiten dute Korrika. Barakaldoko Maria Manriquek 97 urte ditu, eta palentziarra da (Espainia).

7 seme-alaba izan zituen, eta euskaraz piperrik ez dakien arren, etxeko atarira jaitsi zen gauzez txalo egitera. Nire amona da Maritxu, ez daki ezer euskaraz, baina bere 5 seme-alabek, bilobek eta 12 birlobek bai. Frankismo garaian Euskal Herrira lan bila migratu zuten familia asko daude Ezkerraldean, eta euskararekiko atxikimendua, ezagutza eta erabilera hazten ari da eremu erdaldunetan ere. (Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)

Txanponak, baina, aurpegi adina gurutze ditu. Miren Uranga zumaiarra oso urduri jartzen da Korrika bere herritik pasatzen den aldiro, eta nerbioengatik ezin izaten du txalo egitera joan.

Harekin hitz egiterakoan, barrenak gehiegi mugitzen dizkiola eta handiduragatik ezin duela Korrikan parte hartu esan zidan. Debekuak, errepresioa, aurrera egin duen herria... gauza asko korapilatzen zaizkio bere gorputzean eta hain da handia hori, bere xumetasunean Korrikak bere burua gainditzen duela. Korrikaren eragina emozionalki izugarria da, edozein aldetara begiratuta ere”. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)

Badaude ere ezkutatutako omenaldiak, talde batek lekukoa ordainduta erabaki behar duelako nork eramango duen. Horretan dezente dira norbanakoei egiten zaizkien omenaldiak. Haien lanagatik, euskararen alde egin duten lanagatik, eta abarregatik haien enpresak, mugimenduak, auzoak edota lagun taldeak lekukoa eramateko aukera ematen dietelako.

#### **9.1.1.9. LANDA-EREMUA ETA LAN-MUNDUA EUSKALDUNTZEA**

Bizitza pertsonalak, kolektiboak eta laboralak ere josten ditu euskarak. Lan-munduarenak ere badu zer ikertua, balioan jarria izan dadin. Hainbat enpresatako edota Lanbide Heziketako euskara batzordeek edota beharginek hartu ohi dute lekukoa. Suhiltzaileek hainbat herritan egin diote harrera sirenak piztuta edota mangeretatik ur txorrota botata. Martxoaren 24an, Baionako suhiltzaileek zintzilikatutako ikurrina erraldoia da horren adibideetako bat.

Nekazari eta abeltzainen traktore salaketek markatu zuten 2024 urte hasiera Euskal Herrian. Korrikan ere izan zuen islarik horrek, traktoreekin osatu baitzuten euren kilometroa Arabako nekazariak, besteak beste. “Artzainen elkarrekin ere txakurren konpainian jarri zuten alea, euren sektorearen eta lanaren adierazle”. Bestelako sektore edo lan-eremuak ere atxiki ziren ekimenera. Horien artean, nabarmentzekoa da lehenbizikoz AENOR hegazkinen enpresa euskararen hegaldira batzea. “Garesen laia gainean egin zituzten metro batzuk eramaileek; Derion Lanbide Heziketakoek baratzeko karretillekin eta tresneriarekin...”(Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10). Bakoitza bere eremu eta tresnekin batzen da Korrikara.



16. Irudia: Baionako suhiltzaileen ikurrina erraldoia (AEK, 2024)

#### **9.1.1.10. ZAINDUAK ETA ZAINTZAILEAK IZATEA, UNE BEREAN**

Halako ekimen batean zaintzaren tokia zein den zehaztea ere garrantzitsua da. Horretarako, gelditzen ez den lasterketa batean hori zelan berma daitekeen hausnartzea halabeharrezkoa

da. “Zainduak eta zaintzaileak sentitzen gara furgoneta eta ekimenaren inguruan gabiltzan lagun guztiak Korrikaren baitan. Zenbat patata-tortilla, pasta edota jaki ekartzen dira furgonetara, herritarren aldetik?” (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10). Bakoitzak nahi edo ahal duen moduan adierazten du babesa eta zaintza. Urtero, Lekeitioko lore-denda batek birritan ekartzen du lore-sorta bat aurreko furgonetako ispilua dotoretzeko; Iparralde osoa zeharkatzean, motor gidariak izaten dira AEK-ko bandera horiekin aldamenetan bidea irekitzen; Gasteiz hiri osoan zehar 50 txirringarritik gora daude furgonetaren aurretik bidegurutzak eta ibilbideak markatzen, eta makina bat adibide gehiago jar daitezke.

Beste batzuek, berriz, jateko edota lo egiteko lekuak eskainita, furgonetaren bueltan dabiltzanei egiten diete ekarpena. Era berean, furgonetatik lasterkariak eta partaideak zaintzeko hainbat dinamika daude uneoro abian: zelan dauden galdetzea, ura eskaintzea, atzean osasun arazorik egotekotan DYAKo ibilgailu medikalizatua edukitzea, edota norbaitek korrika egiten jarraitu ezin badu eta aurrean seme, alaba edo gurasoak oraindik korrika baditu, atzeko furgonetan joateko aukera eskaintzea, besteak beste.

Zenbat eroriko, hainbat altxaldi. Hori da Korrika eta AEK. Era berean, badira ikusten ez diren beste hainbat zaindari. Adibidez, Korrika ateratzen den unetik amaiera arte furgonetako azpiegituren mantenuaz arduratzen den laguntzaile-taldea dago, autokarabana batekin ibilgailuen zaintzaz gain, *furgoneteroena* ere errazten duena hamaika modutan. (Izar Mendiguren, komunikazio pertsonala 2024/05/10)

#### **9.1.1.11. EUSKAL HERRIKO PAISAIK**

Korrikan ikusten diren paisaiek ekitaldiak berez sortzen duen emozionaltasuna indartzen duen agertokia sortzen dute. Izan ere, Euskal Herriko ingurune naturala hunkigarria da eta lurralde honen idiosinkrasia eta identitatearen parte da. Gainera, jakin badakigunez, ilunabarrek eta egunsentiek egunari hasiera eta amaiera emateko erakusten duten paisaiek dezente eragiten dute ongizatean eta emozionalitatean. Hori dezente nabaritzen da Korrikan zehar.



17. Irudia: ibilbideko paisaia batzuk (AEK, 2024)

#### 9.1.1.12. KORRIKA PRESENTE EZ DAGOENEAN

Emozioak topera izatearen unea ez zen Korrika pasatu ostean eteten, herri dezentetan kontzertuak, parrandak, erraldioen kalejirak, euskal dantzak edota bertso-poteoa besteak beste, antolatzen baitira euskararen festak jarrai dezan. Horren adibide izan daiteke Leitza pasatu osteko unea. Leitzatik astegun buruzuri batean pasatu zen lasterketa. Umeak eskoletatik atera ostean, jende guztia mobilizatu ondoren eta herri dena kaleetan barrena izanik, Korrikaren aje emozionala guztiz presente izanda, zenbait aktibitate eta kultur entretenimendu eskaintzea erabaki zuen herriak.

Hala pasatzen da Euskal Herriko herri gehienetan. Korrika gauzez pasatzen denean, afariak edota gosariak, trikipoteoak, kontzertuak, etab. antolatzen dira. Hori izan da Mendigorrian (Nafarroa), Meatzaldean (Bizkaia), Tafallan (Nafarroa), Usurbilen (Gipuzkoa), Arrasate aldean (Gipuzkoa), Enkarterrin (Bizkaia), Gasteizen (Araba), eta beste zenbait tokitan gertatu dena.

Egunean zehar, bazkariak, erraldioen kalejira, kontzertuak, euskal dantzen ekitaldiak, tailerrak etab. antolatzen dira, euskararen festak jarrai dezan. Horrela izan da Irunen (Gipuzkoa), Laudion (Araba), Bilbon, Baigorrian (Nafarroa Beherea)... Batzuetan, era berean, aste osoa hartzen duten askotariko ekitaldiak egiten dira. Horien artean, *flashmove* grabaketak, Korrika artearen bidez lantzea, antzezlanak, bertso saioak eta tailerrak izan dira nabarmenenak. Uribarrin (Bilbo), Iruñean, Baionan, Zallan (Bizkaia), Sodupen (Bizkaia) eta hainbat tokitan burutu izan dira ekimen hauek.



18. Irudia: Leizako herria Korrika pasatu ondoren (AEK, 2024)

## 9.2. KORRIKAREN BILAKAERA 4. KORRIKATIK GAUR EGUNERA ARTE

Korrikaren eboluzioaren inguruko datuak jasotzeko, alde batetik inkesta eta, bestetik, elkarrizketak erabili dira. Horrekin, emaitzen atal honetan bertatik ateratako datu esanguratsuak ageriko dira baina ez zaio galderari bete-betean erantzungo. Erantzuna eztabaida eta interpretazioaren zatian agertuko da, non marko teorikoan ezarritako informazioarekin kontrastatuko den hemengo informazioa.

Dena den, inkestaren bitartez lorturiko datu batzuk aurtengo Korrikaren emozioen eta sinbologiaren aurreko atalerako ere erabilgarriak izango dira, nahiz eta hurrengo atalean agertu.

### 9.2.1. INKESTAREN EMAITZAK

Metodologiaren atalean azaldu denez, inkesta hau Korrika hasi baino egun batzuk lehenago bidali zen. Puntu hauen inguruko informazioa lortu nahi zen beronen bidez:


- Alde batetik, Korrika hasi baino lehenago nagusi ziren emozioak zeintzuk ziren jakin.
- Orobat, Korrikan jendeak zer nolako parte-hartzea izaten duen aztertu.
- Bestetik, parte-hartzaileen adina eta jatorria jakitea interesgarria zen, Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ekimena izanik berau jakin beharreko datua delako eta baliaturiko laginean herrialde guztiak pertsona kopuru nahikoarekin ordezkatuak izatea bilatzen zelako.
- Amaitzeko, eta Ane Elordik Mondragon Unibertsitatean emandako hitzaldia kontuan izanik, Korrika zer den zekiten ere galdetu zitzaien.

Horrela, foku hauek izanda, emaitzen azalpena egin daiteke. Metodologiaren atalean azaldu

denez, 952 erantzun jaso ziren eta 200 erantzunen laginketa egin da, pertsonakopuru horretara murriztuz analisia, berauen ikerketa eta lanketa errazagoa izan zedin. Modu horretan 952 pertsona horien jatorria eta adina kontuan hartu dira lehendabizi, ondoren, horien ordezkapena egin ahal izateko 200 pertsonaren erantzunekin. Horrela, hauek izan dira ikerketatik ateratako ehunekoak:

Zein adin taldekoa zara?

952 erantzun




19. Irudia: inkestatuen adin-tartea

Hasteko, erantzulearen adin-tartearen informazioa izateak, edade bakoitzeko bizipenen eta ikuspuntuaren inguruko argibideak erakusten dizkigu. Ane Elordik Mondragon Unibertsitatean eskainitako hitzaldiaren ostean, horren informazioa izatea garrantzitsua zela aurreikusi zen. Adin desberdinen arteko diferentzia presente izateko, behintzat. Dena den, laginketa egitean informazio hau aintzat hartu den arren, ez da hortik aparte gehiegi kontuan izan.

Nongoa zara?

952 erantzun



20. Irudia: inkestatuen jatorriak



Jarraitzeko, bereziki interesgarria izan den informazio-jasoketa erantzule bakoitzaren jatorria zehazten duena izan da. Hasieran, ez zen Euskal Herri osoko mailan ikerketa egingo zuen galdetegia aurreikusten baina, erantzunek gora egin ahala, Euskal Herriko txoko ia guztietara bidaltzen saiatu zen ikerlaria. Badirudi herrialde guztien presentzia bermatzea lortu dela, nahiz eta kopuru handiena Bizkaikoa, gertukoa, izan den. Horrela, egindako laginketa jatorriaren arabera egin da. Erantzun guztien jatorriaren kontaketa egin da eta horren arabera aukeratu dira 200 erantzuleen profilak, jatorria kontuan hartuz.

Atal honetan nabarmentzekoa da pertsona bakoitzak galdera honi erantzuteko duen modua. Bakoitzak bere identitatea eta, horrekin, jatorria, modu anitzetara hautematen duenez, galdera honen erantzuna bakoitzak bere kabuz idaztekoa izan da. Horregatik, badaude batzuk haien auzoak idatzi dituztenak, beste batzuk haien lurraldearen (Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) izena jarri dutenak eta, batzuek, Euskal Herrikoak direla zehaztu dute. Bakoitzak bere jatorriari ematen dion berezitasuna, beraz, adierazi da inkesta honetan. Dena den, hurrengo inkesta baterako galdera horretan proposaturiko erantzunak aukeratzekoak izatea onuragarriagoa izango litzatekeela aurreikusi da. Hori dela eta, ez da atal honetan denbora gehiegirik eman.


Ipar Euskal Herria bere hiru herrialdeetan ez banatzearen arrazoia azaltzea geratzen da. Kontua da ez dela bertako erantzun gehiegirik jaso: hori dela eta, Iparraldeko erantzunak batera jasotzea erabaki da, nahiz eta haien jatorria guztiz antzekoa ez den.

Nahiz eta ikerketa honen fokua etnografiaren antzekoa izan, etnografian 23. Korrikan izandako gertakizun eta ezaugarri desberdinen bitartez adierazi nahi izan dira emozioak. Inkesta honen bidez, aldiz, erantzun duen pertsona bakoitzak bere hitzetatik azaldutako emozioen zerrenda jaso da. Ez da esperientziala izan jasoketa, baina emozioei izena eta identifikazio zehatza atxikitzekeo baliagarria izan da.

Modu horretan, informazio-jasoketa hori bi modu desberdinetan egin da. Lehenengoa, galdera zabal biren bitartez jaso da, bi galdera hauek ezarriz:

1. Korrika zer den labur azaldu, mesedez.
2. Zergatik da garrantzitsua Korrika zuretzat?





## 22. Irudia: adierazi dituzten emozioen diagrama

Amaitzeko, inkestako azken galdera aztertuko dugu. Hau, parte hartu duten pertsonengan Korrikak sortzen dituen sentimenduak biltzeko idatzi da. Horietako batzuek azaldu dute sentimendu eta emozio ugari sentitzen dituztela aldi berean, eta Korrika bera amaitzean eraldatu egiten direla. Gehienak zorientasunarekin eta tristurarekin lotuta daude. Grafikoan ikus daitekeenez, inkestatuen erdiei zoriona sortzen die, laurden bati urduritasuna, beste bati % 10-15 harrotasuna/ilusioa/gogoa/emozioa, etab. Badira sentimenduak modu arruntagoetan deskribatzen dituzten pertsonak ere, hala nola kili-kiliak, adrenalina pil-pilean, bertigoa, oilo-ipurdia, etab. Horiek beste sentimendu orokorrago batzuetan bildu dira, hobeto islatuta eta modu gardenagoan utzi ahal izateko. Aipatu bezala, tristura sentimenduak ere badaude. Inkestatuen % 10 inguru dira eta sentimendu horiek Korrikaren 11 egunen amaieran agertzen direla azpimarratu dute.

Inkestatik ateratako datuen azalpenarekin amaitzeko, esan beharra dago parte-hartzearen galderatik lortutako informazioa ez dela adierazgarria ikerketa honen fokurako. Hori dela eta, ez da horren inguruko datuen lanketarik egingo lan honetan. Dena den, eranskinetan horien inguruko datuak agertuko dira.

## 10. EZTABAIDA / INTERPRETAZIOA

Atal honetan, izenburuan ageri denez, emaitzetan ageri den informazioaren interpretazioa landuko da, baita horien eta marko teorikoaren arteko desberdintasunak eta eztabaida ere. Marko teorikoan landu denez, Korrika elementuetan, sinboloetan eta tradizioan oinarritutako mekanismoen erabileran oinarritzen da, nahiz eta garaiak transformatzen ari diren (Del Valle, 1988). Egungo gizartea ez da AEK sortu zeneko garaiaren antzekoa, ezta Korrikaren lehenengo edizioa gertatu zenekoa ere. Aipatu denez, 2024ko Korrika garai hipermoderno, postindustrializatuari dagokio, indibidualismoan oinarritutako aroari, eguneroko bizitza azkartasunak blaitu duen aroari. Dena den, ezaugarri horiek dituen gizarte batean Korrika bezalako ekimenari lekua eskaintzen zaio, lekua, denbora, parte-hartzea eta esfortzua. Horregatik, del Vallek lantzen dituen ezaugarrien baieztapena egin daiteke gaur egun ere. Korrikak barnebiltzen dituen elementuak berdinak direla zehaztu daiteke. Hizkuntza, espazioa (lekua) eta lasterka egitea lehenengo Korrikatik azken ediziora arte nabarmendutako elementuak dira. Orobat, beste elementu batzuk gehitu beharko litzaizkioke: parte-hartzea, aniztasuna, kolektibotasuna eta emozioak. Ikerketa honetatik ateratako emaitzetan agerian gelditu da elementu horien presentzia.



### 23. Irudia: Teresa del Valleren ideien diagrama

Horrez gain, badaude aldatu diren Korrikaren ezaugarri dezente ere. Marko teorikoan eta emaitzen atalean ateratako bi diagrama hauetan nabaria da aldaketa. Lehenengoa Teresa del Vallerenean oinarritua izanik (1988), Korrikaren lehenengo lau edizioetan gainjartzen ziren ezaugarriak ageri dira. Une horretan, tradizio euskaldunean oinarritutako sinbologia dezente zaintzen zen eta Korrikaren ezaugarriek bat egiten zuten momentu hartan euskarak zituen kontraesan eta arazoekin. Hori dela eta, asko zaintzen ziren Korrikan erabiltzen ziren elementu zein sinboloak. Horietako baten bat gogora ekartzeko, Korrikak Euskal Herria osoa zeharkatzeak suposatzen zuena aipatzen da. Ekimenaren ibilbideak Euskal Herria



emozionala ere daukatenak: 'adierazezina', 'nortasuna', 'ezinbestekoa', 'kontzientzia', 'aniztasuna', 'balioak' eta 'indarra' dira horren adibide batzuk.

Ikerketa honen nahia Korrikak barnebiltzen dituen emozioen zerrenda egitea izanik, eztabaidatzeko beste kontu bat izan daiteke horiek batzeko erabilitako teknika eta ikusmolde desberdinen egokitasuna. Ondorengo taulan konparatu egiten dira orain arteko ikerketetan Korrikari esleitzen zitzaizkion ezaugarriak (funts emozionalarekin lotura zutenak) eta ikerketa honetan azalera direnak:

<b>ORAIN ARTEKO IKERKETEK NABARMENDUTAKO EZAUGARRIAK</b>	<b>IKERKETA HONEK NABARMENDUTAKO EZAUGARRIAK</b>
- Errituak	- Lurralde kohesioa, giltzarri
- Jendea berenganatzeko aukera	- Mugak gainditzeko ekimena
- Izaera polisemikoa	- Belaunaldiartekotasuna nonahi
- Gu-tasuna	- Kulturartekotasuna
- Ezberdinak elkartzeko bilgune	- Interseksionalitatea
- Euskal unibertsoaren bi aldeak	- Trabesti eta bazterreko gorputz, genero eta mugimenduak erdiguneratzea
- Diskurtso sozialen bateratzaile	- Euskara ikasleen ahalduntzea
- Korrika eta kirola	- Mota guztietako omenaldiak: aitortza kolektiboak
- Minorizatua, minoritarioa baina bizia	- Landa eremu ta lan mundua euskalduntzea
- Korrika Kulturala	- Euskal Herriko paisaiak
- Korrika Munduan	- Korrika presente ez dagoenean

## 25. Irudia: emozioetatik sortutako ezaugarrien konparaketa

Taulari erreparatuta, ondoriozta daiteke emozioak transmititu eta erakusteko moduak nahiko antzekoak izaten jarraitzen dutela. Emozioen presentzia antzekoa dela, alegia. Horrez gain, emozioak erakusteko modu asko daudela erakusten du ikerketa honek.

Amaitzeko, emakumeek Korrikan duten presentzia ere kontuan hartzeko ezaugarria dela esan daiteke. Iraganean, emakumeak haurrekin eta familiarekin agertzen ziren normalean Korrikan. Dena den, euskararen transmisioaren konponente beharrezko zirela argi zegoen. Emakumeen presentziari dagokionez, gaur egun, jarraitzen dute Korrikaren transmisioan beharrezkoak izaten. Orokorrean haiek dira Korrikaren sustapenean beharrezko diren faktore.

## 11. ONDORIOAK

Aurreko atalean landutako marko teorikoaren eta emaitzen interpretazioaren ostean, heldu da jada lan honen ondorioak jorratzeko momentua. Atal hau bi zati nagusitan banatuko da. Lehenengo atalean lan honen zenbait laburpen agertuko dira, testuan zehar aipatutako gai ezberdinen inguruko hausnarketak azalduz. Bigarrenean, aldiz, aurrera begirako zenbait erreflexio eta ideia garatu dira, etorkizunean Korrikari buruzko zenbait lan edota ekintza gauzatu nahi izanez gero, baliagarriak izango direlako esperantzarekin.

### 11.1. KORRIKA, EMOZIOEN GIDARI

Lan honetan behin baino gehiagotan errepikatu eta argi geratu den baieztapen bat da Korrika zerbait bada, emozionala dela. Kolektibotasuna eskatzen duten mugimendu bai linguistiko, bai kulturalak energia emozionalez beteriko ekintzak direla adierazten du horrek. Atxikimenduak, familiak, arbasoek, oroitzapenek, jolasek, dantzek, abestiek, pertsonak, eta enparauek egunerokotasunetik at dagoen mundu paralelo batera mugiarazten gaituzte. Hori bai, bakoitza bere mundura, bere emozio eta sentimenduek sortutako horretara. Beraz, bai AEK-k, bai Korrikak euskararen erabilera sustatzeko euskal gizartearen aktibazioa eta esfortzua aldarrikatzen dutela ebatz daiteke.

Hainbat inkestak egindako ikerketa, bizipen eta ekarpenen ondoren, honako puntu hauek atera ahal izan dira amaieran: Korrikak herri euskalduna beste guztiaren gainetik batzeko balio du. Berdin dio jatorria, kolorea, arraza, erlijioa edo sexua. Kide izatearen, zorientasunaren eta harrotasunaren sentimendu berak lotzen ditu guztiak. Euskara da kultur ekitaldi masibo hau osatzen duen katearen kate-maila nagusia.

Edizioz edizio izaten duen parte-hartze handiak Espainian, Frantzian zein nazioartean ere ikusgarritasuna izaten laguntzen du. Horrela, euskara partekatzen ez duen jendearengana iristea ahalbidetzen da, baina baita mugimenduarekin berarekin lotutako sentimenduak izan ditzakeen jendearengana ere. Egun, euskarak lurralde euskaldun bakoitzean pairatzen dituen arazoak aldarrikatzeko eta hobetzeko eskatzeko ere balio du ekimen honek. Euskal Herriko gaurkotasuna eta egoera ezagutarazteko oso modu eraginkorra da.

Badago Korrikaren alderdi ez hain positiboa eta hori da behin lasterketa amaitutakoan gero parte-hartzaileengan duen eragin eskasa euskaraz bizitzeko hautuari dagokionez. Hemen bildutako informazioaren argitan, Korrika egiten duten parte-hartzaileak beste modu baten

motibatzeneko beharra azaleratu da. Laguntzaile izateko aukera ematearen ideia egokia izan da, benetan euskararen alde daudela adierazteko esfortzu handiagoa baita, behintzat korrika egite hutsarekin alderatuz. Agian herri bakoitzeko euskara batzordeetara hurbilazteko esfortzu handiagoa egin beharko litzateke. Edo horretarako beste modu batzuk hauspotu ahalko lirateke: foroa eratzea, eskutitzen gunea osatzea edota ko-sorkuntza saioak burutzea batzar informatiboen ordeztu. Korrikaren “jabeago” sentiarazteak agian jendea euskalduntzeko pauso handiagoak egitea eragin lezake. Korrika berriro herritik eta herriarentzako sortua den ekimena izatera bueltatzea onuragarria izango litzateke. Bizikletarien parte izateko aukera emanaz, furgonetan igotzeko aukera gehiago zabalduz (esatarien parte-hartzearekin aurrerapausoa egin da), herri bakoitza bertan egiten denaren jabe izanez, etab. Eta halabeharrezkoa da, horrez gain, Korrika pasatu osteko ekimenean bat prestatzea, haren bulkada ahaztuta gera ez dadin.

## 11.2. ETORKIZUNERAKO HAUSNARKETAK

Lan honetan hainbestetan azaldutako datua da Korrikak hainbat gai desberdin jorratu ahal dituela. Horregatik, badaude prozesuan zehar izandako zenbait gai Korrikaren inguruko ikerketak egiteko erabili ahal direnak eta lan honetan erabili ez direnak. Horien artean, hurrengo hauek nabarmentzen dira:

- Lekuko-eramaileen informazioarekin, gailentzen diren aldarrien ikerketa egitea. Horrela, Euskal Herriko kezken panorama eduki daiteke.
- Korrika baino lehenagoko, bitarteko eta ondorengo euskaltasunarekiko atxikimenduaren intentsitatea. Hau elkarrizketen bitartez egin daiteke edo zenbait pertsona aukeratuz, haien eguneroko jarraipena eginez Korrikaren eta euskararen presentzia eta ausentzia ere kontuan izateko.
- Izandako 952 erantzunen ikerketa egitea. Aurrenengoz zehaztutako fokurik gabe, baina erantzundako pertsona guztiak kontuan izanik.
- Korrikaren prestaketan eta horren inguruan dauden lan-eremu desberdinen kontaketa. Parte-hartzaile dezenteri gustatu ahal zaio horren inguruko informazio gehiago izatea. Alde batetik, Korrikarekin atxikimendu handiagoa sentitzeko (transparentziarekin). Eta, beste aldetik, batzordeetan parte hartzeko aurrerapausoa egin ahal izateko.
- Parte-hartzaileen iritzi-bilduma egitea, foro antzeko bat eta bertatik, Euskal Herriaren zati handia ordezkatzeko dutenen iritzia jasotzea.



## 12. BIBLIOGRAFIA

- AEK. (2023). *Korrika.eus*. <https://www.korrika.eus/eu/korrika/zer-da-helbidetik-eskuratua>
- Alí, L., & Enciso, G. (2013). El giro afectivo. *Atenea Digital*, 13(3), 101-119.
- Arrieta, I. (1996). Antropología, etnología, etnografía. *Jakin*(98), 22-36.
- ASALE eta RAE. (2023). *Diccionario de la lengua española RAE-ASALE*.  
<https://dle.rae.es/tradici%C3%B3n-helbidetik-eskuratua>
- Bauman, Z. (2009). ¿Qué hay de malo en la felicidad? Z. Bauman en, *El arte de la vida. De la vida como obra de arte* (D. Urdina, Itzul., or. 11-32). Bartzelona: Praidós.
- Bericat, E. (2012). Emociones. *Sociopedia.isa*.
- Brown, B. (2010). El poder de la vulnerabilidad. TEDxHouston.
- Connor, S. (2011). *A Philosophy of Sport*. London: Reaction Books Ltd.
- Del Valle Murga, M. T. (2019). *Apuntes metodológicos desde la articulación entre las emociones, el poder evocador y la memoria*. doi:DOI:2018.AR0024180
- Del Valle, T. (1988). *Korrika: rituales de la lengua en el espacio*. Bartzelona: Editorial Anthropos.
- Design Thinking España. (2024.eko martxoak 31). *Design Thinking España*. <https://xn--designthinkingespaa-d4b.com/> helbidetik eskuratua
- Elordi, A., & Otaño, A. (2024.eko maiatzak 15). *Korrika.eus*. (AEK, Editorea) Etenaldirik ez da: [https://www.korrika.eus/eu/bloga/item/801-etenaldirik-ez-da?fbclid=PAZXh0bgNhZW0CMTEAAabw-ew\\_XA6pYiNExnc3eMwU\\_R6fr-Cflp6Fyg6gK22vswNAtPQhPSx\\_dIQ\\_aem\\_AXxVMKi1SmGqvhJZGbz9\\_I5AG4nxAgM421Cp3FwPxsZ0kRwiNOQr7cVvkqEcuasyWCDYKeQ7jCh8ZvBqE69y5f7fn](https://www.korrika.eus/eu/bloga/item/801-etenaldirik-ez-da?fbclid=PAZXh0bgNhZW0CMTEAAabw-ew_XA6pYiNExnc3eMwU_R6fr-Cflp6Fyg6gK22vswNAtPQhPSx_dIQ_aem_AXxVMKi1SmGqvhJZGbz9_I5AG4nxAgM421Cp3FwPxsZ0kRwiNOQr7cVvkqEcuasyWCDYKeQ7jCh8ZvBqE69y5f7fn) helbidetik eskuratua
- Etecé (2023.eko otsailak 15). *Simbología*. Concepto.de.: <https://concepto.de/simbologia/>. helbidetik eskuratua
- Etxebarria, M. (2002). *La diversidad de las lenguas en España*. Espasa Libros.
- Etxeolonea, M., Bourguignon, o., Larizgoitia, I. & Otxoteko, A. (2017). *Pentsatzera ausartu*. Ausartu zaitetz pentsatzera:  
<https://ausartuzaitetzpentsatzera.wordpress.com/2017/09/27/primera-entrada-del-blog/> helbidetik eskuratua
- Fernandez de Labastida, I. (2016). Conceptos fundamentales de la Antropología Social. 2.gaia. 1-27.
- Ferrándiz, F. (2017). *Cómo hacer una mini-etnografía*. Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado.
- Galdos, M., & Amezaga, J. (2023). Korrika: gizarte subjektuen bilgune. *Jakin*(258), 57-74.
- Galparsoro, A., Garmendia, M., Ormazabal, E. & Urbizu, N. (2017). Irri, zirri, urri, Korrika

- iturri. Lizarrako Korrikara gerturatzeko bat emozioen begiradatik. *Ankulegi*, 21, 75-91.
- Gilligan, C. (2013). La ética del cuidado. C. Gilligan en, *La resistencia a la injusticia: una ética feminista del cuidado* (30. bol., or. 42-67). Víctor Grifols i Lucas Fundazioa.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketa teknikak. Teoriak eta argibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Koch, N. (2023). Event ethnography: Studying power and politics. (J. W. Ltd., Ed.) *Willey*, 1-15. doi:10.1111/gec3.12729
- Konteko, V. (2019). Correr la lengua: el fenómeno de la Korrika. *Estudios Hispánicos*(27), 39-52.
- Larrinaga, A. (2018). Los movimientos sociales como contextos emocionales: el impulso emocional en el movimiento lingüístico vasco. *Athenea Digital*(18(1)), 319-347.
- Le Breton, D. (2012). Por una antropología de las emociones. *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad*, 4(10), 67-77.
- Ligams. (2024.eko urtarrilak 6). *La Passem! et Ligams*. <https://lapassem.com/la-passem-et-ligams/> helbidetik eskuratua
- Masschelein, J. (2019). Turning a City Into a Milieu of Study: University Pedagogy as “Frontline”. *Educational theory*, 69(2), 185-203.
- Morgado Bernal, I. (2011). *Emociones e inteligencia social*. Ariel.
- Orbegozo-Terradillos, J., Zarrabeitia-Bilbao, E., Larrondo-Ureta, A. & Álvarez-Meaza, I. (2024). Korrika, nortasun kolektiboaren eraikuntzarako: #korrika22-ren aztarna digitalaren azterketa Twitterren. *Papeles del CEIC*, 2024/1(297), 1-27.
- Ruiz, A. (2023). Norabide aldatetarako unea al da? *Gizarte berrikuntza pentsamendu sistemikotik*(maiatza-abuztua), 173-184.
- Skolimowski, H. (2017). *Filosofía viva. La ecofilosofía como un árbol de la vida*. (F. López Martín, Itzul.) Girona, España: Atlanta.
- Ttipi-Ttapa. (2024.eko martxoak 14). Korrika hasi aitzinetik KorrikArantza jendetsua egin dute Arantzan. *Erran.eus Bortziriak*.
- Urdangarin, M. (2020). Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa: zaugarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna. *Jakin*, (Jose Azurmendiri eskainitako alea, pentsamenduaren ur-jauzia), 179-192.
- Wikipedia. (2023). *Neuroquímica*. (Wikimedia, Produktorea) Wikipedia: <https://es.wikipedia.org/wiki/Neuroqu%C3%ADmica> helbidetik eskuratua
- Wikipedia. (2024). *Neurofisiología*. Wikipedia: [https://es.wikipedia.org/wiki/Neurofisiolog%C3%ADa#cite\\_note-OMS-1](https://es.wikipedia.org/wiki/Neurofisiolog%C3%ADa#cite_note-OMS-1) helbidetik eskuratua
- Zabala, J., Conejero, S., Pascual, A., Zumeta, L.N., Pizarro, J.J. & Alonso-Arbiol, I. (2023). Korrika, running in collective effervescence: A model of collective processes and

their positive psychological effects. *Front.Psychol.*

